



Jarraipen Txostena

2005. urtea



AURKIBIDEA

Or.

1. AURKEZPENA	6
2. LABURPENA ETA ONDORIOAK.....	8
3. IZARTU I PROGRAMA GAUZATZEAREN INGURUKO MEMORIA	14
3.1. 2005. URTEAN GAUZATUTAKO ESKU-HARTZEA ETA DESBIDERATZEAK ..	16
3.1.1. 2005. urtean gauzatutako esku-hartzearen finantza-alderdiak	16
3.1.2. Programazioaren araberako desbideratzeak	20
3.2. PROGRAMAREN AURRERAPENA BALIOESTEA IKUSPEGI FUNTZIONALETIK ETA LURRALDEAREN IKUSPEGITIK.....	25
3.2.1. Programaren aurrerapena inbertsioaren arabera.....	25
3.2.2. Tokiko inbertsio-ahalegina eta jasotako diru-laguntzak	29
3.2.3. Aurrerapena balioestea ikuspegi integraletik udalen arabera.....	31
3.2.4. Programak aurrera egiten laguntzeko neurriak.....	36
4. IZARTU II. PROGRAMA GAUZATZEAREN INGURUKO MEMORIA	39
4.1. 2005. URTEAN GAUZATUTAKO ESKU-HARTZEA ETA DESBIDERATZEAK ..	41
4.1.1. 2005. urtean gauzatutako esku-hartzearen finantza-alderdiak	41
4.1.2. Programazioaren araberako desbideratzeak	45
4.2. PROGRAMAREN AURRERAPENA BALIOESTEA IKUSPEGI FUNTZIONALETIK ETA LURRALDEAREN IKUSPEGITIK.....	49
4.2.1. Programaren aurrerapena inbertsioaren arabera.....	49
4.2.2. Tokiko inbertsio-ahalegina eta jasotako diru-laguntzak	52
4.2.3. Aurrerapena balioestea ikuspegi integraletik udalen arabera.....	54
4.2.4. Programak aurrera egiten laguntzeko neurriak.....	57

5. HIRIALDEAK BIZIBERRITZEKO PROZESUEN AURRERAPENAREN	
INGURUKO MEMORIA	60
5.1. HELBURUETAN IZANDAKO AURRERAPENA: INBERTSIOA ETA	
EGINDAKOA	64
5.2. HIRIALDEAK BIZIBERRITZEKO PROZESUETAN IZANDAKO EMAITZAK	
ETA ERAGINAK	68
5.2.1. Lurralde-integrazioa	68
5.2.2. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak barne hartzea .	72
5.2.3. Ingurumenaren ikuspegitik narriatutako inguruneak lehengora ekartzea .	74
5.2.4. Enpresaburuei, ETEei, turismoari eta udal-ondareari laguntzea	80
5.2.5. Hiriaren irudia eta egoera hobetzea	83
5.2.6. Gizarte, kultura eta laguntzaren esparruko zerbitzuak eta ekipamenduak	87

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

Or.

3. KAPITULUA. - IZARTU I PROGRAMA GAUZATZEAREN INGURUKO MEMORIA

1. Grafikoa: 2005ean egindako gastua urte horretarako programazioaren arabera.....	16
2. Grafikoa: Esku hartzeko esparruak. 2005ean egindako inbertsioaren egokitze-maila urte horretarako gastu-aurreikuspenen arabera.	18
3. Grafikoa: Eskualdeak. 2005ean egindako inbertsioen egokitze-maila urte horretarako gastu-aurreikuspenaren arabera.....	19
4. Grafikoa: Jarduerak. Programazioaren araberrako desbideratzeak. 2005. urtea.....	21
5. Grafikoa: 2001-2005 epean egindako gastua, inbertsio guztiarekiko.	25
6. Grafikoa: 2001-2005 denboraldian egindako inbertsioaren ibilbidearen eraketa.....	26
7. Grafikoa: Esku-hartzearen eremuak. 2001-2005 epean egindako gastua inbertsio osoarekiko.....	27
8. Grafikoa: Eskualdeak. 2001-2005 aldiran egindako gastua guztizko inbertsioaren arabera.....	28
9. Grafikoa: Izartu Egitasmoaren ibilerarekiko gogobetetzearen balorazioa	31
10. Grafikoa: Izartu Egitasmoari laguntza tekniko emateko gastua 2001-2005	36
11. Grafikoa: Laguntza teknikoaren jardura nagusiak 2005 urtean	37
12. Grafikoa: 2005ean Izartu programen baitan komunikatzeko, informazioa emateko eta hedatzeko erabilitako tresnak.....	38

4. KAPITULUA. IZARTU II PROGRAMA GAUZATZEAREN INGURUKO MEMORIA

13. Grafikoa: 2005ean egindako gastua urte horretarako programazioaren arabera	41
14. Grafikoa: Izartu I eta Izartu II programek lehen urtean egindako gastuen arteko konparazioa.....	42
15. Grafikoa: Esku hartzeko esparruak. 2004-2008 aldirako IZARTU programek 2005ean egindako inbertsioa.....	43
16. Grafikoa: Eskualdeak. 2004-2008 aldirako IZARTU programek 2005ean egindako inbertsioa.....	44
17. Grafikoa: Jarduerak. 2004-2008 aldirako IZARTU programen programazioaren araberrako desbideratzeak. 2005. urtea.	45
18. Grafikoa: Udalerriak. 2004-2008 aldirako IZARTU programen programazioaren araberrako desbideratzeak. 2005. urtea.	46
19. Grafikoa: Izartu I eta Izartu II programek lehenengo urtean izandako aurrerapenen arteko konparazioa, guztizko inbertsioaren arabera.	49

20. Grafikoa: Esku hartzeko esparruak. 2004-2008 aldirako IZARTU programek 2004 eta 2005. urteetan egindako gastua guztizko inbertsioaren arabera	50
21. Grafikoa: Eskualdeak. 2004-2008 aldirako IZARTU programek 2004 eta 2005. urteetan egindako gastua guztizko inbertsioaren arabera	51
22. Grafikoa: 2004-2008 aldirako Izartu programak daraman bidearen inguruko asetasunaren balorazioa	54
23. Grafikoa: 2004-2005 aldiko Izartu II programaren laguntza teknikorako gastua.	57
24. Grafikoa: 2004-2008 aldirako Izartu programen baitan 2005ean egindako laguntza teknikoaren baitako jardura nagusiak.	58
25. Grafikoa: 2004-2008 aldirako Izartu programen baitan 2005ean komunikatzeko, informazioa emateko eta hedatzeko erabilitako tresnak	59

5. KAPITULUA: HIRIALDEAK BIZIBERRITZEKO PROIEKTUEN AURRERAPENAREN INGURUKO MEMORIA

26. Grafikoa: Kohesioaren inguruko helburu orokorrak. 2001-2005 aldian egindako gastua guztizko inbertsioaren arabera.	65
27. Grafikoa: Kohesioaren inguruko helburu orokorrak. 2001-2005 aldian egindakoa guztizko inbertsioaren arabera.	67
28. Grafikoa: Lurralde-integrazioa. Aurrerapena jardueren tipologiaren arabera. 2001-2005.....	68
29. Grafikoa: Informazioaren eta Komunikazioen Teknologia Berriak. Aurrerapena jardueren tipologiaren arabera. 2001-2005.	72
30. Grafikoa: Ingurumena. Aurrerapena jardueren tipologiaren arabera. 2001-2005.....	74
31. Grafikoa: Ekonomia-jardura. Aurrerapena jardueren tipologiaren arabera. 2001-2005.....	80
32. Grafikoa: Hiriko ingurunea eta kalitatea. Aurrerapena, jardura-moten arabera. 2001-2005	83
33. Grafikoa: Ekipamenduak eta zerbitzuak. Aurrerapena jardueren tipologiaren arabera. 2001-2005.....	88

TAULEN AURKIBIDEA

Or.

1. taula: 2001-2004 aldirako IZARTU programetan aurkeztutako jardueren analisisa, esku hartzeko esparruen arabera. 2005. urtea.	18
2. taula: IZARTU programetan amaitutako jardueren analisisa, esku hartzeko esparruen arabera. 2005. urtea.	35
3. taula: 2004-2008 aldirako IZARTU programetan aurkeztutako jardueren analisisa, esku hartzeko esparruen arabera. 2005. urtea.	40
4. taula: 2004-2008 aldirako IZARTU programetan amaitutako jardueren analisisa, esku hartzeko esparruen arabera. 2005. urtea.	57

1. AURKEZPENA

2005. urteko Jarraipen Txostenean, Izartu programaren bi deialdien bidez (2001-2005 Izartu eta 2004-2008 Izartu programen bidez) hirialdeak berritzeko sustatu diren 118 programa integralen garapenaren laburpen bat egin da, eta, horrez gain, programaren onura jaso duten udalerrietan lurraldea, gizartea eta ekonomia egituratzeko lanetan izan diren aurrerapenik nabarmenenak jaso dira.

Honen ondoren aurkezten dugun txostenean, lehen aipatutako ekitaldian egindakoa bildu eta zehaztu nahi izan dugu, eta, horrez gain, ikuspegi orokor bat eman nahi izan dugu urte hauetan egin den ahaleginaz, izan den aurrerapenaz, eta lortu diren emaitzez eta ondorioez, 2005. urtean egindako esku-hartzeei buruzko urteko txostenen programetako tokiko arduradunek eman dizkiguten datuak oinarritzat hartuta.

Ildo horretan, gogoan izan behar da **Izartu programaren lehenbiziko deialdiko programazioa (2001-2004) azken urratsetan dagoela; bigarren deialdian (2004-2008) onetsitako programei dagokienez, berriz, urte eta erdi igaro da abian jarri zirela baina, aurreikuspenen arabera, bost urte beharko dira haiek burutzeko.**

Horiek ikusita, udalek aurkeztutako datuen azterketa berezia egin behar da, programak zein unetan abiarazi ziren kontuan izanik; izan ere, txosten honen bidez, ikuspegi orokor bat eman nahi dugu, Izartu programaren bitartez EAEko lurraldea, ekonomia eta gizartea areago bateratzeko sustatu diren jarduera guztiei eman zaien laguntzari buruz.

Bestalde, ez dugu ahaztu behar Izartu programaren bi deialdien bidez Euskal Autonomia Erkidegoko 97 udalerrian jardun dela, eta udalerri horietan autonomia-erkidego osoko biztanleriaren %85 bizi dela; gainera, egin den inbertsioa 391,5 milioi euro izan dira, eta, horietatik, Izartuk %65,5 diruz laguntzen du batez beste.

2004. urteko txostenak bezalaxe, 2005eko Jarraipen Txostenak hiru kapitulu nagusi ditu, laburpen betearazleaz gainera.

Lehenbiziko bi kapituluak *Izartu I programa gauzatzearen inguruko memoria eta Izartu II programa gauzatzearen inguruko memoria* dira. Horietan, azterketa tekniko bat egin da, aurreikuspenen arabera programek benetan zenbateko aurrerapena izan duten, nola betearazten ari diren eta, azken batean, ekimen honen bilakaera nolakoa izaten ari den jakiteko, betiere, sailkapen funtzionala -ardatzak eta neurriak- eta lurraldeko sailkapena -eskualdeak eta udalerriak- kontuan izanik. Kapitulu horietan alderdi hauek azalduko ditugu: esku-hartzearen finantza-alderdiak, programazioaren araberrako desbideratzeak, horren arrazoiak eta aurkitu diren konponbideak, ardatz nagusietan eta udalerrietan izan den aurrerapena, bestelako diru-laguntzak jaso ote diren, laguntza teknikoa jaso den eta Programaren publizitatea bermatzeko hartu diren neurriak.

Hirugarren kapitulua *Hirialdeak biziberritze prozesuen aurrerapenaren inguruko memoria* da. Hor azterketa bat egin da, programek aldatu nahi duten errealitatean zenbateko eragina duten jakiteko, hau da, balioespen kuantitatibo bat egin da Izartu programak lortu nahi dituen kohesioko helburuen arabera izan den aurrerapenaz. Programaren onura jaso duten 87 udalerriak sartu dira prozesuan. Deialdi batean eta bestean parte hartzeko baldintzak desberdin samarrak izan diren arren (horrek bi deialdien arteko konparazio zehatza egitea zailtzen du neurri batean), egiaz, Izartu programaren bidez lorpen ugari egin dira euskal udalerri askotan. Lorpen horiek azpimarratzeko modukoak dira, eta horrexegatik bildu ditugu txosten honetako azken kapituluan. Izan ere, hirugarren kapituluan ahalegina egin dugu Izartu ekimenak oro har izan dituen emaitzak nolabait islatzeko eta horren gaineko ondorioak ateratzeko: izandako emaitzak deskribatu ditugu, eta eraginpeko eremuetan lurraldea, gizartea eta ekonomia bateratzeko izan duen inpaktua aztertu dugu.

Agiri honetan daturik garrantzitsuenak jaso ditugu laburpen gisa, Izartu programak udalerrietan hobekuntzak egiteko duen garrantzia ikuste aldera.

2. LABURPENA ETA ONDORIOAK

2005. urtean, Izartu I programaren onura jaso zuten udalerrriak azken txanpan daude. Aurreko urteetan burutu ziren 6 programez gain (*Bilbo Zaharra, Bilbao Otxarkoaga, Ermua, Etxebarri, Güeñes eta Mungia*), ekitaldi honetan 13 programa hauek amaitu dira: *Balmaseda, Bermeo, Berriz, Gordexola, Karrantza, Leioa, Mendaro, Muskiz, Mutriku, Tolosa, Ondarroa, Urduña-Orduña eta Zegama*.

Bestalde, Izartu programaren lehen deialdian onura jaso zuten 12 udalerriri oso gutxi falta zaie programak burutzeko (inbertsio osoaren %80 baino gehiago burututa baitute); hauek dira: *Amurrio, Deba, Donostia Altza, Errenteria, Irun, Legazpi, Loiu, Ordizia, Portugalete Azeta, Soraluze-Placencia de las Armas eta Urretxu*.

Guztira Izartuk diruz lagundutako 304 jardueretatik 206 amaitu dira (guztizkoaren %68), eta horietako gehienak hirialdeak antolatze eta birgaitze esku hartze esparruaren baitakoak dira.

Era berean, programak bide onetik doaz, egin den gastua urterako aurreikusi den inbertsioari nola egokitzen zaion ikusita: lehenbiziko aldiz, ekitaldiko programazio gehiena burutu da eta egin den gastua 42,5 milioi euro ingurukoa izan da. Dena dela, datu horretan ñabardura bat egin behar dugu: Izartu I programari buruz zenbatetsi zen hasierako denboraldiaren arabera, 2005. urtea itxierako ekitaldia zen programaren onuradunentzat; hori gorabehera, onuradunek bi urteko luzapena eska zezaketen jarduerak burutzeko. Ildo horretan, 2005. urtean aurreko urteetan baino eskabide gehiago jaso dira hala epea luzatzeko -22 eskabide guztira- nola jarduerak aldatzeko -guztira 10-; azken hauen bitartez, aurrekontua jarduera batetik bestera aldatu nahi izan da eta jarduerak ezabatu edota berriak sartu ere bai. Beste alde batetik, Izartu programari egindako lehenengo ukoa jaso dugu: Zumarragako udalak egin du, bere programa betetzea ezinezkoa eta bideraezina zelako.

Gainera, desbideratzeak izan dira; dena dela, jardueren %20k baizik ez du eduki aurrez ikusita zegoena baino gastu txikiagoa izan, eta desbideratze gehienetan gastu gehiago egin behar izan da ekitaldiko programan jasotakoa baino.

Ildo horretan, eta emaitza onak gorabehera, inbertsioen erritmoa ez da berdina izan udalerri guztietan, programa batzuk atzean geratu baitira, hala nola hauek: Alonsotegi, Barakaldo (Gurutzetza), Eibar, Gernika-Lumo, Portugalete (San Roke), Sestao eta Zaldibar, eta neurri txikiagoan Eibar, Laudio eta Pasaia ere bai. Kasu gehienetan, atzerapen horren arrazoia da aurreko urteetan ere atzeratuta ibili direla jarduerekin zerikusia duten administrazioek edo bestelako erakunde publikoek eman beharreko baimenak eskuratu gabe zituztelako. Elkarrekiko mendekotasun horietako gehienak konpondu dira, eta, beraz, programak aurrez ikusita zegoenaren arabera beteko direla uste dugu.

Bestetik, jarduera batzuetan atzerapena izan arren, horrek ez du ezer iluntzen, Izartu I programaren onura jaso duten udalerri gehienak bide onetik baitoaz. **Ildo horretan, 2001-2005 denboraldian, ekimen osorako aurreikusita zegoen inbertsio osoaren %80 inguru betearazi dute udalerriek. 2005eko ekitaldian egin den ahalegin ekonomikoak (hori aurreko urteetan egindako ahaleginari gehitu behar zaio) 169.909.511 €ko inbertsio metatua egiteko aukera eman du. Guztizko aurrekontua 218.322.885 €koa izan da.**

Gipuzkoa eta Bizkaia dira aurreratuen doazen probintziak. 2001-2005 aldian guztira egindako inbertsioa guztizko inbertsioaren %85ekoa eta %75ekoa izan da. Araban, berriz, inbertsio osoaren %69 egin da. Eskualdeen arabera, honako hauek burututa daude: *Bilbao, Eskuinaldea, Plentzia-Mungia, Tolosa, Arratia-Nerbioi, Enkarterri eta Markina-Ondarroa.* Beste batzuei gutxi falta zaie programak burutzeko; hona hemen zein diren: *Bidasoa Beherea, Debabarrena, Donostia-San Sebastián, Goierri eta Durangaldea.*

2004-2008 aldiko Izartu programen bigarren urteko datuei dagokienez, aurrerapena Izartu I programaren onuradun izan ziren udalerriek denboraldi horrexetan izan zutenaren antzekoa izan da. **Izartu II programaren onuradun diren 68 udalerriek 2004. eta 2005. urteetan egin duten gastua 47,4 milioi eurokoa da. Inbertitzeko ahalegin hori aldi osorako aurreikusitako programaren guztizko inbertsioaren %27ren parekoa da.** Programaren lehen deialdiaren onuradun izan zirenek guztizko inbertsioaren %22 gauzatu zuten beren ibilbidearen lehen urtean.

Ildo horretan, lehenbiziko urtean bezala, 2005. urterako gastu-aurreikuspenak era nabarmenean gainditu dira: %140 betearazi da programatutako gastuaren gainetik. Hala, udalerriei dagokienez, aurreikuspenen arabera izan den soberakin hori Izartu II programaren onura jaso duten udalerrien heren batean baino gehiagotan izan da (%40);

bestalde, %16k programatutakoa bete du. Aitzitik, udalerrien %44k izan duen gastua 2005. urteko inbertsio-aurreikuspenetatik behera dago.

Gastu gehien egin duten udalerriak honako hauek dira: Andoain, Arrigorriaga, Astigarraga, Bilbao, Elorrio, Hernani, Ibarra, Igorre, Lekeitio eta Orio. Era berean, udalerri horietan izan dira programetan gehien aurreratu dutenak, diruz laguntzeko moduko inbertsioaren %50 baino gehiago betearazi baitute. *Igorre* eta *Andoain* udalerrietan, betearazi den inbertsioak denboraldi osorako (2004-2006) programatutako gastu osoaren %100 ere gainditu du. Tokiko arduradunek adierazi zuten, aurrerapen horren arrazoia izan zen aurreikusita zeuden hobekuntza eta jarduera batzuk lehenbailehen egiteko beharra (eta premia) zegoela.

Bestetik, hauek dira diruz laguntzeko moduko inbertsioa betearazteko garaian atzerago daudenak: *Basauri, Bermeo, Erandio, Erreterria, Gernika-Lumo, Irun, Leioa, Lemoiz, Oiartzun, Sestao, Tolosa, Valle de Trápaga-Trapagaran eta Zaldibia*. Atzerapen horretarako aipatu diren arrazoiak ez dira udalen baitakoak, kanpokoak baizik (azpikontrataturako enpresek obrak hasteko izan duten atzerapena, aurreikusitako jardueren zailtasuna, tartean dauden beste instituzio edo agente batzuen baimenen edo akordioen beharra,...); edo, bestela, udalerrian egiten ari diren beste esku-hartze batzuen mendean egon dira, izapideak atzeratu dira, edo jardueren zailtasuna dela-eta aurretiazko azterketak edo zenbatespenak benetako egoerara egokitu behar izan dira.

Izartu II programari dagokionez, Bizkaia da aurreratuen dagoen lurraldea, 2004. eta 2005. urteetan 28,2 milioi euroko gastua egin baita, alegia, denboraldi osorako dagoen inbertsioaren %32. Denboraldi horretan, Arabak guztizko gastuaren %24 inguru baliatu du, izan ere, betearazitako gastua 1,3 milioi euro ingurukoa da. Azkenik, Gipuzkoak guztizko inbertsioaren %22 baliatu du 2004 eta 2005. urteetan, eta betearazitako gastua 17,9 milioi eurokoa izan da.

Bigarren deialdi honetan onuradun izan diren udalerrietako arduradunek programa abian jartzearen inguruan egindako balorazioa oso ona izan da, batez ere onura jaso duen biztanleriaren artean piztu diren itxaropenak eta ilusioak direla-eta, jarduera gehienak hasi besterik ez baitira egin. Bestetik, tokiko arduradunek egindako balorazio on hori ageri-agerian dago 2004-2008 Izartu Programaren ibilbideko lehenengo bi urte hauetan lortu diren emaitzak ikusita.

2004-2005 denboraldian, 219 jarduera abian jarri dira; beraz, bigarren deialdiaren bidez diruz lagundutako jarduera guztien %60 abiarazita dago. Era berean, programa batzuk hasierako aldian egon arren, oro har, programak betearazten bi urte igarotakoan ikus daitekeenez, **Izartuk onetsi zituen 278 jardueretatik 29 burututa daude, alegia, jarduera guztien %10.**

Bi Izartu programen onuradunek lortu duten inbertsio-bolumena nabarmena izan dela kontuan izanik, inbertsio horrek oso eragin mesedegarria izango du EAE osoan lurralde-, ekonomia- eta gizarte-arloan kohesioa lortzeko. Izartu programak bi deialdietan xede izan dituen kohesioaren inguruko helburu orokorreari dagokienez, honakoak izan dira lortutako emaitza eta ondorio nagusiak:

- **Lurralde-integrazioa:** Eragina nabarmena da hiri-bilbearen kohesioan eta egituratutako sare hurbilerraza ari da sortzen (auzoen, eremuen eta horien eta hiriguneen arteko lotura). Hurbilerraztasuna nabarmen hobetu da azpiegiturak hobetu eta traba arkitektonikoak kendu direlako, eta, hala, pertsonen eta ibilgailuen joan-etorria erraztu delako.

Hala, Izartu I programari dagokionez, 100.000 m² inguru duen azalera batean egindako hobekuntza-lanak nabarmendu behar dira; azalera horren erdiak baino gehiagok erabilera publikoko gune berri bat hartu du (sarbide berriak, oinezkoentzako guneak, plazak...); 68 km hobetutako bideei dagozkie eta 72.000 m lineal oinezkoentzako eta ibilgailuen trafikoko sarbide berriei dagozkie. 2004-2008 Izartu programen emaitzak ikusita, besteak beste, bideetako 14.000 m² hobetu dira, pasealeku, espaloi eta oinezkoentzako guneen 4.000 m² prestatu dira, 5.000 m²-ko azalera berriz urbanizatu da, eta hiriko altzariak eta irisgarritasuna hobetzen duten elementuak jarri dira.

- **IKTBak:** Helburu honen eragina dela eta, IKTbak erabiltzea errazten duten azpiegiturak, zerbitzu publikoak, eta lokal eta ekipamendu berriak ari dira sortzen bereziki.

Lorpenei dagokienez, nabarmendu behar dugu Izartu I programan ekipamendu berriak sartu direla IKTbak errazago eskuratu ahal izateko, 46 ikastaro eta lantegi egin direla, eta horietan 4.000 onuradun baino gehiago izan direla zuzenean;

bestalde, kontuan izan behar da udalerrietako biztanle askok azpiegitura horiek erabili dituztela. 2004-2008 Izartu programako jardueren bidez, zuntz optikoa sartu da eta udal-zerbitzuak digitalizatu dira; alabaina, denboraldi honetan e-administrazioari lotutako proiektuekin baizik ez da aurrera egin.

- **Ingurumena:** Narriatutako inguruneak lehengora ekartzearekin zerikusia duten eraginak dira herritarrek gehien balioesten dituztenak: iraunkortasunaren aldeko ekimenak, esate baterako, narriatutako eremuak leheneratzea, hiri-azpiegiturak berritzea, enpresak lekualdatzea eta industria-aurriak kentzea, natura-inguruneak (ibaiak, bidexkak...) hobetzea eta leheneratzea, eta ingurumen-aldeko kontzientziazioa sustatzea.

Izartu I programan, gune publikoen 210.196 m² lehengoratu dira (natura- zein hiri-ingurunean), hornidura- eta zerbitzu-sareen 43.098 m lineal baino gehiago berritu dira, eta parke, berdegune eta aisiarako guneen 43.700 m² prestatu dira. Izartu II programari dagokionez, 280.645 m²-ko azalera lehengoratu da; azalera horren erdia ingurune naturalaz gozatzeko birgaitu den gune publiko batena da. Horrez gain, 68 sare eta zerbitzu hobetu dira.

- **Enpresaburuak, ETEak, turismoa eta ondarea:** Emaitzak tokiko ekonomia-jardueran ikus daitezke, negozio-aukera berriak sortzen laguntzeari begira (mintegiak, eraikinak hirugarren sektoreko —kulturako eta gizarteko— jardueretarako birgaitzea) nahiz lehendik ere baziren enpresei begira (zerbitzuak, enpresaburu eta saltokietarako ikastaroak).

Izartu I programaren bidez, 40.000 m²-ko azalera prestatu da ekoizpen-jarduerak egiteko, 46 pabiloi eta lokal eraiki edo zaharberritu dira, 35 ekipamendu sortu dira hirugarren sektoreko jarduera ekonomikoa sustatzeko, 73 enpresa-proiektu berriri eman zaie laguntza, eta 133 modulu edo lantegi baino gehiago antolatu dira - horietan, 4.000 parte-hartzaile baino gehiago izan dira eta 1.110 lanpostu berri sortu dira-. Izartu II programako lehenengo emaitzak merkataritzako jarduera dinamizatzeko eta sustatzeko jardueri buruzkoak dira; horretarako, oinezkoentzako gune gehiago sortu eta hirialdea edertu nahi izan da saltoki gehien duten hiriguneetan.

- **Hiriaren itxura eta egoera:** Hiri eta herri askoren itxura, erakargarritasun sozio-ekonomikoa eta bertan bizi direnen ongizatean eta bizi-kalitatean eragina duten baldintzak nabarmen hobetzea lortu da. Hirialdeak bizitzeko abiarazi den prozedura bete-betean dago onura jaso duten udalerrietako auzo eta erdialde askotan, eta ondorioak ugaltzen ari dira jarduera ekonomikoan, izaten ari den aurrerapena pizgarria delako.

Hala, Izartu I programaren barruan, 324 etxebizitza eta eraikin birgaitu dira, 60.000 m²-ko azalera berriz urbanizatu da, zerbitzu-sareen 22.000 m lineal berritu dira, eta hirigintza-trabak kendu eta hurbilerraztasuna erraztu da 12 udalerritan. 2004-2008 Izartu programei begira, 20.000 m² azalera berriz urbanizatu da auzoetan eta erdiko alderdietan, eta bide, zerbitzu eta horniduretako 6.500 m lineal berritu dira.

- **Zerbitzuak eta ekipamenduak:** Honakoak dira zerbitzu eta ekipamendu berriak eskaintzearen bidez izandako eragin nagusiak: giza eta gizarte-mailan garatzeko aukera-berdintasuna areagotzea, batez ere kaltetuen diren taldeen artean; herritar guztien garapen komunitariorako aukerak hobetzea; eta hirugarren sektoreko ekonomia-jarduera garatzea.

Izartu I programaren bidez, gizarte- eta kultura-arloko erabilerako 29 ekipamendu eta zuzkidura berri sortu dira, horiek 31.000 erabiltzaile baino gehiago izan dituzte, eta 119 lanpostu berri sortu dira. Izartu II programaren onura jaso duten udalerriei dagokienez, 3 ekipamendu berri paratu dira, eta, hala, kultura- eta gizarte-arloko erabilerako 5.128 m²-ko azalera prestatu dira.

3. IZARTU I PROGRAMA GAUZATZEAREN INGURUKO MEMORIA

Kapitulu honetan aztertuko dugu, batetik, 2001-2005 aldirako Izartu programak nola gauzatu diren eta, bestetik, esku-hartzeko esparruetako bakoitzean eta Hirialdeak Biziberritzeko Programa Integralaren onuradun izan diren lurraldeetan zenbateko aurrerapena ekarri duten.

Horrenbestez, honako hau analisi teknikoa da, sailkapen funtzionalari -ardatzei eta neurriei- eta lurraldearen arabera -eskualdeei eta udalerriei- jarraiki egin dena, eta plangintzan aurreikusitakoa 44 programatan (2001-2004 denboraldian 6 programa burututa zeuden) nola garatu den, esku-hartzeak nola gauzatu diren eta, laburbilduz, ekimen honek zein bilakaera izan duen argituko duena. Analisi honen xede izango da programaren arduradunei aukera ematea tresna teknikoak -plangintzaren ingurukoak- etengabe dagokien errealitatera egokitze, aurreko urteetan bezalaxe.

Sailkapen funtzionala IZARTU programek esku hartzeko esparru orokorretan (5 ARDATZ) eta berariazkoetan (20 NEURRI) aurkeztu dituzten jardueren multzo homogeneoan oinarritzen da, eta laguntzen aplikazio globalaren jarraipena eta analisisa egiten laguntzea du xede. Bestalde, lurraldearen arabera sailkapenak programaren onuradun diren eskualdeei eskaintzen die arreta. Eskualde horien baitako 47 udalerri ditugu eta EAE osoan barrena kokatuta daude, hiru lurralde historikoetan: Araban *Kantauri Arabarra*, Bizkaian, *Nerbioi Garaia*, *Arratia-Nerbioi*, *Bilbao*, *Durangaldea*, *Enkarterri*, *Gernika-Bermeo*, *Eskuinaldea*, *Ezkerraldea*, *Markina-Ondarroa*, *Plentzia-Mungia* eta *Txoriherri* eta Gipuzkoan *Bidasoa Behea*, *Debabarrena*, *Donostia*, *ekialdeko ingurabidea*, *Goierri* eta *Tolosa*.

Aurreko ekitaldietan bezala, gero eta jarduera gutxiago egiten da, onura jaso duten udalerriek hasieran zuten programarekin alderatuta. Normalean, jarduerak ezabatzen dira (2005ean 12 jarduera ezabatu dira guztira), bideraezinak direlako edo inbertsio aldetik beharrian gehiago duten beste jardueren ondoan lehentasun gutxiago dutelako. Era berean, batzuetan, gertaera hori nolabait arintzen da jarduera berriak sartzen direnean (2005eko ekitaldian 3 jarduera berri sartu dira), baina diruz lagundutako jardueren kopuruak oro har behera egin du.

Hala, lehenbiziko urtean 368 jarduera egin ziren; **2005eko** ekitaldian, **berriz, birprogramazioen ondorioz, guztira 329 jarduera finantzatu zituen Izartu programak.** Kopurua txikiagoa izateak ez du desberdintasun esanguratsurik eragin jarduerak ardatz eta neurrien arabera banatzeko garaian. Horietako gehienak **2. ARDATZEKOAK** (Tokiko oinarritzko azpiegiturak) ditugu oraindik ere, *2.5 Antolatze eta birgaitze azpiegiturak* deritzan neurriaren baitakoak.


1. taula: 2001-2005 aldirako IZARTU programetan aurkeztutako jardueren analisia, esku hartzeko esparruen arabera. 2005. urtea.

ARDATZAK ETA NEURRIAK	JARDUERAK 2005. URTEA	
	Zk.	%
1. ARDATZA. EKOIZPEN-INGURUNEA ETA ENPLEGUA	27	%8
1.1. Jarduerari laguntzeko egiturak sortzea eta garatzea	9	%2,7
1.2. Ekoizteko azpiegitura sortzea eta garatzea	3	%0,9
1.3. Enpresaburuei, ETEei eta artisau-enpresei laguntzea	5	%1,5
1.4. Tokian tokikoa, turismoa eta ondarea sustatzea	10	%3,0
2. ARDATZA. TOKIKO OINARRIZKO AZPIEGITURAK	240	%73
2.1. Garraio-azpiegiturak	19	%5,8
2.2. Telekomunikazio eta informazio-gizarterako azpiegitura	5	%1,5
2.3. Energiarako azpiegitura	1	%0,3
2.4. Ingurumen-arloko azpiegitura	23	%7
2.5. Antolatze eta birgaitze azpiegiturak	142	%43,2
2.6. Gizarte- eta osasun-arloko azpiegitura	11	%3,3
2.7. Aisialdiko eta kulturako azpiegitura	37	%11,2
2.8. Hezkuntzako eta prestakuntzako azpiegitura	2	%0,6
3. ARDATZA. GIZA BALIABIDEAK ETA GIZARTE- INTEGRAZIOA	30	%9
3.1. Lan-merkatuko politikak	8	%2,4
3.2. Gizarte-integrazioa	9	%2,7
3.3. Aukera-berdintasuna	6	%1,8
3.4. Hezkuntza eta prestakuntza	7	%2,1
4. ARDATZA. TOKIKO OINARRIZKO AZPIEGITURAK SORTZEA ETA GARATZEA	7	%2
4.1. Tokiko oinarritzko zerbitzuak	6	%1,8
4.2. Hiritarren segurtasuna	-	-
4.3. Gizalegezko prestakuntza eta hezkuntza	1	%0,3
5 ARDATZA. HAINBAT GAI	25	%7,6
5.1. Laguntza teknikoak	25	%7,6

3.1. 2005. URTEAN GAUZATUTAKO ESKU-HARTZEA ETA DESBIDERATZEAK**3.1.1. 2005.URTEAN GAUZATUTAKO ESKU-HARTZEAREN FINANTZA-ALDERDIAK**

2001-2005 aldiko 44 Izartu programek 2005ean egindako gastua 42.515.904 eurokoa izan da. Inbertsioa 2001eko, 2002ko eta 2004koa baino handiagoa izan da, urte horietan 14.059.338 euroko, 34.506.893 euroko eta 32.547.185 euroko inbertsioa egin baitzen hurrenez hurren; orobat, 2003. urtekoaren parekoa izan da, 2003an 46.280.192 eurokoa izan baitzen inbertsioa. Bestetik, Izarturen 6 programa aurreko urteetan burututa zeudela aintzat hartzen badugu, betearazpen hori are handiagoa da. **Udalek urte horietan inbertsio-aldetik egin duten ahalegina dela-eta metatutako gastua 169.909.511 eurokoa da, guztizko inbertsioaren %78, alegia.**

Ildo horretan, **onuradunek egindako gastuaren programazioak oso-osorik bete du jardueretan egin den inbertsio errealararen abiada; izan ere, 2005. urterako programatuta zegoen gastuaren %100 betearazi da ia.**

1. Grafikoa: 2005ean egindako gastua urte horretarako programazioaren arabera

Beste alde batetik, inbertsioen erritmoa ez da berdina izan esku-hartze edo udalerri guztietan, zenbaitetan 2007. urtera arteko luzapena eskatu baitute; alabaina, egoera hori nolabait arindu da aurreko urtearen burutu diren jardueren eta programa askok aurrerapen nabarmena izan dutelako eta horietan egin den inbertsio errealak hasierako itxaropen guztiak gainditu dituelako.


Hala, bada, esku hartutako hainbat eremutan zeuden aurreikuspenetara egokitzeko mailari dagokionez, 2005. urtean programazioa betetzeko zailtasun gehien izan duten jarduerak honako neurri hauek bildutakoak dira: 3.2 Gizarte-integrazioa, 4.1 Tokiko oinarritzko zerbitzuak, 1.3 Enpresaburuei, ETEei eta artisau-enpresei laguntzea eta 2.4 Ingurumen-arloko azpiegitura. Era berean, honako neurri hauek betearazpen-mailaren azpitik daude baina programazioaren bi heren inguru beterik dituzte: 1.1 Jarduerari laguntzeko egiturak sortzea eta garatzea, 2.2 Telekomunikazio eta informazio-gizarterako azpiegitura eta 3.1 Lan-merkatuko politikak.

Bestetik, beste neurri batzuk nahiko ondo egokituta daude urteko plangintzari, sarritan 2005eko ekitaldirako programatuta zegoen inbertsioa gainditu baitute. Horixe gertatu da neurri hauek jasotako jarduerekin: 4.3 Gizalegezko prestakuntza eta hezkuntza, 3.3 Aukera-berdintasuna, 2.7 Aisialdirako eta kulturarako azpiegitura, 2.5 Garraio-azpiegitura eta 2.6 Gizarte- eta osasun-arloko azpiegitura. Egindako gastuan dagoen soberakin hori dagokion neurrian zenbatetsi behar da; izan ere, litekeena da aurreko urteetan metatutako atzerapenaren ondorioa izatea edota tokiko korporazioak inbertsio-aldetik ahalegin are handiagoa ere bere gain hartu izanaren ondorio izatea, Izartu ekimeneko jarduerarako aurreikusi den inbertsioari ezin egotz dakiokena.

Urteko aurrekontua gainditu dutenak alde batera utzita, gainerako neurriek plangintzarekin duten bat-etortzea handia da, kasu guztietan %90 gainditzen baitute; hala, beraz, jarduera gehienak eta inbertsioaren bolumen gehiena biltzen dutenez, 2005. urteko betearazpen-maila oso altua da.

Ondoko taulan eta grafikoan, aurreikuspenak nola garatu diren islatu da benetako betearazpenaren arabera.

2. Grafikoa: Esku hartzeko esparruak. 2005ean egindako inbertsioaren egokitze-maila urte horretarako gastuaren aurreikuspenaren arabera.




Lurralde-ikuspegitik, programen aurrerapena oso desberdina izan da lurraldeen eta eskualdeen artean. Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetan, eskualde onuradunen batez bestekoak ekitaldiko gastu-aurreikuspenak gainditzen ditu, programatutako gastuaren %209 eta %157 betearazi baita hurrenez hurren. Araban *Kantauri Arabarra* izeneko eskualdea baizik ez da barne hartu, eta hor aurreikuspenei dagokienez izan den egokitzapen-maila oso altua izan da, 2005. urterako programatutako gastuaren %89ra iritsi baita.

Hala, 2005. urtean programak hasita zituzten eskualdeen erdiak baino gehiagok aurreikuspenak gainditu ditu (honako hauek: *Donostia-San Sebastián, ekialdeko*

ingurabidea, Tolosa, Enkarterri, Arratia-Nerbioi, Durangaldea, Gernika-Bermeo eta Markina-Ondarroa), bost eskualdek neurri handi batean bete dute programatutakoa (hauexek: *Kantauri Arabarra, Bidasoa Beherea, Debabarrena eta Goierri*) eta hiru eskualdetan, azkenik, egokitzapen-maila txikiagoa izan da (*Nerbioi Garaia, Ezkerraldea eta Txorierri*).

Alabaina, eskualde horien barnean, jokaera desberdina izan da udalerri batetik bestera. Hala, programen %46k 2005eko ekitaldiko aurrekontuetan zeuden aurreikuspenak gainditu ditu. Aitzitik, programen %26 2005eko ekitaldirako zegoen aurrekontu-plangintzatik desbideratu da, programatutakoaren %60 baino gutxiago bete baitu; hona udalerriak: Alonsotegi (%3), Ortuella (%57), Portugalete Azeta (%51), Portugalete San Roke (%34), Santurtzi (%18), Sestao (%25), Erandio (%28), Urretxu (%0), Arrigorriaga (%7), Galdakao (%25). Gainerakoek, berriz, hein handi batean bete dute programatutakoa.

3. Grafikoa: Eskualdeak. 2005ean egindako inbertsioen egokitze-maila urte horretarako gastu-aurreikuspenaren arabera



3.1.2. PROGRAMAZIOAREN ARABERAKO DESBIDERATZEAK

2001. urtean emandako hasierako ebazpenaren bidez, diru-laguntza eman zitzaien 51 programari; horri dagokionez, izan den aldaketarik handiena Zumarragako Izartu programa ezabatu dela izan da. 2005eko irailaren 30ean, Zumarragako udalak uko egite formala bidali zion Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzari, ezin baitzuen aurkeztutako programa bete. 2005eko azaroaren 7an, Ekonomia, Aurrekontu eta Kontrol Ekonomikoko sailburuordeak ebazpena eman zuen, eta, horren bidez, aditzera eman zuen Zumarragako udalak galdua zuela ordaintzeko zegoen diru-laguntza jasotzeko eskubidea, hirialdea biziberritzeko jardura integralak egiteko eman zitzaiena, eta, era berean, hasieran ordaindu zitzaien laguntzaren zenbatekoa atzera itzuli behar zuela.


Bestetik, aurrekoa irakurrita ikus daitekeenez, 2005. urtean programazioaren arabera desbideratze gutxiago egon da aurreko urteetan baino laguntzaren onura jaso duten udalerrietan. Kapitulua honen hasieran aurreratu bezala, plangintzara egokitze maila handiago horren arrazoia tokiko arduradunek programazioan egin dituzten eta euskal gobernuak onartu dituen aldaketak izan dira, aldaketa horiek hasierako zenbatespenak aldatu eta programen ibilbidearen arabera moldatu baitituzte.

Bestalde, Izartu I programari buruz zenbatetsi zen hasierako denboraldiaren arabera, 2005. urtea itxierako ekitaldia zen programaren onuradunentzat; hori gorabehera, onuradunek, ondo egiaztatutako arrazoiak emanez gero, bi urteko luzapena eska zezaketen jarduerak burutzeko. Ildo horretan, 2005. urtean luzapen-eskabide gehiago egon da aurreko urteetan baino -guztira, 22 izan dira- (eta denboraldi berrirako inbertsioa egokitu da jardueren benetako ibilbidearen arabera); era berean, jardueren arteko aldaketak egiteko eskabide gehiago egon da -guztira, 10-, eta jardueren artean aurrekontuko aldaketak egiteko edota jarduerak ezabatu edo berriak sartzeko (kudeatze-lanak erraztu delako, bideraezinak izateagatik ezabatu direlako edo beste jardura batzuek lehentasuna dutela erabaki delako).

Aldaketa horien ondorioz eta, era berean, bost urtetan esku hartu ondoren programak bide onetik doazela ikusita, 304 jardueretatik (laguntza teknikoari dagozkion 25 jarduerak alde batera utzita) bi heren baino gehiago hasi dira aurreikusitakoari jarraiki. Zehazki, desbideratzeak 98 jardueratan izan dira: horietako 35etan gastuan

soberakina izan da programazioaren arabera, eta, 63tan, berriz, egin den gastua txikiagoa izan da, -horien artean barne hartu dira batere gasturik izan ez duten 13 jarduerak-.

4. Grafikoa: Jarduerak. Programazioaren araberako desbideratzeak. 2005. urtea.



Zenbaitetan, programatutakoa baino gastu txikiagoa egin da aurreko ekitaldietan atzerapena metatuz joan delako (Errenterian, Berrizen eta Bermeon); eta, beste kasu batzuetan, Izarturen bidez diruz laguntzeko moduko inbertsioa gaitzen duen inbertsioa egin behar izan da obraren benetako kostua ordaindu ahal izateko (Pasaian, Tolosan, Bermeon, Muskizen, Ondarroan eta Gordexolan).

Gastu txikiagoa izan dela-eta izandako desbideratzeei dagokienez, nabarmendu behar dira atzerago geratu diren udalerrriak eta, programak abian jarri zirenetik bost urte igaro arren, oraindik batere gasturik izan ez duten jarduerak dituzten udalerrriak. Atzerapenak, aurreko ekitaldietan bezalaxe, tartean dauden administrazioek baimenak ez ematearen ondorioa izan dira, eta atzerapen burokratikoak eta espedienteak izapidetzeko atzerapenak ere izan dira.

- *Valle de Trápaga-Trapagaran udalerrrian, atzerapena izan da Hiri Ordenazioko Udal Plan Orokorra onesteko, eta, horrez gain, baimen batzuk lortu behar direnez desjabetzeko prozesua atzeratzen ari da, bai eta programako bi jarduera nagusiak abian jartzeko prozedura ere. Hala, bada, luzapena eskatu da, eta, ikusten denez, bete gabe dagoen inbertsioaren zenbatekoa datozen bi urteetara aldatuko da, atzerago geratu diren jardueren irismena berrikusiko da.*

- **Galdakaoko** udalerrian Ibaizabal ibaia birgaitzeko eta tratatzeko jarduerako obrak atzeratu dira, arazoak egon direlako obra horiek egiteko hartu behar ziren lursailak eskuratzeko; beraz, udalak erabaki du jardueraren zati batzuk ezabatzea, hain zuzen zailtasun gehien zuten tartekoak, eta aurrekontu hori Usansolon hirialdea biziberritzea izeneko jarduerara aldatzea. Horrez gain, Izartu programako beste jarduera batzuetan arazo burokratiko bat egon da, eta, horren ondorioz, ezin izan dira 2005eko ekitaldian fakturatu, nahiz eta jarduerak aurtengoa izan. Hori dela-eta, desbideratzea ez da benetakoa, obra eginda dagoelako.
- **Laudioko** udalerrian antzeko zerbait gertatu da: atzerapena ez da benetakoa; 2005eko ekitaldirako zenbatetsi diren zenbatekoen justifikazioa ez da oraindik behin betiko onetsi, adjudikazioa jaso duen enpresak bidalitako azken obra-ziurtagiria dela-eta.
- **Pasaia**ko programa atzeratuta dago aurreko ekitaldietatik, eta oztopo hauek ditu tartean: udalaren adostasuna lortu behar du (jarduera batzuk definitzean eta udal-aurrekontuetan), ez du lursailik eskura (eta lan hori Portuko Agintaritzari dagokio) eta Navalaldea garatzen ari da. Oztopo horiek gainditutakoan, 2005. urtean izan diren atzerapenak programa betearazteko lizitazioa atzeratzearen ondorio izan dira.
- **Erandion** desbideratzeak izan dira epeetan, aurrez azterlan bat egin behar izan delako lurzorua ezaugarriak jakite aldera, lurzoru horretan kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak egin direlako. Azterlan hori egiteko, bestalde, jabetza pribatu batera sartu behar zen, eta, horretarako, hainbat kudeaketa egin behar ziren, oraindik burutu gabe daudenak: desjabetzeari buruzko negoziazioa, partikularren baimena, etab.
- **Zaldibarren**, lursailak eskuratzeko behar ziren baimenak lortu eta egin beharreko kudeaketak egin ondoren -horiek baitziren aurreko urteetan izandako atzerapenaren arrazoi nagusi-, 2005eko ekitaldian obrak egiteari ekin zaio. Aurreikuspenen arabera, obra horiek datozen bi urteetan burutuko dira; hala, luzapena eman da eta horren bidez obrak betearazteko epea 2007ko abenduaren 31ra arte luzatzea baimendu da.

- **Eibarko** Izartu programaren inguruan gertaera mordo bat izan da hasiera-hasieratik, eta, hortaz, berriz programatu behar izan da era Matsariako SAPUIko urbanizazioko obretarako luzapena eman behar izan da, obra horiek 2002. urtean hasi behar baitziren. Aurreikuspenen arabera, desjabetzeko espedientea 2005eko ekitaldian burutu behar zen, baina oraindik ezin izan da likidazioa egin. Aurreikusita zegoen urbanizazioa berriz programatzeari dagokionez, lan horren %75 egin da eta obrak bide onetik doaz. Aurreikuspenen arabera, datorren ekitaldian esku-hartzeen garapena normala izango da, eta 2006. urtean gastatu ez den aurrekontuaren %25 horra aldatuko da.
- **Barakaldo-Gurutzetako** programan, hainbat jarduera aldatu dira; horietako batzuk Bizkaiko Foru Aldundiak hala eskaturik egin dira, foru-errepide bat tartean zegoelako. Atzerapen hori gorabehera, behar ziren baimenak eskuratu dira (uztailaren 26ko 4153 Foru Agindua, Herri Lan eta Garraio Sailarena), eta hori onuragarria izango da programa betetzeari begira, nahiz eta betearazpena 2006ko ekitaldian luzatu behar. Gainerako jarduerak ere abian jarri dira, baina gastua urteko aurrekontuan jasotakoa baino txikiagoa da, eta, aurreikuspenen arabera, ez da atzerapen larririk egongo.
- **Sestaoko** udalerrian izan diren desbideratzeak programaren hastapenetatik izan diren arazoen ondorio dira: izan ere, atzerapenak izan dira Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak Plan Zuzentzailea onesteko garaian, eta gaur egun ere udalaren eta Sestao Berri-ren arteko eskumenak antolatzeke prozesuan ere atzerapenak daude. Bestalde, zaharberritzeko jarduerak bide onetik joan daitezen, bertan bizi direnek borondate ona izan behar dute hobekuntza-lanei ekiteko, eta hor gizarte- eta ekonomia arazoak bateratzen dira; horien ondorioz, nahiz eta diru-laguntzaren ehunekoa altua izan, sarritan, bertako biztanleak ez dira erraz adoretzen hobekuntzei ekitera.
- **Portugalete San Rokeko** programan zenbait oztopo izan da agiri teknikoak idaztea oso zaila suertatu da, obrek Metroko 2. linean eragina izango dutelako. Interferentzia horiek teknikoki konpondu ziren 2004. urtean (Eusko Jaurlaritzaren garraioko azpiegiturei buruzko Ebazpenaren bidez), eta, hartara, obrak betearazteko proiektua onetsi eta abian jarri ahal izan zen. 2005. urtean, berriz, atzerapena izan da proiektuan jasotako obrei ekiteko, eta, horren ondorioz,

betearazitako obren bolumena txikiagoa izan da eta 2006. urtera aldatu beharko da ezinbestez.


- **Gernika-Lumoko** Izartu programan zailtasunak izan dira hasieratik IDIGA industria-pabiloi zaharra birgaitzeko eta moldatzeko proiektuak atxikipen asko zituelako, garapen iraunkorrerako zentro gisa barrutik edukiz hornitu behar zelako eta, orobat, erakunde eskudunak obrari ekiteko behar ziren baimenak eman behar zituztelako, zehazki, honako hauek: Bizkaiko Foru Aldundiaren Herri Lan Saileko Errepideen Zuzendaritza Nagusia, Eusko Trenbideak, Eusko Jaurlaritzaren Uren Zuzendaritza... Bateriaezintasun gehiago azaldu dira eta onespen gehiago lortzeko beharra ere bai, eta, horrenbestez, tokiko arduradunek programa 2007. urtera arte luzatzeko eskabidea egin dute; hurrengo ekitaldietan oztopo horiek guztiak gaindituko direla uste da.
- Azkenik, **Alonsotegiko** Izartu programari dagokionez, atzerago geratu diren jardueretako batzuei ekin ahal izateko, lehenik, ibaiaren bi ertzak lotuko dituen zubi berria egiteko proiektua jarri behar da abian; zubi horren kostua, bestalde, diruz laguntzeko moduko inbertsioa era nabarmenean gainditzen du. Obra hori egin ahal izateko, lankidetzaz hitzarmena egin da Bizkaiko Foru Aldundiarekin, harekin batera finantzatzeko baitira obra horiek. Hortaz, izan diren atzerapenak ikusita, jarduera 2007. urtera atzeratzeko eskatu da.

3.2. PROGRAMAREN AURRERAPENA BALIOESTEA IKUSPEGI FUNTZIONALETIK ETA LURRALDEAREN IKUSPEGITIK

3.2.1. PROGRAMAREN AURRERAPENA INBERTSIOARI DAGOKIONEZ


2001-2005 denboraldian, Izartu I programaren onura jaso duten udalerriek ekimen osorako aurreikusita zegoen inbertsioaren %80 inguru betearazi dute. 2005eko ekitaldian egin den ahalegin ekonomikoak (hori aurreko urteetan egindako ahaleginari gehitu behar zaio) 169.909.511 euroko inbertsio metatua egiteko aukera eman du; **guztizko aurrekontua 218.322.885 eurokoa dela aintzat hartuta, %78, alegia.**

5. Grafikoa: 2001-2005 epean egindako gastua, inbertsio guztiarekiko.



Ibilbide historikoari begira, nabarmena da, aurreko ekitaldian bezala (2004. urtea) programak betearazteko abiada arinduz doazela programek aurrera egiten duten heinean, eta, era berean, atzerapenak izateko arrazoi gehienak gainditu direla. Izartu programaren lehen deialdiaren (2001-2005) une hauetan ia bazterturik geratu dira bideraezinak ziren jarduera gehienak (aurreko idatz-zatian zehaztutako aldaketa-eskabideak eta birprogramazioak). Hala, beraz, ahalegin guztia gainerako jardueretara eta jarduera berri batzuetara bideratu da, lehen ikusi dugunez, oraindik ez baitira konpondu xedatutako esku-hartzeak geldiarazita dituzten oztopoak.


6. Grafikoa: 2001-2005 denboraldian egindako inbertsioaren ibilbidearen erkaketa.



Denboraldi honetan izan den aurrerapena ez da berdina izan esku hartutako eremu guztietan. **3. eta 4. ARDATZETAN aurrerapen nabaria izan da ekitaldi honetan, bietan betearazpena bi herenetik gora baitago; hala ere, haixek dira oraindik atzeratuenak Izartu programak oro har duen aurrerapen-erritmoarekin alderatuta.** Bestetik, jokabide hori ez da agertzen haiek barne hartzen dituzten neurri guztietan; izan ere, atzerapena bi neurritan azaltzen da gehienbat; hona hemen zein diren: *4.1. Tokiko oinarritzko zerbitzuak eta 3.2. Gizarte-integrazioa.* Hala, gainerako jardueri dagokienez, *4.3. Gizalegezko prestakuntza eta hezkuntza* izeneko neurrian bilduta dauden jarduerak burututa daude, eta, era berean, *3.1. Lan-merkatuko politikak eta 3.4. Hezkuntza eta prestakuntza* izeneko neurrietan bildutakoak ere burutzeaz daude.

2. ARDATZA Izartu programa osoan pisu berezi gehien duena da; horri dagokionez, aurreko ekitaldian neurri hauek burutu ziren: *2.8. Hezkuntzako eta prestakuntzako azpiegitura eta 2.3. Energiarako azpiegitura.* Ekitaldi honetan, bestalde, neurri hauek burutzeaz daude: *2.1. Garraio-azpiegiturak, 2.2. Telekomunikazio eta informazio-gizarterako azpiegitura eta 2.7. Aisialdirako eta kulturako azpiegitura.* Egoera berean daude 1. ARDATZEKO neurri hauek: *1.1. Jarduerari laguntzeko egiturak sortzea eta garatzea, 1.2. Ekoizteko azpiegitura sortzea eta garatzea, 1.3. Enpresaburuei, ETEei eta artisau-enpresei laguntzea eta 1.4. Tokian tokikoa, turismoa eta ondarea suspertzea;* neurri horietan betearazpenaren %80 gainditu da eta, haietako bietan %95era iritsi da.

7. Grafikoa: Esku-hartzearen eremuak. 2001-2005 epean egindako gastua inbertsio osoarekiko



Lurralde-ikuspegitik, Gipuzkoa eta Bizkaia dira aurreratuen doazen probintziak. 2001-2005 aldian guztira egindako gastua guztizko inbertsioaren %84,5koa eta %75,3koa izan da. Araban, berriz, inbertsio osoaren %69 egin da.

Eskualdeen arabera, 2004. urtean, *Bilbao*, *Eskuinaldea* eta *Plentzia-Mungia* burutu ziren, eta 2005ean, berriz, *Tolosa*, *Arratia-Nerbioi*, *Enkarterri* eta *Markina-Ondarroa*. Beste batzuei gutxi falta zaie programak burutzeko; hona hemen zein diren: *Bidasoa Beherea*, *Debabarrena*, *Donostia-San Sebastián*, *Goierrri* eta *Durangaldea*. Ildo horretan, ondoko


eskualdeek aurrerapen nabarmena izan dute aurreko ekitaldiekin alderatuta: *Arratia-Nerbioi, Markina-Ondarroa eta Donostia-San Sebastián*.

Atzeratuen daudenak, berriz, hauek dira: *Txoriherri* (%50), *Ezkerraldea* (%56), eta *Kantauri Arabarra* (%69).

Udalerriei dagokienez, atzeratuen daudenak lehenago ikusi ditugunez, orain aurreratuen daudenak hartuko ditugu hizpidea. Hala, Etxebarriko programa 2002ko ekitaldian burutu zen, Bilbao Otxarkoaga eta Ermuko programak 2003. urtean eta Bilbo Zaharreko, Güeñesko eta Mungiako programak 2004ean; baina, horietaz gain, **ekitaldi honetan 13 programa hauek burutu dira: Balmaseda, Bermeo, Berriz, Gordexola, Karrantza, Leioa, Mendaro, Muskiz, Mutriku, Tolosa, Ondarroa, Urduña-Orduña eta Zegama.**

Programak bukatu dituzten udalerri horiekin batera, honako hauek programa osorik burutzeaz daude (guztizko inbertsioaren %80 baino gehiago eginda baitute): Amurrio, Deba, Donostia-Altza, Errenteria, Irun, Legazpi, Loiu, Ordizia, Portugalete Azeta, Soraluze-Placencia de las Armas eta Urretxu.

8. Grafikoa: Eskualdeak. 2001-2005 epean egindako gastua inbertsio osoarekiko



3.2.2. TOKIKO INBERTSIO-AHALEGINA ETA JASOTAKO DIRU-LAGUNTZAK

2001-2005 aldian egindako guztizko gastuari dagokionez, %30 udalaren inbertsio-ahaleginaren ondorioa da, 51 milioi euro inguru, hain zuzen. Onuradunen artean ahalegin hori desberdina izan da batera finantzatzeko tasaren arabera, Dekretuak oro har ezarri duenez diruz laguntzeko moduko inbertsioaren %50 laguntza egongo baita, betiere, alde batera utzita gizarte-egoera ahulekotzat jo den eskualderen batean dauden udalerriak edo eremuak, horietan laguntza %75ekoa izango baita.

Eusko Jaurlaritzak jarritako diru-laguntzaren ehunekoa handia bada ere, tokiko ahalegin ekonomikoak aipatu diren zenbatekoak gaitzen duela, programak ez baitu onartzen inbertsioaren BEZa tokiko erakundeek beren gain hartu behar dutenik. Hortaz, bada, - aurrekontuak baliatuz betearazi diren 51 milioi euro horiei zerga horri dagozkionak gehitu behar zaizkiola, udalak bere gain hartu baitu hori osorik. Era berean, programa abian jarri zenetik adierazi denez, udal batzuek hasieratik beren gain hartu behar duten kostua handiagoa da Izartu programarekin hartu duten inbertsioa baino, eta egoera hori orokortzen ari da, burututa dauden jardueren emaitza ekonomikoak ikusita. Horren guztiaren eraginez, **aldi honetako eta gelditzen den zatiko inbertsioaren bolumena jarraipenerako txostenetan eskainitako datu ekonomikoena baino handiagoa izango da**. Horrek agerian uzten du, berriz ere, udalbatzek hirialdeak biziberritzeko prozesuen inguruan hartutako konpromisoa.

Bestalde, programa bateragarri da beste diru-laguntza eta laguntza batzuekin, gainerako administrazio eta erakunde publikoetatik etor daitezkeenekin, baita Jaurlaritzatik bertatik etor daitezkeenekin ere, eta hori kasu batzuetan oso lagungarri izaten da udalak finantzatu behar duen zatiari aurre egiteko.

Programak gauzatzen emandako bost urte hauetan guztira 15.867.023 euro jaso dira Izartu programaren baitan barne hartutako jardueren laguntzeko bestelako laguntza edo diru-laguntzen bidez. Programa onuradunek 2001-2005 aldian egin duten inbertsioa 170 milioi euro ingurukoa izan dela aintzat hartuta eta kopuru horren %30 udalei dagokiela kontuan izanik, udalen inbertsio-ahaleginaren %31 baizik ez da bete finantzatzeko beste iturri batzuen bitartez.

Bestalde, 2005. urtean aurreko ekitaldietan baino diru-laguntza gehiago jaso da, hain zuzen, 6.087.728 € eskuratu dira guztira. Urte horretan egindako gastua 42,5 milioi eurokoa denez, datu hori ikusita, urte horretako udal-ekarpenaren (12,8 milioi) erdia inguru finantzatu dutela beste instituzioek edo programak, bestelako diru-laguntza gisa.

2005. urtean, 19 programek laguntza horietako bat jaso dute; alabaina, ekimenak finantzatu dituen 304 jardueretatik 24 jarduera baizik ez dira izan. Hala, jarduera horien guztizko kostuari dagokionez, diru-laguntza horiei dagokien inbertsioaren ehunekoaren batez bestekoa %22 da.


Bestetik, "aparteko" laguntza horiek ez daude metaturik esku hartzeko eremu jakin batzuetan; aitzitik, han-hemenka banatuta daude, neurri guztien artean. Alabaina, jardueren tipologiaari begiraturik ikus dezakegunez 2005eko ekitaldian diru-laguntza gehien jaso dutenak honako hauek dira: *2.1 Garraio-azpiegiturak, 2.5 Antolatze eta birgaitze azpiegiturak*, eta, azkenik, *3.1 Lan-merkatuko politikak*.

Lurraldeen eta eskualdeen artean ere ez da desberdintasun esanguratsurik ikusten jasotako zenbatekoaren, laguntzak jasotzearen eta diruz laguntzen duten erakundeen arabera. Foru-aldundietatik eta Eusko Jaurlaritzatik (Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saisetik, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saisetik, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saisetik, eta Industria, Merkataritza eta Turismo Saisetik, bereziki), datoz 2005. urteko bitarteko gehienak. Dena dela, azpimarratzekoak dira, halaber, INEM eta EGEF funtsak.

3.2.3. AURRERAPENA BALIOESTEA IKUSPEGI INTEGRALETIK UDALEN ARABERA

Programak aurrera nola egin duen ikusita eta bere osotasunean hartuta, **tokiko arduradunen ustez aurreko urteetan baino hobea izan da jardueren bidea**. Onuradunen %86ren aburuz (38 programari buruz ari gara) oso positiboak izan dira ekimenean izandako parte-hartzea, jarduerak gauzatzeko erritmoa eta ezarritako helburuak betetzeko bidean izandako emaitzak.

9. Grafikoa: Izartu Egitasmoaren ibilerarekiko gogobetetzearen balorazioa



Ildo horretan, arduradun batzuek nabarmendu dutenez, 2001-2005 aldian eragozpenak izan badira ere eta oraindik ere jarduera batzuen garapena oztopaturik egon arren, horrelako atzerapenak ohikoak izaten dira *"hasitako obren zailtasuna eta konplexutasuna aintzat hartuta"*. Tokiko arduradunek azpimarratu dute gatazka nagusiak konpondu direla eta zenbait udalerririk azpimarratu dute *"...hasiera batean sortutako zailtasunak dagoeneko gainditu direla..."* eta proiektuetako asko abian jartzea eragozten zuten trabak pixkanaka gainditu direla. *"Epeetan edo zereginen batean desbideratzeak izatea ohikoa da tankera honetako obretan; izan ere, maiz, batera aritu eta koordinatu behar baitute administrazio askok edota arloan ezarrita dauden hainbat proiektu, betearazteko denbora berezia dutenek (ekintzen sekuentzia logikoek, etab.); beste kasu batzuetan, berriz desbideratzeen arrazoia izaten da azterlan berriak egin behar direla edo tamaina handiagoko lanen bati ekin behar zaio, hainbesteko aurrerapenez aurrez ikusi ezin ziren oztopoak aurkitu direlako obretan"*.

Eskatutako aldaketei eta luzapenei dagokienez aditzera eman dutenez, *"ahalegina egin da lehenetasun gehien duten eta, aldi berean, bideragarriagoak diren jarduerari ekiteko,*

hartara inpaktu handiagoa lortzeko udala biziberritzeko prozesuar". "Desberdintasun nabarmen dago programazioaren eta benetan betearazi denaren artean, baina, itxura guztien arabera, 2007. urtean programa burutzen denean, jarduerak ondo buruturik egongo dira, orain arte izan den atzerapena eragin duten zailtasun gehienak gaindituta egongo direlako".

Udalerrri gehienetan, Izartu "udalak kudeatu duen tamaina handieneko proiektua da, eta bere ibilbidean inbertsio-bolumenik handiena duena era bai". Hargatik, hori aintzat harturik, udal-taldeek asebetetze-maila handia da: "Programak ahalegin ekonomiko handia ekarri die baliabide gutxi duten udalei, eta, Eusko Jaurlaritzak zati bat finantzatu ezik, pentsaezinak izango ziratekeen tankera onetako jarduerak (baina ez ezinezkoak)". Era berean, programaren beste lorpen batzuen artean tokiko agintariek nabarmendu dute "Izartuk finantza-laguntza garrantzitsua izan dela, eta hala eduki nola tamaina aldetik inpaktu handikoak diren proiektuak hirian antolatzeke eta gauzatzeke pizgarria izan deld".

Bestetik, tokiko arduradunek oso balioespen ona egin dute, m batez ere Izartu guztiz lagungarria izan delako hiri-, gizarte- eta ekonomia-garapenerako udalerrri onuradun askotan. Hala, azpimarratu dutenez, "era askotako gaiak lantzen ari dira eta horiek oro har lagungarriak dira herria garatzeko" eta "guztiz lagungarria da udalerrria erakargarriago egiteko, hala jarduera ekonomiko berriei begira nola giza baliabide kualifikatuak erakarriz udalaren garapena integrala lortzeko". "Izartu programaren garapenaz balioespen ona egin behar dugu, lehenik eta behin, aukera ematen duelako borondatea mugitzeko, alderdian zuzeneko enpleguak sortzeko, abandonatutako alderdi bat biziberritzeko (...)".

Era berean, nabarmena da herritarren asebetetze-maila altua dela, jarduera asko gauzatu direla ikusita: "...izan ere, aukera ematen du eremu askotan hainbat jarduera egiteko, eta horiek onuragarriak dira herritar guztientzat...", "...herritarrek ikusi dute proiektuak gauzatu direla eta ongizateak oro har gora egin duela...", "herritarren asebetetze-maila oso altua izan da eta oso lagungarri suertatu da hirialdea hobetzeko", "IZARTU programa udalerrria birgaitzeko eta eraberritzeko eragilea izan da".

Balantzea oso positiboa izatea jarduerak garatzearen ondorioz lortutako emaitzei zor zaie.

- **Lehenik eta behin**, lehen ere adierazi dugunez, **19 programa amaitu dira 2005eko abenduaren 31rako**: batetik, Etxebarriko programa, Bilbao Otxarkoaga eta Bilbo Zaharra, Mungia eta Güeñes, aurreko ekitaldietan amaitu zirenak, eta, bestetik, Mendaro, Berriz, Balmaseda, Tolosa, Ondarroa, Mutriku, Leioa, Gordexola, Zegama, Karrantza, Bermeo, Muskiz eta Urduña-Orduñako programak, 2005ean burutu direnak.

Burututako azkeneko programa horien arduradunek bertako parte-hartzeari buruz esandakoaren arabera, ekimenak erabateko arrakasta izan du. Mutrikuri dagokionez, aspalditik egin nahi ziren proiektu handi batzuei ekin ahal izan zaie, orain arte aurrera egiten ez baitzuten udalak baliabiderik ez zutelako eta kanpoko finantziatorik edo laguntzarik ez zegoelako. Ildo berean, Zegamako udalak nabarmendu du Izartu programak udalerrria benetan birgaitzeko aukera eman duela, lehen ez baitzuen gizarte- eta ekonomia-azpiegiturarik edo -ekipamendurik; horrez gain, kohesio gehiago lortu da lurraldeko gainerako alderdiekin. Bestalde, Izartu II programaren bidez, hori guztia osatzea espero da. Tolosak programaren garapenari buruzko balioespen ona egin du, era nabarmenean hobetu baitira alde zaharraren itxura eta irudia, ekipamendu komunitario berriak jarri baitira, eta, horrenbestez, oso narriatuta zegoen alderdi hori biziberritzea lortu baita. Balmasedan ere oro har balioespen ona egin dute, zerbitzuen sareak hobetu direlako eta ingurunearen estetika ere bai; alderdi horretan, gainera, balio historiko handiko eraikinak daude.

Karrantzan balioespena ona baino ezin da izan, jarduera publikoa egin ondoren udalerrria nabarmentzeko moduan aldatu baita. Biztanleek ikusi dute proiektuak gauzatu direla, ongizate orokorra hobetu dela eta aukera ekonomikoak ugartu direla, batez ere, nekazaritzako elikagaien industriak eta turismoa ardatz nagusitzat harturik. Beste horrenbeste gertatu da Berrizen; hor, zalantzarik gabe, programa oso bultzada garrantzitsua izan da hirigunea hobetze aldera, batez ere, beren kasuistika berezia zela-eta premiaz esku hartu behar ziren alderdiak, hartara gizarte-kohesioaren eta lurralde-integrazioaren aldetik zeuden arazoak konpondu ahal izateko. Eta horixe bera lortu da Ondarroan, Kamiñalde-Iturribarru arloko hirigintza-garapenaren bitartez; horri dagokionez, herritarren asebetetze-maila oso altua da, bideak

eta sarbideak ugaritzeaz gain, etxebizitza eskuratzeko aukera-berdintasunak ere gora egin duelako.

Beste udalerrri batzuek udalak egin duen ahalegin eskerga nabarmendu dute, oso baliabide gutxi dituztelako eskura. Hala, Mendarok aditzera eman du udalak apustu handia egin duela proiektua aurrera ateratzeko, hala inbertsioaren tamainari eutsiz nola arazoak konpontzeko gaitasuna izanik, are gehiago udalerrriaren tamaina txikia aintzat hartuta; orobat, emaitzarik nabarmenena izan da jarduteko eremua biziberritzeko oinarriak jarri direla. Ildo beretik, Urduña-Orduñak azpimarratu du udalak ahalegin handia egin duela. aduana birgaitzeko jarduera oso konplexua eta tamaina handikoa zelako eta horrek gainerako jarduera guztiak baldintzatu dituelako. Azkenik, garapena Plan Estrategikoaren arabera egokitu da; plan horrek turismoa bultzatzen du eragile ekonomiko gisa; Izartu programari esker azpiegitura funtsezkoak ditu eta horiek udalerrriari aukera emango diote eskaintza turistikoaren mapan sartu ahal izateko.

Bermeoko programan hainbat atzerapen zeuden metaturik hasieratik bertatik; alabaina, 2005. urtean Josefinatarren ikastetxe zaharra birgaitzeko lanak burutu dira eta, horrez gain, gizarte- eta kultura-arloko ekipamendu ugari jarri da. Zuzkidura berria eta, orobat, hirigunea birgaitzeko hartu diren bestelako neurriak **baliagarriak izango dira lur jota dagoen erdialdeko eremua biziberritzeko eta kultura- eta gizarte-arloko eskaintzak antolatuz gizartean uztartzeko.** Bestalde, Muskizen, 2005eko ekitaldian zeregin askotarako egiten ari zen eraikina bukatu da; zerbitzu-aukera ugari izango ditu, eta hori lagungarria izango da biztanleen gizarte- eta erkidego-arloa garatzeko eta, zailentzarik gabe, jarduera ekonomikoak udalerrira erakartzeko.

Leioan, Izartu programak inbertsio osoa betearazi du, eta hirigintza- eta gizarte-arloan egin diren hobekuntzak nabarmentzeko modukoak dira. Hala ere, bestetik, Izarturen bidez gauzatu nahi ziren jarduera garrantzitsuenetako batzuk ez dute eraginik izango 2008. urtera arte, urte horrexetan osatuko baita PERRI-ren prozesu osoa Lamiako-Txopoetan. Hala ere, alkateak esan duenez, Izartu programa auzoa eraldatzeko prozesuaren eragilea izan da, hondaturik dagoen hirigune hori osorik eraldatzeko aukera emango baitu. Antzekoa gertatu da Gordexolan; hor Santa Isabel Komentua eraberritzeko



lanen lehen aldia burutu da, gizarte- eta kultura-arloko ekipamendu gisa paraturik Izartu programaren barruan, baina proiektua burutu aurretik ezin izango dugu jakin obra horrek zenbateko eragina duen aurrez ikusitako helburuetan.

- **Bigarrenik, zenbaketa orokorra egiten hasita, ikus dezakegu Izartuk onartutako jardueren arteko 206 amaitu direla 2001- 2005 aldian.** Horrek esan nahi du Izartu programaren baitan finantzatutako proiektuen %68 amaitu direla, laguntza teknikoaren inguruko jarduerak alde batera utzita betiere. Bestalde, beste 38 jarduera inguru burutzear daude; eta egindako gastuari erreparatzen badiogu, diruz laguntzeko moduko guztizko inbertsioaren %80tik gorakoa da.

Horri jarraiki, ikus dezakegu amaitutako jardueren %80 (164 jarduera) 2. ARDATZEKOAK (*tokiko oinarritzko azpiegiturak*) direla, eta batez ere 2.5 *Antolatze eta birgaitze azpiegiturak* neurriaren baitakoak.


2. taula: IZARTU programetan amaitutako jardueren analisia, esku hartzeko esparruen arabera. 2005. urtea.

ARDATZAK ETA NEURRIAK	JARDUEREN GUZTIZKOA.	BURUTUTAKO JARDUERAK	%
1. ARDATZA. EKOIZPEN-INGURUNEA ETA ENPLEGUA	27	19	%70
1.1. Jarduerari laguntzeko egiturak sortzea eta garatzea	9	5	%56
1.2. Ekoizteko azpiegitura sortzea eta garatzea	3	2	%67
1.3. Enpresaburuei, ETeei eta artisau-enpresei laguntzea	5	4	%80
1.4. Tokian tokikoa, turismoa eta ondarea sustatzea	10	8	%80
2. ARDATZA. TOKIKO OINARRIZKO AZPIEGITURAK	240	164	%68
2.1. Garraio-azpiegiturak	19	13	%68
2.2. Telekomunikazio eta informazio-gizarterako azpiegitura	5	3	%60
2.3. Energiarako azpiegitura	1	1	%100
2.4. Ingurumen-arloko azpiegitura	23	13	%57
2.5. Antolatze eta birgaitzeko azpiegiturak	142	102	%72
2.6. Gizarte- eta osasun-arloko azpiegitura	11	6	%55
2.7. Aisialdiko eta kulturako azpiegitura	37	24	%65
2.8. Hezkuntzako eta prestakuntzako azpiegitura	2	2	%100
3. ARDATZA. GIZA BALIABIDEAK ETA GIZARTE-INTEGRAZIOA	30	22	%73
3.1. Lan-merkatuko politikak	8	6	%75
3.2. Gizarte-integrazioa	9	7	%78
3.3. Aukera-berdintasuna	6	5	%83
3.4. Hezkuntza eta prestakuntza	7	4	%57
4. ARDATZA. TOKIKO OINARRIZKO AZPIEGITURAK SORTZEA ETA GARATZEA	7	1	%14
4.1. Tokiko oinarritzko zerbitzuak	6	0	%0
4.3. Gizalegezko prestakuntza eta hezkuntza	1	1	%100

3.2.4. PROGRAMAK AURRERA EGITEN LAGUNTZEKO NEURRIAK

Aurreko ekitaldian (2003) egin zen inbertsio gehien laguntza teknikoaren inguruko jardueretan eta programari laguntzeko neurrietan, ziurrenik aldi horretan izan zuelako Izartu programak aurrerapen esanguratsua, aurreko bi urteekin alderatuta. Izan ere, urte horretan jarri ziren abian hasteko zeuden programa eta jarduera gehienak. Azken urte horietan (2004 eta 2005ean) 19 programa burutu direnez, laguntza teknikoko neurrian egin den inbertsioa txikiagoa izan da.

10. Grafikoa: Izartu Egitasmoari laguntza teknikoa emateko gastua 2001-2005



Bestetik, nabarmendu beharra dago **laguntza teknikoko neurrietarako aurreikusita zegoen inbertsioaren %88 gauzatu dela; dena dela, datu hori hobetu zehaztu behar da, onuradunen %33k adierazi duenez kanpoko aholkularitza kontratatatu baitu Izartu programari ez dagozkion udal-baliabidea erabiliz.**


Ildo horretan, 2005. urtean 27 programek izan dute laguntza teknikoko zerbitzua, baina horietako 15ek baizik ez dute Izartu programan laguntzeko neurri hori bultzatzeko partida ekonomiko berezi bat; horrek aditzera ematen du udalek zenbateko garrantzia eman dioten kanpoko aholkularitza kualifikatua izateari.

Laguntzaren baitan garatutako lanen artean, Izartu programa bere osotasunean kudeatzearekin zerikusia duten zereginak dira programa gehienek kontratatzen dituztenak (%67). Honakoak, hain zuzen ere: *jarduerak zedarritzen eta zehazten laguntzea; kudeaketarako eta programaren araudia betetzeko aholkuak ematea; programa, esku*

hartzen duten udal-esparruak eta bestelako erakundeak eta/edo onuradunak koordinatzeko lanerako tresnak eskaintzea; eta Izarturen kudeaketarekin zerikusia duten agiri guztiak prestatzea (gauzatutakoaren inguruko urteko txostenak, gastuen egiaztagiria, luzapenak, aldaketak eta abar eskatzeko orriak...).

Bestalde, Izartu programaren baitako berariazko jardueren jarraipena egiten laguntzeko jarduerak eta obra-zuzendaritzako jarduerak laguntza teknikoak bere gain hartutako zeregin guztien %67 osatzen dute; horren ondoren, berariazko esparruetako aholkularitzaren kontratazioa dator (azterlan teknikoak, ingeniariak) laguntza tekniko osoaren %41 baita. Azken tokian, berriz, azken ebaluazioaren txostenaren prestakuntza dago (%19), 5 programak baizik ez baitute egin.

11. Grafikoa: Laguntza teknikoaren jarduera nagusiak 2005 urtean



Bestalde, jarduerak nabarmen egin dutenez aurrera, Izartu programaren bidez finantzatutako jardueren publizitatea egiteko eta horiek hedatzeko jarduerak ere ugaritu dira programei laguntzeko neurrien artean. Aurreko urtean bezala, **ia programa onuradun guztiek (44 programatik 43k) uztartu dituzte Izartu programaren baitako jardueren berri emateko eta horien publizitatea egiteko hainbat bide eta neurri. Gainera, arduradunek Izartu programako jardueren berri emateko eta publizitatea egiteko neurri eta bide batzuk ezarri dituzte.**


Eusko Jaurlaritzaren erakunde-nortasunaren eskuliburua arautzen duen abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretua aintzat hartuta, programarekin zerikusia duten publizitateko neurrietarako finkatutako legezko irizpideak betez, **Izartu programen edukia, ekimena eta laguntza aditzera emateko gehien erabili diren bideak eta tresnak honako hauek**

izan dira: esku hartutako alderdietan jarritako publizitate-txartelak, -panelak edo -taulak, pixkanaka informazio-plaka iraunkor bilakatuz joan direnak (%47).

Horren ondoren, honakoak dira udal onuradunek hartu dituzten hurrengo neurriak, garrantziaren arabera: lehenik, udaleko informazio-kanaletan aditzera ematea, hala nola, tokiko webetan, buletinetan eta aldizkarietan, eta postontzietatik banatzea (%44); eta, gero, Eusko Jaurlaritzaren programako arduradunekin lankidetzan, informazio-lana egitea Izartu "produktuetan" (prestakuntzako diplomak, ordenantzak, informazio-triptikoak, turismo-liburuxkak, proiektuen webak) (%28).

Era berean nabarmendu behar dira publizitateko kanpainak, eskualdeko prentsako artikulak eta bestelako ikus-entzunezkoak, hala nola tokiko eta erkidegoko irrati eta telebista (%26), eta, orobat, publizitate-bide zehatzago eta pertsonalagoak, esaterako, abian dauden proiektuen onuradunei edo tartean dauden pertsonen jardueren berri emateko antolatutako informazio-bilerak eta hitzaldiak.

12. Grafikoa: 2005. urtean Izartu egitasmoetan erabilitako komunikazio-, informazio- eta zabalkunde-bitartekoak



4. IZARTU II. PROGRAMA GAUZATZEAREN INGURUKO MEMORIA

Kapitulu honetan 2004-2008 aldirako Izartu programak, ekimenaren bigarren deialdiari dagozkionak, nola gauzatu diren eta horiek abian jarri ondorengo lehenengo urtean izan duten aurrerapena aztertuko ditugu. Aurreko kapitulu bezala, aurrerapen hori sailkapen funtzionalari -ardatzei eta neurriei- eta lurraldearen arabera - eskualdeei eta udalerriei- jarraiki aztertuko dugu, Izartu II ekimenaren onuradun diren 68 programetan.

2004-2008 aldirako Izartu programen esku hartzeko esparruak ez dira lehenengo deialdikoekin berdinak. Lau ARDATZEN (produkzio-ingurunearen, tokiko oinarritzko azpiegituren, gizarte-integrazioaren eta tokiko zerbitzuen eta laguntza teknikoaren) eta 20 neurriren inguruan bildu ditugu. 2001-2004 Izartu programarekin alderatuta dagoen desberdintasun nagusia da lehen 3. eta 4. ARDATZEAN sartuta zeuden neurriak orain ARDATZ bakarrean bildu direla (3. ARDATZEAN). Bestetik, 3. ARDATZAREN (Gizarte-integrazioa eta tokiko zerbitzuak) barruko hiru neurriren inguruan ez da jardura bakar bat ere aurkeztu; hain zuzen, honako hauek dira: *3.3 Hiri-hezkuntza eta -prestakuntza*, *3.4 Hiritarren segurtasuna* eta *3.5 Gizarte- eta laguntza-zerbitzuak*. Aheri dela-eta, ez dira aztertu horien emaitzak.

Sailkapen berri honetan 334 jardura biltzen dira; beraz, 2004ko ekitaldiarekin alderatuta, bi jardura gutxiago ditu, jatorrizko programetan zenbait aldaketa egin direlako.

Aurreko deialdian bezalaxe, jardura gehienak eta inbertsiorik handiena 2. ARDATZAREN (Tokiko oinarritzko azpiegiturak) ingurukoa izan dira. Alabaina, kontzentrazioa are handiagoa da 2004-2008 aldirako Izartu programetan, ARDATZ horretakoak baitira inbertsioaren %96 eta jardueren %78. 1. ARDATZAK (Produkzio-ingurunea) jardueren %4 biltzen du eta 3. ARDATZAK (Gizarte-integrazioa eta tokiko zerbitzuak) jardura guztien %1.

3. taula: 2004-2008 aldirako IZARTU programetan aurkeztutako jardueren analisia, esku hartzeko esparruen arabera. 2005. urtea.

ARDATZAK ETA NEURRIAK	JARDUERAK 2005. URTEA	
	Zk.	%
1. ARDATZA. EKOIZPEN-INGURUNEA	15	%4
1.1. Jarduerari laguntzeko egiturak sortzea eta garatzea	8	%2
1.2. Ekoizteko azpiegitura sortzea eta garatzea	2	%1
1.3. Enpresaburuei, ETEei eta artisau-enpresei laguntzea	1	%0
1.4. Tokian tokikoa, turismoa eta ondarea sustatzea	4	%1
2. ARDATZA. TOKIKO OINARRIZKO AZPIEGITURAK	260	%78
2.1. Garraio-azpiegiturak	22	%7
2.2. Telekomunikazio eta informazio-gizarterako azpiegitura	4	%1
2.3. Energiarako azpiegitura	6	%2
2.4. Ingurumen-arloko azpiegitura	47	%14
2.5. Antolatze eta birgaitze azpiegiturak	162	%49
2.6. Gizarte- eta osasun-arloko azpiegitura	5	%1
2.7. Aisialdiko eta kulturako azpiegitura	12	%4
2.8. Hezkuntzako eta prestakuntzako azpiegitura	2	%1
3. ARDATZA. GIZARTE-INTEGRAZIOA ETA TOKIKO ZERBITZUAK	3	%1
3.1. Gizarte-integrazioa	1	%0,3
3.2. Aukera-berdintasuna	1	%0,3
3.3. Gizalegezko prestakuntza eta hezkuntza	-	-
3.4. Hiritarren segurtasuna	-	-
3.5. Gizarte- eta laguntza-zerbitzuak	-	-
3.6. Gizarte- eta kultura-zerbitzuak	-	-
3.7. Tokiko beste zerbitzu oinarritzko batzuk	1	%0,3
4. ARDATZA. LAGUNTZA TEKNIKOAK	56	%17
5.1. Laguntza teknikoak	56	%17

Lurraldearen arabera sailkapenari dagokionez, udalerri onuradunak hiru lurralde historikoetakoak ditugu: 2 udalerri Araban, 37 Bizkaian eta 29 Gipuzkoan. Honakoak izan dira eskualde onuradunak (aurreko deialdian ez ziren lau eskualde agertzen dira oraingoan): Araba -Arabako Lautada-, Bizkaia -Nerbioi Garaia, Arratia-Nerbioi, Bilbao, Durangaldea, Enkarterri, Gernika-Bermeo, Eskuinaldea, Ezkerraldea, Markina-Ondarroa, Plentzia-Mungia eta Txorierri- eta Gipuzkoa -Debagoiena, Bidasoa Behea, Debarrena, Donostia-San Sebastián, mendebaldeko ingurabidea, ekialdeko ingurabidea, Goierri, Tolosa eta Urola Kosta.


4.1. 2005. URTEAN GAUZATUTAKO ESKU-HARTZEA ETA DESBIDERATZEAK

4.1.1. 2005. URTEAN GAUZATUTAKO ESKU-HARTZEAREN FINANTZA-ALDERDIAK

2005ean 2004-2008 aldirako Izartu programaren 68 udalerri onuradunek egindako gastua 39.326.679 eurokoa izan da. Lehenengo urtean (2004an) udalek egindako inbertsio-ahalegina programaren guztizko inbertsioaren %5ekoa izan zen; hortaz, bada, 2005eko ekitaldian betearazitakoaren bidez diruz laguntzeko moduko inbertsioaren %27,4 bete da.


Ildo horretan, lehenbiziko urtean bezala, 2005. urterako gastu-aurreikuspenak (28.145.648 €) era nabarmenean gainditu dira: %140 betearazi da programatutako gastuaren gainetik.

13. Grafikoa: 2005ean egindako gastua urte horretarako programazioaren arabera



Izartu II programek lehenbiziko bi urteetan izan duten ibilbidea Izartu I programek izan duten ibilbidearekin konparatzen badugu, ikus dezakegu betearazteko erritmoa antzekoa izan dela. Horrenbestez, desberdintasun bakarra haxe izan da: Izartu I programetan gastu-aurreikuspena askoz handiagoa zen eta, hori dela-eta, programatutakoa eta benetako betearazpenaren arteko egokitze-maila askoz baxuagoa zen Izartu II. programekin alderatuta.

14. Grafikoa: Izartu I eta Izartu II programek lehen urtean egindako gastuen arteko konparazioa.




Bestalde, 2004-2008 aldirako Izartu programei dagokienez, **inbertitzeko erritmoa ez da berdina izan esku hartzeko esparru guztietan: batzuetan, programazioa tarte handiarekin gainditu da eta, bestetan, aurreikuspenak betearazteko maila oso txikia izan da.** 2. ARDATZEAN gainditu dira gastu-aurreikuspen gehien aipatutako ekitaldian, eta horixe denez Izartu II programan pisu gehien duen ardatza (hala jarduerari nola inbertsioari dagokionez), bera da betearazteko erritmoa bizkortzen duena.

Hortaz, programazioa nabarmen gainditu da neurri batzuetan; hona hemen zein diren: 1.1. *Jarduerari laguntzeko egiturak sortzea eta garatzea*, 2.1. *Garraio-azpiegiturak*, 2.3. *Energia-azpiegitura*, 2.4. *Ingurumen-arloko azpiegitura*, 2.5. *Antolatze eta birgaitzeko azpiegiturak*, 2.7. *Aisialdirako eta kulturarako azpiegitura*, eta 2.8. *Hezkuntzako eta prestakuntzako azpiegitura*.

Zenbait neurritan, berriz, ez da aurreikuspenen %50 ere bete; honako hauek dira neurriak: 2.2. *Telekomunikazio eta informazio-gizarterako azpiegitura* eta 2.6. *Gizarte- eta osasun-arloko azpiegitura*. Bestalde, programazioa gorabehera, ez da inolako gasturik izan ondorengo neurri hauen inguruan: 1.2. *Ekoizteko azpiegitura sortzea eta garatzea*, 1.3. *Enpresaburuei, ETEei eta artisau-enpresei laguntzea*, 1.4. *Tokian tokikoa, turismoa eta ondarea sustatzea*, 3.1. *Gizarte-integrazioa*, 3.2. *Aukera-berdintasuna* eta 3.7. *Tokiko beste zerbitzu oinarritzako batzuk*.

15. Grafikoa: Esku hartzeko esparruak. 2004-2008 aldirako IZARTU programek 2005ean egindako inbertsioa.




Lurraldearen ikuspegitik begiratuta, hiru lurralde historikoetan izan da inbertsioa 2005erako programatutako gastua baino handiagoa. Bizkaian izan da handiena superabita, ekitaldi honetako aurreikuspenen arabera (%165). Horren ondoren, Araba (%145) eta Gipuzkoa (%113) datoz.

Hala, Izartu-ren bigarren programa honen onura jaso duten eskualdeen erdian (10etan, guztira 21 eskualde izanik) inbertsio-ahaleginak programatutakoa gainditzen du. Honakoak dira beren aurreikuspenetara egokitu ez diren eskualdeak: *Gernika-Bermeo, Eskuinaldea,*

Bidasoa Behea, Donostia-San Sebastián eta ekialdeko ingurabidea. Aurreko ekitaldiko (2004. urteko) datuak aztertuz gero, eskualde horiek bere horretan jarraitzen dute; alabaina, lehen Donostia-San Sebastián eskualdea atzeratuen zeuden artean egon arren, orain hortik desagertu da, aurrerapauso garrantzitsua egin duelako.

Aitzitik, honakoak izan dira inbertitzeko ahalegin handiena egin duten eskualdeak: *Arratia-Nerbioi, mendebaldeko ingurabidea, Durangaldea, Debagoiena, Enkarterri, Ezkerraldea, Urola Kosta, Bilbao, Markina-Ondarroa eta Nerbioi Garaia.*

16. Grafikoa: Eskualdeak. 2004-2008 aldirako IZARTU programek 2005ean egindako inbertsioa.




4.1.2. PROGRAMAZIOAREN ARABERAKO DESBIDERATZEAK

Aurreko datuak kontuan izanik, zenbaketa orokorrean aurreikuspenetara egokitze maila altua izan dela; baina, hala ere, programen arabera zehatz-mehatz aztertuz gero, argi ikusiko dugu desbideratzeak izan direla programazioaren arabera, hala 2005. urtean inbertsioa betearazteko izandako superabitaren nola defizitaren ondorioz.

Lehenik eta behin nabarmendu behar da sei udalerriek jatorrizko programan aldaketak egiteko eskaera egin dutela 2005. urtean; honako hauek dira: Areatza, Artzentales, Bilbao, Mutriku, Oiartzun, Vitoria-Gasteiz eta Zegama. Gasteizko udalerriak jarduera berri bat sartu du programan; eta Mutriku, Bilbao eta Zegama udalerriek, berriz, jarduera bana kendu dute beren jatorrizko programetatik. Gainerako aldaketak programetako jardueren artean aurrekontuak aldatzeko dira.

Bigarrenik, diruz lagundutako 278 jardueretatik (laguntza teknikoko jarduerak alde batera utzita), %35etan ez da desbideratzerik egon, dela aipatutako ekitaldian inbertsiorik egiteko asmorik ez zutelako, dela oso-osorik bete dutelako gastuaren programazioa.


17. Grafikoa: Jarduerak. 2004-2008 aldirako IZARTU programen programazioaren arabeko desbideratzeak. 2005. urtea.



Jardueren %31k desbideratzeak izan dituzte; horiei dagokienez, superabita izan da programatutako gastuaren arabera, batere gasturik aurreikusirik ez zegoelako eta, hala ere, inbertsioa betearazi dutelako, edota egin duten gastuak programatuta zegoena gainditu duelako. Gainerako jardueretan (%33tan, alegia) izan diren beste desbideratzeak betearazi dena aurrez ikusitakoa baino gutxiago izan delako gertatu dira, eta, programazioa gorabehera, batere gasturik egin ez dutelako ere bai.

Hala, udalerriei dagokienez, aurreikuspenen arabera izan den soberakin hori Izartu II programaren onura jaso duten udalerrien heren batean baino gehiagotan izan da (%40); bestalde, %16k programatutakoa bete du edo betetzeko oso gutxi falta zaie. Bestalde, %44k duten gastua 2005. urterako egindako inbertsio-aurreikuspenetik behera dago.

18. Grafikoa: Udalerriak. 2004-2008 aldirako IZARTU programen programazioaren arabera desbideratzeak. 2005. urtea.



Gastu gehien egin duten udalerriak honako hauek dira: Andoain, Arrigorriaga, Astigarraga, Bilbao, Elorrio, Hernani, Ibarra, Igorre, Lekeitio eta Orio. Era berean, udalerri horietan izan dira programetan gehien aurreratu dutenak, diruz laguntzeko moduko inbertsioaren %50 baino gehiago betearazi baitute. Igorre eta Andoain udalerrietan, betearazi den inbertsioa denboraldi osorako (2004-2006) programatutako gastu osoaren %100 ere gainditu da.

Tokiko arduradunen aburuz, honakoak izan dira aurrerapen horren arrazoi nagusiak: hobekuntza eta jardueretako batzuei (bereziki hirigintza-hobekuntzei) lehenbailehen heltzeko premia eta/edo esku-hartzeak alditan banatzeko epeak ez izatea berdinak udal-

plangintzan edo udalaz gaindikoan (egin beharreko jardueretan eskumena duten bestelako erakunde publikoetan).

- *Kasu batzuetan, jarduerak bizkorrago egiten ari dira planifikatutakoa baino - 2005eko iraileko Ebazpenean ezarritako inbertsioen eta diru-laguntzen koadro berriari jarraiki- eta jardueren benetako betearazpena era nabarmenean gainditzen du Izarturen urte askotako programazioa. Egindako inbertsioen zenbateko hori Izartu osoaren erdia baino gehiago da, eta horrek esan nahi du programa horiek (Bilbao, Andoain, Arrigorriaga, Astigarraga) askoz aurreratuago daudela plangintza baino. Udal-arduradunek jakinarazi dutenez, jarduerak lehenbailehen egin behar dira biztanleen edo auzotar onuradunen ongizateari lotuta daudelako. Hala, bada, aurreratzeko arrazoi nagusia da udalerrri onuradunetako biztanleek egindako eskaerei ahalik eta arinen eta modurik eraginkorrenean erantzutea.*
- *Beste batzuetan, programa udala hasieran ezarritako egutegiaren arabera garatzen ari da. Obren lehentasuna eta beharra ikusita, komenigarria zen obrak erritmo bizi horretan betearaztea, eta aurreikusita zeuden jardueretako asko 2005eko ekitaldian burutu dira. Era berean, onetsita zeuden jardura askok urte honetarako ezarrita zegoen gastua gainditzeaz gain, IZARTU II programak diruz lagundu dezakeen inbertsio osoa ere gainditu du, eta, hala, superabit horri aurre egiteko, udalaren inbertsio-ahalegina handitu beharko da edo hainbat instituzioak edo programak emandako bestelako laguntzak baliatu beharko ditu. Halaxe gertatu da, hain zuzen, Igorre, Lekeitio, Hernani, Orio eta Elorrioko udalerrietan.*

Aitzitik, programazioaren arabera gastu gutxien egin duten eta, era berean, diruz lagundu daitekeen inbertsioa betetzeko atzeratuen doazen programak honako hauek dira: Arrasate-Mondragon, Azpeitia, Basauri, Bermeo, Durango, Erandio, Errenteria, Gernika-Lumo, Güeñes, Irun, Legorreta, Leioa, Lemoiz, Segura, Sestao, Soraluze-Placencia de las Armas, Tolosa, Valle de Trápaga-Trapagaran, Zaldibia eta Zumaia.

Atzerapenaren inguruan gehien aipatzen dituzten argudioak udalaz kanpokoak izaten dira (azpikontrataturako enpresek obren hasiera atzeratzea, aurreikusitako jardueren zailtasuna, tartean dauden beste instituzio edo agente batzuen baimenen edo akordioen beharra,...), edo udalerrian bertan dauden bestelako esku-hartzeekiko mendetasunaren ingurukoak, izapideekin izandako atzerapenak, edo

jardueren zailtasuna dela-eta aurretiazko azterketak edo zenbatespenak benetako egoerara egokitu beharra.

Bestalde, kasu batzuetan gasturik ez egiteak ez du ezinbestean esan nahi programari ez zaionik ekin; beste batzuetan, berriz, aditzera eman da atzerapen horiek aintzat hartuta zeudela udal-plangintzaren barruan.


- *Hala, Leioa, Durango, Segura eta Güeñesko programetako arduradunen iritziz, aurreikusitako gastua betearaztean izan diren diferentziak ez dira finkatutako helburuen arabera izandako desbideratzeak, hirigintza-arloko oso kudeaketa zailak direlako. Hala da epe luzeko prozesuak direlako eta horietan aurreikusitako dauden hirigintzako esku-hartzeak egiteko denbora jakin bat beharko dutelako onesteko, adostasuna lortzeko eta betearazteko; hori dela-eta, inbertsioko ahaleginik handiena 2005-2008 aldiko azken urteetan egin behar da. Udal horien ikuspegitik, Izartu II programa orain arte bide onetik ari da garatzen, eta jarduerak hastapenetan egon arren, haien iritziz garapena egokia da.*
- *Beste kasu batzuetan -hala nola Bermeo, Irun, Lemoiz, Zaldibia, Legorreta eta Arrasate-Mondragon udaletako programetan- atzerapenaren arrazoia da arduradunek ahalegin handia egin behar izan dutela proiektuak adosteko edo esku-hartzeak egiteko, era askotako sinergiak baliatuz, neurri handi batean urbanizatzeko obrek bertan bizi direnei eragingo dizkieten eragozpenak ekiditeko, eta, beraz, lehentasunak eta esku hartzeko ekintzak haiekin finkatzeko.*
- *Tolosa, Valle de Trápaga-Trapagaran eta Azpeitia udalek adierazi dituzten inguruabarrak udalaren jarduera-eremutik kanpo daude, esate baterako, adjudikazioa jaso duen enpresak ez duela obra hasi, beste instituzio batzuk ere tartean izan direla enpresa kontratatzerakoan, beste erakunde eta instituzio batzuei dagozkien auziak ez direla konpondu...*
- *Azkenik, Errenteria, Basauri, Gernika-Lumo, Erandio, Sestao, Zumaia eta Sorluze-Placencia de las Armas udaletako programetan, atzerapenak izan dira, eta, bestalde, proiektuak, azterlanak eta era guztietako datuak behar dira, hartara, tokiko arduradunek jardueren irismenari buruz duten informazioa ugaltzeko edo errealitateari hobeki egokitzen zaion azterketa lortzeko.*

4.2. PROGRAMAREN AURRERAPENA BALIOESTEA IKUSPEGI FUNTZIONALETIK ETA LURRALDEAREN IKUSPEGITIK

4.2.1. PROGRAMAREN AURRERAPENA INBERTSIOARI DAGOKIONEZ

2004-2008 aldirako IZARTU programek lehenengo bi urteetan egindako gastua programak aldi osorako aurreikusitako guztizko inbertsioaren %27,4 izan da. Lehen Izartu programarekin konparatuta, aurrerapena zertxobait handiagoa izan da, programaren lehen deialdiko onuradun izan zirenek guztizko inbertsioaren %22,3 gauzatu baitzuten beren ibilbidearen lehen urtean.

19. Grafikoa: Izartu I eta Izartu II programek lehenengo urtean izandako aurrerapenen arteko konparazioa, guztizko inbertsioaren arabera.




Jarduerak abian jartzearekin batera hasten diren eta laguntza teknikoarekin zerikusia duten jarduerak alde batera utzita, eta 2004-2005 aldian egindako jarduerari begira, 1. eta 2. ARDATZAK antzeko abiadan joan dira, eta 3. ARDATZA, berriz, atzerago geratu da: Honako hauek dira neurririk aurreratuenak, egin beharreko inbertsioaren guztizkoa kontuan hartuta:

- 3.1 Gizarte-integrazioa: 2005eko gastua 78.350 eurokoa izan da, hau da, guztizko inbertsioaren %100, nahiz eta jarduera bakarrari dagokion.
- 2.7 Aisialdirako eta kulturarako azpiegitura: 2004-2005 aldian gastua 7.942.133 eurokoa izan da, hau da, guztizko inbertsioaren %58.
- 1.1. Jarduerari laguntzeko egiturak sortzea eta garatzea: 2004-2005 aldian gastua 1.190.925 eurokoa izan da, hau da, guztizko inbertsioaren %44.

- *2.3 Energiarako azpiegitura:* 2004-2005 aldiko gastua 877.502 eurokoa izan da, hau da, guztizko inbertsioaren %42.
- *2.1 Garraio-azpiegiturak:* 2004-2005 aldian gastua 25.710.483 eurokoa izan da, hau da, guztizko inbertsioaren %40.

Aitzitik, *1.2 Ekoizteko azpiegitura sortzea eta garatzea, 1.3 Enpresaburuei, ETEei eta artisau-enpresei laguntzea eta 1.4 Tokian tokikoa, turismoa eta ondarea babestea* neurriak (1. ARDATZAREN baitakoak) eta, orobat, *3.2 Aukera-berdintasuna* neurria ez dira iritsi aurreikusitako guztizko inbertsioaren %1era.


20. Grafikoa: Esku hartzeko esparruak. 2004-2008 aldirako IZARTU programek 2004 eta 2005. urteetan egindako gastua guztizko inbertsioaren arabera



Lurraldearen ikuspegitik begiratuta, lurraldeetako bakoitzerako guztizko inbertsioaren arabera izandako aurrerapena konparatzen badugu, **Bizkaia da aurreratuen doan lurraldea**. 2004-2005 denboraldian 28.242.526 euroko gastua egin du, alegia, **aldi osorako aurreikusitako guztizko inbertsioaren %32 (87.929.275 eurokoa da hori)**. Arabak 5.438.098 euroko guztizko inbertsioa du denboraldi osorako,, eta 2004-2005 denboraldian %24ra iritsi da, 1.298.775 euroko gastua egin baitu. Azkenik, Gipuzkoak 79.566.535 euroko guztizko inbertsioa du, eta berorren %22ra iritsi da denboraldi horretan, 17.854.811 euroko gastua egin du-eta.

Eskualdeka begiratuta, Arratia-Nerbioi, Bilbao, ekialdeko ingurabidea eta Markina-Ondarroak guztira aurreikusitako inbertsioaren %50 gainditu dute, eta lehenbiziko biek %80 ere bai. Gutxien aurreratu duten eskualdeak eskuinaldea, Gernika-Bermeo eta ekialdeko ingurabidea dira.

21. Grafikoa: Eskualdeak. 2004-2008 aldirako IZARTU programek 2004 eta 2005. urteetan egindako gastua guztizko inbertsioaren arabera



4.2.2. TOKIKO INBERTSIO-AHALEGINA ETA JASOTAKO DIRU-LAGUNTZAK

2004-2008 aldi honetan udal onuradunek Izartu programarekin batera finantzatzen duten zatiari begira, **batez beste %37koa izan da tokiko inbertsio-ahalegina.**

Horri dagokionez, gogoratzekoa da onuradun guztiek ez dutela ahalegin berdina egin, hori baterako finantziazioaren tasaren arabera baita. Izan ere, narriadura sozio-ekonomikoa definitzeko irizpideetan oinarrituta, diruz lagundu daitezkeen inbertsioaren %30, %50 eta %75eko laguntza ezartzen da. 47 izan dira inbertsioaren %75eko laguntza jaso duten programak. 17 udalerrik jaso dute %50eko laguntza eta 4k, berriz, %30ekoa. Bestalde, Izartu programaren bigarren deialdi honek BEZa hartzen du aintzat. Hori dela eta, Izartu I programaren onuradun izan zirenen tokiko inbertsio-ahaleginarekin konparatuz gero (hori %30ekoa izan zen batez beste), ahalegina antzekoa izan da, lehenengo deialdikoek zerga hori hartu behar izan zutelako beren gain.

Beraz, **Izartu II progamek 2004-2005 aldian gauzatutako 47,4 milioi € horietatik 17,5 milioi euro inguru tokiko inbertsio-ahaleginari zor zaizkio**, Izartuk emandako diru-laguntza kontuan izanik.

Bestalde, oraindik ere programa bateragarri da beste diru-laguntza eta laguntza batzuekin, gainerako administrazio eta erakundeetatik etor daitezkeenekin. **Hori laguntza handia izaten da kasu batzuetan udalak batera finantzatu behar duen zatiari aurre egiteko.** Haatik, ez dira bateragarri izango Eusko Jaurlaritzako beste sailetatik edo berariazko beste programa batzuetatik jasotako diru-laguntzekin.

Hala, programak gauzatzen emandako bi urte hauetan **guztira 4.915.109 euro jaso dira Izartu programaren baitan barne hartutako jardueren laguntzeko bestelako laguntza edo diru-laguntzen bidez.** Kopuru hori guztira egindako gastu osoaren %10,3 izan arren, tokiko inbertsioaren arabera egin den gastu ekonomikoaren %28 izan da.

Zenbateko hori handia den arren, Izarturen baitako 9 programa bakarrik dira laguntza horietakoren bat jaso dutenak 2005eko ekitaldian. Ekimenaren baitan finantzatutako 278 jardueren arteko **13k bakarrik jaso dituzte laguntza horiek.** Horrezaz gain, jarduera horien guztizko gastuari begira, beste laguntza horiei dagokien inbertsioaren ehunekoa %35ekoa baino ez da izan, batez beste.




Proiektuen tipologiari erreparatzen badiogu, 2.5. Antolatze eta birgaitze azpiegiturak neurriaren baitakoak dira diru-laguntza gehien jasotzen dituzten jarduerak. Horien ondotik ditugu *2.7 Aisialdirako eta kulturarako azpiegitura* eta *2.4 Ingurumen-arloko azpiegitura* deituriko neurriak.

Lurraldeen arabera hasieratik, diru-laguntza horietako %73 Bizkaiko lurralde historikoan lortu dira, %18 Gipuzkoan eta %9 Araban. Bitartekoen zatirik handienak foru-aldundietatik iritsi dira, eta, ondoren, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergotik.

4.2.3. AURRERAPENA BALIOESTEA IKUSPEGI INTEGRALETIK UDALEN ARABERA

Programa bere osotasunean hartuta, tokiko arduradunen ustez ona izan da jardueren bidea, lehengo urtekoa baino are hobeagoa. Deialdi honetan onuradun izan diren 68 Izartu programetatik, 53 programetako arduradunen ustez, ekimena positiboa izan da, batez ere biztanle onuradunen artean sortu dituen itxaropen eta ilusioak direla-eta; bestetik, 12 programetako arduradunek ez dute horri buruzko iritzirik eman, eta 3k balioespen txarra egin dute.

22. Grafikoa: 2004-2008 aldirako Izartu programak daraman bidearen inguruko asetaren balorazioa



Hala, programa askok 2005eko ekitaldian programen ibileraz izan duten ikuspen on hori arrazoitzeke, jarduerak betetzeko izan diren aurrerapenak aipatzen dira, horietako askok aurreikuspenak gainditu baitituzte. Alabaina, itxura denez, tokiko arduradunen baikortasunaren arrazoi nagusia da herritarren assetasun-maila altua hasi direla hautematen jarduera hauen inguruan, bertan bizi direnen bizitza-maila eta autoestimua hobetu delako: *"...udalerrian azken urteotan egin den proiekturik garrantzitsuena da", "...benetan uste dugu aurrera egiteko eragile izango dela eta gure udalarentzat pizgarri izango dela ilusioz betetzeko programaren helburuak eta gure herritarren iguripenak...", "...tamaina honetako proiektua erronka handia da udalarentzat, baita aukera paregabea ere, egiteke dauden eta oso beharrezkoak diren lanei heltzeko...", "ohartzen hasi gara espazio honetako egoera berriak halako sententzioa eragin diela auzotarrei, auzotik oso hurbil gune seguru bat birgaitu da, euren etxe ondoan, erkidego osoak erabili eta goza dezan..."*.

Gainerako udalerriek, gai honetaz iritzirik ematen ez dutenek eta iritzi txarra ematen dutenek, alegia, hala jokatu dute balioespena emateko behar adina urrats egin ez direlako edota aurreikusita zeuden ekintzak atzeratuta edo geldiarazita daudelako, lehen aipatutako arrazoiak direla-eta.

Era berean balorazio baikor hori 2004-2008 aldirako Izartu programen ibilbideko lehenbiziko bi urteotan lortutako emaitzei zor zaie. **2004-2005 denboraldian 219 jarduerari ekin zitzairen. Horrek esan nahi du bigarren deialdi honetan onuradun izan diren jardueren %60 hasi direla** (laguntza teknikoko jarduerak alde batera utzita).

Era berean, programa batzuk hasierako aldian egon arren, oro har, programak betearazten bi urte igarotakoan ikus daitekeenez, **Izartuk onetsi zituen 278 jardueretatik 29 burututa daude, alegia, jarduera guztien %10.**

Guztira, 21 udalerriek betearazi dute jardueraren bat; honako hauek: Artzentales, Orio, Igorre, Markina-Xemein, Mungia, Otxandio, Ugao-Miraballes, Zeanuri, Astigarraga, Derio, Sopuerta, Hernani, Lasarte-Oria, Elorrio, Lezo, Bilbao, Zegama, Donostia-San Sebastián, Hondarribia, Bergara eta Basauri.

Amaitutako jarduerak 2. ARDATZAREN (Tokiko oinarrizko azpiegiturak) baitakoak dira, ondorengo neurrien ingurukoak: 2.5 Antolatze eta birgaitze azpiegiturak, 2.3 Energia-azpiegitura, 2.4 Ingurumen-azpiegitura eta 2.7 Aisialdirako eta kulturarako azpiegitura. Nagusiki, esku hartzeko esparruetan saneamendua eta argiteria publikoa hobetzeko egindako jarduerak dira, baina azpimarratzekoak dira, halaber, bestelako hirigintza-hobekuntzak (kaleak urbanizatzea, espazio publiko hornitzea) eta gizarte-hobekuntzak ere bai (kultura-ekipamenduz hornitzea).

4. taula: 2004-2008 aldirako IZARTU programetan amaitutako jardueren analisia, esku hartzeko esparruen arabera. 2005. urtea.

ARDATZAK ETA NEURRIAK	JARDUEREN GUZTIZKOA.	BURUTUTAKO JARDUERAK	%
1. ARDATZA. EKOIZPEN-INGURUNEA	15	1	%7
1.1. Jarduerari laguntzeko egiturak sortzea eta garatzea	8	1	%13
1.2. Ekoizteko azpiegitura sortzea eta garatzea	2	0	%0
1.3. Enpresaburuei, ETEei eta artisau-enpresei laguntzea	1	0	%0
1.4. Tokian tokikoa, turismoa eta ondarea sustatzea	4	0	%0
2. ARDATZA. TOKIKO OINARRIZKO AZPIEGITURAK	260	27	%10
2.1. Garraio-azpiegiturak	22	1	%5
2.2. Telekomunikazio eta informazio-gizarterako azpiegitura	4	0	%0
2.3. Energiarako azpiegitura	6	2	%33
2.4. Ingurumen-arloko azpiegitura	47	3	%6
2.5. Antolatze eta birgaitze azpiegiturak	162	18	%12
2.6. Gizarte- eta osasun-arloko azpiegitura	5	0	%0
2.7. Aisialdiko eta kulturako azpiegitura	12	2	%17
2.8. Hezkuntzako eta prestakuntzako azpiegitura	2	1	%50
3. ARDATZA. GIZARTE-INTEGRAZIOA ETA TOKIKO ZERBITZUAK	3	1	%33
3.1. Gizarte-integrazioa	1	1	%100
3.2. Aukera-berdintasuna	1	0	%0
3.3. Gizalegezko prestakuntza eta hezkuntza	-	-	-
3.4. Hiritarren segurtasuna	-	-	-
3.5. Gizarte- eta laguntza-zerbitzuak	-	-	-
3.6. Gizarte- eta kultura-zerbitzuak	-	-	-
3.7. Tokiko beste zerbitzu oinarritzko batzuk	1	0	%0


4.2.4. PROGRAMAK AURRERA EGITEN LAGUNTZEKO NEURRIAK

Izartu II programako onuradunek laguntza teknikoaren inguruko jarduera gehiago egin dituzte eta neurri horrek pisu espezifiko handiagoa du guztizko inbertsioaren baitan, Izartu I programarekin alderatuz gero.

Izan ere, 56 udalerrik (onuradunen %80k baino gehiagok) kontratatu dituzte kanpoko laguntza jasotzeko zereginak, 2,3 milioi euro inguruko balioa izan dutenak (2004-2008 aldirako Izartu programak bere osotasunean izango duen guztizko inbertsioaren %1,4). Izartu I programen lehen urtearekin alderatzen badugu, 25 programek bakarrik izan zuten orduan laguntza teknikoaren inguruko jardueraren bat, eta 1,8 milioi euro inguruko inbertsioa egin zen (2001-2005 aldirako Izartu programek bere osotasunean izan zuten guztizko inbertsioaren %0,8).

Bestetik, 2004-2008 denboraldiko Izartu programak oinarritzat hartuta, kontua da **2005eko ekitaldian ia ez dela ezer gastatu laguntza teknikoko neurriak bultzatzeko, batez ere, lehenengo urtearekin alderatuta**. Datu hori, bestalde, aski logikoa da kontuan hartzen badugu lehenbiziko urtean inbertsioaren zatirik gehiena baliatu zela kanpoko laguntza kontratatzeke -hartara, gizartea eta ekonomia biziberritzeko eta lurraldea birgaitzeko programa integrala idazte aldera- eta, orobat, programak abian jartzeko laguntza emateko. Horrez gain, aintzat hartu behar da oso udalerri gutxik kontratatu behar izan dituztela tarteko ebaluazioak, eta kostu hori, gainera, datorren 2006ko ekitaldiko gastuari egotzi ahal izango zaiola.

23. Grafikoa: 2004-2005 aldiko Izartu II programaren laguntza teknikorako gastua.




Bestalde, aditzera eman beharra dago, Izarturen lehen deialdiko programekin gertatu bezala, udal batzuek kanpoko laguntza teknikoak dituztela, eta horien kostua ez diote programari egozten edo, bestela, epigrafe horretan azpikontrataturako jarduerak deskribatzen dituzte. Alabaina, berez, obra-zuzendaritza, proiektuen jarraipena eta horrelakoak egiteko laguntzari dagokio, eta ekintza horiek hirigintzako jardueraren inbertsioari egozteko modukoak dira, eta, ez ordea, Izartu programaren kudeaketari berari.

Hala, 2005. urtean laguntza teknikoak gehien landu dituen zereginak jarduerak kudeatzeko, abian jartzeko eta koordinatzeko lanei buruzkoak izan dira; hala izan baita ekitaldi horretan laguntza teknikoko neurriak kontratatu dituzten programen %71n.

Era berean, nabarmentzeko modukoak dira proiektuen jarraipena egiteko eta obra zuzentzeko kontratatu diren laguntzako neurriak; horrelako ekintzak laguntza teknikoak zuten programen %41k egin dituzte.

Azkenik, eta neurri txikiagoan (%17,4) gai bereziei buruzko aholku emateko jarduerak daude (azterlan teknikoak eta ingeniari-tza).


24. Grafikoa: 2004-2008 aldirako Izartu programen baitan 2005ean egindako laguntza teknikoaren baitako jarduerak nagusiak



Publizitatearen eta hedatzearen inguruko ekintzei dagokienez, bigarren urte honetan ia erabiltzaileen erdiak (%47) gehien baliatu dituzten bideak honako hauek izan dira: esku hartutako alderdietan jarritako publizitate-txartelak, -panelak eta -oholak; izan ere, Izartu programari dagokion araudiaren arabera, nahitaez jarri beharrekoak dira.

Bigarrenik komunikatzeko udal-bideak ditugu, hala nola, tokiko web-orria, udal-aldizkariak, herritarren postontzietara banatutako informazio-triptikoak.... (%34); eta, horren ondoren, publizitateko kanpainak, eskualdeko egunkarietan argitaratutako artikulak eta beste ikus-entzunezko batzuk (tokiko eta autonomia-erkidegoko irratia eta telebista) (%26,4). Orobat, aipatzeko modukoak dira tartean dauden auzotarrei eta onuradunei horren berri emateko egin diren informazioko hitzaldiak eta bilerak, programen %17tan egin baitira.

25. Grafikoa: 2004-2008 aldirako Izartu programen baitan 2005ean komunikatzeko, informazioa emateko eta hedatzeko erabilitako tresnak



5. HIRIALDEAK BIZIBERRITZEKO PROZESUEN AURRERAPENAREN INGURUKO MEMORIA

Kapitulu honetan programek aldatu nahi duten errealitateari egindako ekarpenak aztertuko ditugu. Hau da, hurrengo ataletan barrena **Izartu ekimenak bi deialdietan (2001-2005 eta 2004-2008) izan duen azken xedeari eskainiko diogu arreta, hain zuzen ere, hirialdeak lurraldearen, ekonomiaren eta gizartearen aldetik gehiago egituratzeko eta kohesionatzeko helburuari.**

Izartu programak Euskal Autonomia Erkidegoan kaltetuen diren hirialdeak gizarte- eta ekonomia-mailan biziberritzen laguntzea du xede, **izaera erabateko eta integraleko jardueren bidez** (hirialdeak biziberritzeko erabateko programen bidez). Izan ere, **jarduera horiek batera heltzen diete hirialde horiek dituzten berariazko arazo guztiei** (gizartearen, ekonomiaren, ingurumenaren eta abarren ingurukoei), **horien lurraldearen, ekonomiaren eta gizartearen mailako kohesioa lortzeko azken xedearekin**. Hortaz, 2001-2005 aldirako Izartu programari dagozkion jarduerak deialdi bakoitzaren araudian ezarritako kohesioaren inguruko helburu batean edo batzuetan bil daitezke, oro har eta ekintzaren tipologiari eta itxarotako xede edo eraginari jarraiki:

Helburu batzuen izena desberdina da deialdi batetik bestera, baina kohesioko helburu oroko bakoitzak barne hartzen dituen jarduerak sakon aztertuz gero, ondo bateratu ahal izango ditugu; aurreko urteko (2004ko) jarraipen-txostenak ere horretarako aukera eman zigun, lehenbiziko aldiz jaso baitzituen bi deialdien emaitzak, aurrerapenen, emaitzen eta eraginaren konparazio-azterketa Izartu I eta Izartu II programen artekoa, kohesioko helburuei jarriki.

Ildo horretan, gogoan izan behar da jarduerak honela multzokatu zirela:

➤ **Lurralde-integrazioa:**

Honekin zerikusia duten helburuak: 2001-2005 aldirako Izartu programaren baitako *Lurralde-integrazioa, hurbilerraztasuna eta hiri-kohesioa hobetzea* helburua eta 2004-2008 aldirako Izartu programako *Lurralde-integrazioarekin zerikusia duten arazoak konpontzea* helburua.

Jardueren sailkapena: Batez ere hiri-inguruetakoa auzo eta eremu jakin batzuen hurbilerraztasuna eta hirigintza-egoera hobetzera bideratutako jarduerak hartzen ditu bere baitan (arrapalak, eskailerak, trafikoa antolatzea, udal-zerbitzuak eta hornidura publikoak hobetzea...). Halaber, horietatik hirigunera sartzeko bideak hobetzera bideratutakoak, hiri-sareari jarraitasuna emateko eta hiri-bilbe kohesionatuagoa osatzeko (bide berriak, oinezkoentzako pasabideak, arrapalak, espaloiak zabaltzea...).

➤ **Informazio eta komunikazioaren inguruko teknologia barne hartzea:**

Honekin zerikusia duten helburuak: 2001-2005 aldirako eta 2004-2008 aldirako Izartu programen *Informazio eta komunikazioaren inguruko teknologia berriak barne hartzea* helburua.

Jardueren sailkapena: IKTbak oro har biztanle guztiek eta berariazko talde batzuek (enpresa, udal-erakunde, emakumezko eta gazteek) gehiago erabiltzea sustatzera bideratutako proiektuak, horretarako bideratutako eta prestatutako espazioak sortuz, prestakuntza-ikastaroak antolatuz, udal-zerbitzuak Internet bidez eskainiz... 2004-2008 aldirako Izartu programetan bi jarduera-mota baino ez dira barne hartu: zuntz optikoa sartzeko eta udaletako administrazio-zerbitzuak digitalizatzea.

➤ **Ingurumenaren ikuspegitik narriatutako inguruneak leheneratzea:**

Honekin zerikusia duten helburuak: 2001-2005 aldirako Izartu programaren baitako *Ingurumena eta narriatutako inguruneak leheneratzea* helburua eta 2004-2008 aldirako Izartu programaren baitako *Narriatutako edo/eta utzitako eremuak leheneratzea eta hobetzea* helburua.

Jardueren sailkapena: Narriatutako inguruneak eta eremuak leheneratzeko eta hirialdeak ingurumenaren ikuspegitik hobetzeko jarduerak, inguruneaz goatzera, kontzientziazio ekologikora eta ingurumena zaintzera eta errespetatzera bideratutako espazioz eta ekipamenduz hornitzea.

➤ **Enpresaburuak, ETEak, turismoa eta udal-ondarea babestea:**

Honekin zerikusia duten helburuak: 2001-2005 aldirako Izartu programen baitan *Ekonomia-jarduera sustatzea: enpresa berriak eta enplegua* eta *Enpresaburuak, ETEak, turismoa eta udal-ondarea babestea* helburuak eta 2004-2008 aldirako

Izartu programaren barruan *Enpresaburuak, ETEak, turismoa eta udal-ondarea babestea* helburua.

Jardueren sailkapena: Tokiko ekonomia-jarduerari zuzenean laguntzeko jarduerak, negozio-aukera berriak sortzera bideratutakoak (mintegiak, hirugarren sektoreko, hain zuzen ere, kulturaren eta gizartearen mailako, jarduerak garatzeko eraikinak birgaitzea...) nahiz dauden enpresei laguntzera bideratutakoak (zerbitzuak, enpresaburuentzako, ETEetarako eta saltokietarako ikastaroak, birgaitzeak, hiriguneak, plazak eta erdialdeko kaleak oinezkoentzat bihurtzea gizartea eta hirugarren sektorea garatzeko...). Jarduera hauek lotura estua dute esku hartzeko zonetan turismoa garatzearekin. Esparru honetako berariazko jarduerak ere hartu dira barne, hala nola, pasealekuak, mendi-ibiliak egiteko ibilbideak eta abar sortzea.

➤ **Hiriaren irudia eta egoera hobetzea:**

Honekin zerikusia duten helburuak: 2001-2004 aldirako Izartu programen baitan *Hiriaren irudia, kalitatea eta hiri-ingurunea hobetzea. Urbanizatzeko obrak eta birgaitzeko proiektuak*, eta 2004-2008 aldirako Izartu programen baitan *Hiri-jardueren ingurumen-eragina murriztea* helburua.

Jardueren sailkapena: Hirigintza-hobekuntzak egitea eta udal-zerbitzu eta -sareak hobetzea, hiri-azpiegiturak hornitzea eta instalatzea, urbanizatzeko planak, espazio publikoak (parkeak, plazak, lorategiak...) gaitzea, udalerrietako erdiguneak eta inguru bereziak oinezkoentzat bihurtzea eta hobetzea, hiri-irudia hobetzea herrigune historikoak, eraikinak, etxebizitzak eta abar birgaitzeko proiektuen bidez.

➤ **Gizarte, kultura eta laguntzaren esparruko zerbitzuak eta ekipamenduak:**

Honekin zerikusia duten helburuak: 2001-2005 aldirako Izartu programaren barruan *Udalerriak gizartearen, kulturaren eta jolasaren esparruko zerbitzu eta ekipamenduz hornitzea* helburua eta 2004-2008 aldirako Izartu programako *Gizarte- eta lan-bazterketa jasateko arriskuan diren taldeen aldeko diskriminazio positiboa* helburua.

Jardueren sailkapena: Hirugarren sektoreko zerbitzu eta ekipamenduak sortzea: gizarte- eta kultura-zentroak, liburutegiak, hirugarren adinekoentzako, emakumezkoentzako, gazteentzako edo gizarte-bazterketa jasaten duten taldeentzako espazioak, eraikin eta areto balioanitzak eta berariazko gizarte-

zerbitzu eta -programak (berdintasun-planak, hurbilerraztasuna areagotzeko planak..). -

Gogoan izan jardueren sailkapena ez dela zehatza, Izartu programak programa integral direnez proiektuetako askok helburu bat edo gehiago izan ditzaketelako. Haatik, banaketa horrek aukera eskainiko digu hobeto zenbatesteko horietako bakoitzean izandako aurrerapena eta lortutako emaitza edo eraginak.

Bi Izartu programetan diruz lagundutako jardueren banaketari dagokionez, 2001-2005 aldirako Izartu programen nahiz 2004-2008 aldirako Izartu programen kasuan, honetara bil ditzakegu jarduera-kopuru eta inbertsio handiena izan duten helburuak: *Hiriaren irudia eta egoera hobetzea, Ingurumenaren ikuspegitik narriatutako inguruneak leheneratzea eta lurralde-integrazioa*. Aitzitik, honakoak dira oraindik ere jarduera-kopuru eta inbertsio txikiena duten helburuak: *IKTBak barne hartzea, Enpresaburuak, ETEak, turismoa eta udal-ondarea babestea eta Gizarte, kultura eta laguntzaren esparruko zerbitzuak eta ekipamenduak*.

Ondoren aurkeztuko ditugun ataletan prestatutako esku-hartzeetan eta lortutako emaitzetan eta eraginetan izandako aurrerapenen inguruko datuak eskainiko ditugu.

5.1. HELBURUETAN IZANDAKO AURRERAPENA: INBERTSIOA ETA EGINDAKOA


Atal honetan **kohesioaren inguruko helburu orokor bakoitzean izandako aurrerapena** aztertuko dugu, **egindako inbertsioaren arabera eta jardueretako bakoitzean egin denari jarraiki** (jarduera bakoitzak bere baitan hartzen dituen ekintzak aintzat izanik). Berriz ere azpimarratu behar dugu 2001-2005 aldirako Izartu programak beren bosgarren urtean direla eta 2004-2008 aldirako Izartu programak, berriz, bigarrenean. Ebazpena 2004ko uztailakoa denez, programak urte eta erdiko bidea besterik ez du egin.

Inbertsioari begira, lehen deialdian ikus dezakegu *Gizarte, kultura eta laguntzaren esparruko zerbitzuak eta ekipamenduak* deritzan helburua dela aurreratuen doana

Bestetik, atzeratuen dagoena *Informazioko eta komunikazioko teknologiak sartzea* izenekoa da; aitzitik, Izartu II programan horixe da aurreratuen dagoena. Datu hori ikusita, nabarmena da betearazi den lana denboraldi osorako aurrez ikusita zegoena baino handiagoa dela; hala ere, hori nabardura bat egin beharra dago: horrekin aditzera eman nahi da jarduera jakin batzuen kostuan izan den soberakina diruz laguntzeko moduko inbertsioa baino handiagoa izan del, eta ez du adierazi nahi helburu horretan sartuta dauden jarduera guztiak burututa daudenik. Bestalde, azpimarratu behar da Izartu II programetan, inbertsioari dagokionez, aurreratuen dagoen bigarren helburua *Gizarte-, kultura- eta laguntza-arloko zerbitzuak eta ekipamenduak* izenekoa dela.

Alabaina, jarduera gehien biltzen duten helburuetan egindako inbertsioari begira, *Hiriaren irudia eta egoera hobetzea, Ingurumenaren ikuspegitik narriatutako inguruneak leheneratzea eta Lurralde-integrazioa* izenekoak dira programako erritmo orokorra finkatzen dutenak; Izartu I programan %70 osatzen dute, eta Izartu II programan, berriz, %20 baino gehiago.

26. Grafikoa: Kohesioaren inguruko helburu orokorrak. 2001-2005 aldian egindako gastua guztizko inbertsioaren arabera.



Aurreko ekitaldietan bezala, **egin denari erreparatzen badiogu** (lortu nahi den helburura iristeko jarduerak barne hartzen dituzten esku-hartzei begiratzen badiegu), **tokiko arduradunek hautemandako aurrerapenak**, egindakoaren arabera adierazle bidez neurtutakoak, jardueren inguruko errealitatearen eta horien aurrerapenaren **ikuspegi deskriptiboagoa eskaintzen digu**.

Horri jarraiki, egin dena egindako inbertsioarekin konparatzen badugu, ikusi ahal dugu batez besteko gauzatze-erritmoa %79koa izan dela Izartu I programaren onuradunen kasuan, eta hori egindako inbertsioaren antzekoa dela (%78). **Alabaina, egindako inbertsioaren emaitzei buruzko datuekin alderatuta, desberdintasun nabariak daude**; izan ere, inbertsioan, lehen esan dugun bezala, jarduera batzuetan dagoen gaitasunak nolabait itxuraldatzen ditu multzo osoan benetan egindakoari buruzko datuak, batez ere jarduera gutxien duten helburu horietan.

Hala, bada, burututako finantza-alderdiei erreparatzen badiogu, aurreratuen zegoen helburua Gizarte-, kultura- eta laguntza-arloko zerbitzuak eta ekipamenduak izenekoa zen; aitzitik, egindako jarduerari begira bera da atzeratuen dagoena, eta, hala, horrek ikuspegi


egiazkoagoa ematen digu helburu horren betetze-mailaz. *Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak sartzea* izeneko neurriaren benetako aurrerapena (aurreikusitako esku-hartzeak egiten diren heinean) handiagoa izango litzateke Izartu I multzoaren aurrerapenaren batez besteko erritmoa baino.

Azken batean, egindakoari begira, 2001-2005 Izartu programen bidez aurrerapenik handiena izan duten helburuak honako hauek izan dira: *Enpresaburuei eta ETEei laguntzea, Tokian tokikoa, turismoa eta ondarea sustatzea, Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak sartzea eta Lurralde-integrazioa* izenekoak dira.

2004-2008 aldirako Izartu programen kasuan, helburu guztietan ikusi ahal izan dugu aurrerapena handiagoa izan dela esku-hartzeak egiterakoan gastua egiterakoan baino. Alabaina, eta aurrekoan gertatu bezala, aldeak daude egindako inbertsioaren eta egindako jardueren artean; hala, egindako finantza-alderdiei begira, aurreratuen dagoen helburua *Gizarte-, kultura- eta laguntza-zerbitzuak eta ekipamenduak* izenekoa da; baina egindako jarduerari begira, aldiz, aurrerapenaren abiada askoz ere motelagoa da.

Ildo horretan, tokiko arduradunen iritzia jarraiki, aurreratuen dauden helburuak hauexek dira: *Hiriaren irudia eta egoera hobetzea eta Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak sartzea*. Bestalde, atzeratuen dauden helburuak *Enpresaburuei eta ETEei laguntzea, Tokian tokikoa, turismoa eta ondarea sustatzea eta Gizarte-, kultura- eta laguntza-zerbitzuak eta ekipamenduak* izenekoak dira.

27. Grafikoa: Kohesioaren inguruko helburu orokorrak. 2001-2005 aldian egindakoa guztizko inbertsioaren arabera.




5.2. HIRIALDEAK BIZIBERRITZEKO PROZESUETAN IZANDAKO EMAITZAK ETA ERAGINAK

Kohesioaren inguruko helburu orokorretako bakoitza bereiz eta berak izandako ekonomia-aurrerapenaren eta egindakoaren arabera eta barne hartzen dituen jardueren tipologiari eta udalerrri onuradunei jarraiki aztertuz gero, **2001-2005 aldirako eta 2004-2008 aldirako Izartu programek lortutako emaitza eta eragin nagusien deskribapen zehatza** eskain dezakegu.

5.2.1. Lurralde-integrazioa

2005. urtean, helburu honetan barne hartutako jardueren tipologiari jarraiki, berriz ere honakoak izan dira Izartu I programaren bidez lortutako aurrerapenik handienak: hurbilerraztasuna eta komunikazioak hobetzearekin zerikusia duten jardueren ingurukoak (sarbide mekaniko berriak, oinezkoentzat nahiz ibilgailuentzat, galtzadak oinezkoentzat bihurtzea...) eta hiri-bilbearekiko komunikazioak hobetzeraz eta inguruetako auzoak edo bizitegi-nukleoak azpiegiturez hornitzera bideratutakoak. Emaitza horiek, bestalde, bat datoz Izartu II programetan aurreratuen dauden jarduerekin, helburu horren barnean baitaude.

28. Grafikoa: Lurralde-integrazioa. Aurrerapena jarduketa-tipologiaren arabera. 2001-2005



Horien artean, Izartu I programan, urbanizazioan egindako hobekuntzak dira nabarmentzekoak: 100.000 m² inguruko espazio publiko landu da, eta gune horren %50 inguru erabilera publikoko espazioak gaitzeko baliatu da (lorategiak, plazak, oinezkoentzako guneak...); 68 km-ko bideak hobetu dira ibilgailuetarako udalerrietako periferiako guneen sarbideetan; eta oinezkoen sarbiderako eta ibilgailuetarako 72.000 m lineal berritu dira (2005eko ekitaldian 14 sarbide hobetu ziren ibilgailuetarako, bi bidegorri berri egin ziren eta 3 sarbide mekaniko prestatu ziren irisgarritasuna hobetze aldera,...). Horrez gain, helburu honen barruan, sareak eta hornidurak hobetu dira 15 bizitegi-azotan.

Horren ondorioak hautematen dira dagoeneko hiri-bilbearen kohesioan, sare egituratu eta hurbilerraza ari baita sortzen. Auzoen eta eremu jakin batzuen arteko eta horien eta hiriguneen arteko loturak areagotu dira: bideak oinezkoentzat bihurtzea, pasabide berriak, komunikazioak hobetzea... Gisa horretan hiriguneetako trafikoa arintzea eta hiriguneak herriar guztientzat hurbilerrazago izatea lortu da.

- ***Soraluze-Placencia de las Armas** udalerriak bideetako 9.000 m² eta espazio publikoko 5.395 m² hobetu ditu, hala udalerriko eremuen arteko kohesioa hobetu du, sarbidea erraztu die Olea-Santa Ana arlora doazen ibilgailu artikulatuei eta Rekaldeko industrialdea zabaltzeko aukera eman du.*
- ***Pasaia** udalerriak portu aldearekiko konexioa egingo duen bideko obrak bukatu ditu, bideko 320 metro linealak egin baititu eta 4.500 m²-ko azalera urbanizatu baitu; horrez gain, bidegorri bat eratu da eta Lezotik datorrenarekin lotu.. Era berean, Meipi plazaren parean aldi berean egongo den bide bat egin da, eta, horren ondorioz, ibilgailu astunen %90 ez dira bizitegi-arlotik igarotzen, hantxe egin den biribilguneari esker; gainera, espazio publikoa kalitate gehiagokoa da, Meipiko bi plaza txoak lotu baitira bide baten bitartez.*
- ***Karrantzan**, barneko irisgarritasuneko arazoak konpondu nahian (udalerriak 48 auzo eta 130 km-tik gorako azalera ditu), ibilgailuetarako 68 km-ko sarbideak konpondu ditu, hala auzoetako bizitza-baldintzak hobetu ditu eta udalerriko leku interesgarri batzuetan irisgarritasuna lortu da, turismoaren sektoreari bultzada emate aldera.*

Hurbilerraztasuna nabarmen hobetu da azpiegiturak hobetzearen bidez eta traba arkitektonikoak kentzearen bidez, gisa horretan pertsonen nahiz ibilgailuen joan-etorriak erraztu direlako. Hala, bada, kaleak oinezkoentzako gunee bihurtu dira, eskailera mekanikoak eraiki dira, eta irisgarritasunari buruzko planak prestatu dira.

- **Basaurin** traba arkitektonikoak kendu dira eta hurbilerraztasuna hobetu da, espaloiak konpondu eta eskailerak kendu dira, eta, horrela, oinezkoen ibilbidea erraztu da. Horrez gain, RENFEren trenbideen azpiko tunel baten bidez Kareaga Behekoa eta Zumalakarregi kaleak elkartu dira, ibilgailuak bertatik igarotzeko eta herrigune osoa zeharkatu behar izatea saihesteko. Gisa horretan pertsonen eta ibilgailuen joan-etorria erraztu da, eta bide batez bertako herritarren bizikaltasuna hobetu.
- **Elgoibar** udalerrian eskailera mekanikoak jarri dira Urasandi auzoan eta, era horretan, era nabarmenean hobetu da bertako biztanleen irisgarritasuna.
- **Laudion**, era egokian burutu dira Vitoria kaleko urbanizazioa eraberritzeko lanak; 29.350 m²-ko azaleran lan egin da, eta horrek eragin ona izan du alderdi horretako jarduera ekonomikoan, eta udalerriko pertsonen bizitza-kaltasuna hobetzeko ere bai.

Bestetik, lehenbiziko bi urte hauetan, 2004-2008 Izartu programaren udalerri onuradun batzuek emaitzak aurkeztu zituzten helburu honi dagokionez: bideetako 14.000 m² inguru berritu dira, errepideetako 2 km hobetu dira eta pasealekuen, espaloien eta oinezkoentzako guneen 4.000 m² birgaitu edo sortu dira; 5.000 m²-ko azalera berriz urbanizatu da eta espazio publikoko 1.600 m² baino gehiago eraberritu edo egokitu da; horrez gain, hiri-altzariak eta irisgarritasuna hobetzeko elementuak jarri dira (4 arrapala, eskailera 1, pasabide 1,...)

Helburu honen barruan, lehen adierazi dugunez, ibilgailuetarako eta oinezkoentzako bideak (kaleak, espaloiak, oinezkoentzako pasealekuak) eraberritzea eta birgaitzeko jarduerak dira gehien aurreratzen ari direnak; dena dela, oraindik goiz da hobekuntza horiek lehen aipatutako udalerrietan izango duten eragina aztertzeko.

- Hala, Abanto Zierbenan Meatzariaren etorbideko espaloiak zabaltzeko, oinezkoen irisgarritasuna hobetu da (350 m²-ko azaleran), hala oinarritzko zerbitzuetara nola Gallartako gunee nagusira iristeko.

- **Iurretan** guneko publikoko 850 m² gaitu dira Uralde kalea oinezkoentzako guneko bihurtu baita, eta, hala oinezkoentzako pasealeku horren bidez hirigunerako sarbideak eta ingurunea hobetu dira.
- **Karrantzan** ere espalo berria egin da udalerriko Ambasaguas/La Tejera alderdiak lotze aldera.
- Antzuolan Uzarraga eta Lizarragako hiribidea lotzeko bide berria eraikitzeke obrei ekin zaie (honakoak jarri dira: harri-lubetako 17 metro kubiko, inprimazio- eta itsasdura-ureztapeneko 458 m², baldosazko zoladurako 436 m², zintarriko 147 m lineal,...).
- **Artzentalesen**, Santa Maria eta Zarzuela auzoetako hiriguneetara doan udal-bidea konpontzeko lanak bukatze aldera, eustorma eraiki da. Aurten, gainera, udalerrriaren zati bati zerbitzu egiten dion saneamendu-sarea berritzeko lanak amaitu dira. Horrez gain, Traslaviñako hirigunean irisgarritasuna eta bide-segurtasuna hobetu dira.
- **Elorrion** bide berri bat egin da (842 m²-koa) eta, era horretan, Goieta kalea eta hirigunea lotu dira. Ibilgailuen eta oinezkoen joan-etorria eta irisgarritasuna era nabarmenean hobetu dira (bide eta eranskinen 8.800 m² birgaitu dira San Roman baselizara iristeko, 2.066.40 m² eraberritu dira Araunas auzora heltzeko, eta 1.730,77 m², azkenik, San Agustinen). Era berean, "San Bizenteko bidean" aurreikusita zeuden osagaien %60 baino gehiago egin da, eta, horrenbestez, lehenbiziko urratsa egin da Berriztik datozen ibilgailu astunak herritik igaro ez daitezen.
- **Lasarte-Oria** udalak ere ibai ondoko ibiltokia eraberritzeko lanak bukatu ditu Industrialdean (1.520 m²-ko azalera urbanizatu da berriz, eta oinezkoentzako ibiltokiak eta irisgarritasuna %60 hobetu dira). Jarduera horren bidez, jarraipena eman zaie, espazio aldetik, oinezkoentzako ibilbideei Oria ibaiaren inguruan.
- Horrez gain, **Ermuko** udalak bide bat egiten hasi da Abeletzeko trenbideen azpitik.

Hurbilerraztasuna hobetzera bideratutako esku-hartzeek ere aurrerapen handia izan dute bigarren urte honetan; hala, oztopo arkitektonikoak kendu dira eta udalerrietan oinezkoen irisgarritasuna hobetuko duten elementuak jarri dira.


- **Andoainen** Oria ibaiaren gainetik egiten ari zen oinezkoentzako pasabidea bukatu da, eta hala kiroldegira sartzeko bidea zuzenagoa da. Horrez gain, Bazkardoko

- eskailerak amaitu dira, 4 arrapala mekaniko paratu dira oinezkoek sarbide errazagoa izan dezaten eta hiri-bilbetik ibilgailu gutxiago ibil dadin.*
- **Etxebarrin**, Lezama-Legizamon auzora iristeko egiten ari zen oinezkoentzako pasabide berria bukatu da. Auzokoek sarbide zuzena dute metrora eta ibaiaren bestaldera iristeko, hantxe baitago udalerraren erdigunea; hartara, udalerrri berean egon arren fisikoki eta psikologikoki bananduta dauden bi alderdi horiek bateratzeko urratsak egin dira. Bestalde, Legizamon industrialdeko langileak hura erabiltzen ari dira eta, beraz, ibilgailu gehiago aparkatzen da ertz horretan, zaila baita industrialdean bertan aparkatzeko tokia aurkitzeko.
 - **Ugao-Miraballesen** ia 3.000 m²-ko azalera birgaitu da: oztopo arkitektonikoak kendu dira, horiek traba larria baitziren Usila, Iturrogorrialde eta Santi Laurentzi bezalako periferiako auzoetan bizi diren herritarrentzat, "bananduta" baitzeuden herriaren erdigunetik eta benetako arriskua izaten baitzuten hirigunera etortzeko.
 - **Lezon** alde zaharrera iristeko bidea hobetu da, eta 450 m²-ko azalera oinezkoentzako gune bihurtu da Polentzarrene eta Nagusiase kaleak lotze aldera.
 - **Areatzan** hirigune historikoa oinezkoentzako gune bilakatzeko obrei ekin zaie, eta horrek ondorio onak izan ditu herritarrek gune berriak baitituzte zernahitarako erabiltzeko eta gozatzeko (1.000 m²-ko azalera birgaitu da edo oinezkoentzako gune bilakatu da).
 - **Basaurin**, Doctor Fleming kaleko irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetzeko jarduera egiten hasi da, aurreproiektuari ekin baitzaio. Beste horrenbeste gertatu da **Güeñesen**, Herriko Enparantza eta biribilgunea egiteko jarduerarekin, eta **Mutrikun**, Piñastegiko eskailera mekanikoak eta Sulenguako igogailua eraikitzeko lanekin.

5.2.2. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak barne hartzea

2001-2005 aldirako Izartu programei dagokienez, eta helburu honetan barne hartutako jarduera-motari jarraiki, helburu hori lortzeko prestatutako gela edo zentro informatikoen ingurukoak dira aurreratuen doazen jarduerak. Bestetik, 2004-2008 aldirako Izartu programetan, aurrerapen handiago izan dute administrazio publikoa digitalizatzeko jarduerak.

29. Grafikoa: Informazioaren eta Komunikazioen Teknologia Berriak. Aurrerapena jarduketa-tipologiaren arabera. 2001-2005



Izartu I programaren emaitza gisa aditzera eman daiteke guztira 10 ekipamendu publiko berri egon direla IKTak sustatzeko eta haien sarbidea hobetzeko, 46 ikasgela edo lantegi izan direla, zerbitzu eta lanpostu berriak sortu direla, eta ikastaroen eta zerbitzuen onuradun zuzenak 4.000 lagun baino gehiago izan direla.

IKTBen erabilera sustatzea xede duen helburu honen bidez, batez ere, horiek erabiltzen lagunduko duten azpiegiturak ari dira sortzen.

- *Ekitaldi honetan, Amurrión teknologia berrien ikasgela egin da; horren bidez, areago bultzatuko da IKTak udalerrian zabaltzeko eta indartzeko lana, eta, horrez gain, lanpostu berriak sortuko dira.*
- *Soraluze-Placencia de las Armas udalerrian, telelanerako zentroa egin da, langabezia dauden emakumeei zuzenduta, informazio eta komunikazioaren*

- teknologia berriak sustatzeko eta, aldi berean, pertsona horiek lan-munduan txertatzeko..*
- ***Barakaldo Gurutzetan**, 8 ikastetxe publikotan Interneterako sarbidea jarri da, eta, era horretan, informazioaren gizartera eta teknologia berrietara iristeko modua izango da auzo horretan. Sarbidea dohainik da herritar guztientzat, lehendik zeuden kultura-instalazioak baliatu dira horretarako, eta, beraz, lehendik zeuden baliabideak era bikainean erabili dira.*
 - ***Donostia-Loiolan**, Edonostia.net Loiola izeneko teknologia berrien zentroa jarri da abian, Loiolako Kultura Zentroan, hala, teknologia berrietara hurbiltzeko aukera eskaintzeaz gain, autoerabilerako zerbitzua, jardunaldiak eta bideokonferentzia bidezko ikuskizunak antolatu dira inguruko biztanleak teknologia berriei buruz sentsibilizatzeko, eta e-mail eta telefono bidezko aholku-zerbitzua eta on line prestakuntza ere eskaini dira.*


Izartu IIIn sartuta dauden eta helburu honetako jarduerak dituzten programei dagokienez, egin diren aurrerapen bakanak e-administrazioari lotutako jardueretan izan dira.

- ***Areatzak** orri bat prestatu du udal-zerbitzurako eta horren bidez hiru udal-zerbitzu eskaintzen dizkie on line herritarrei. Orain arte 150 kontsulta jaso dira: udal-zerbitzuak egiteko modua %20 hobetu dela uste da, eta herritarrek teknologia berriei duten erabilera ere bai.*
- ***Mutrikun**, 2005. urtean kanpoko teknikari baten zerbitzua kontratatu zen administrazioko prozedurak hobetu zitzaizkion, hartara, arinago egin ahal izateko eta gaurkotzeko, eta, azken batean, udalaren web orrian jarri ahal izateko..*

5.2.3. Ingurumenaren ikuspegitik narriatutako inguruneak leheneratzea:

2001-2005 aldirako Izartu programaren baitako helburu honi dagokionez, honakoak dira aurreratuen doazen jarduerak: zerbitzu- eta hornidura-sareetan irizpide "ekologikoei" jarraiki egin diren hobekuntzak eta espazioak ingurumenaz gozatzeko eta kontzientziazio ekologikoa sustatzeko leheneratzea eta egokitzea. Aurrerapen txikiagoa izan dute ibaiak eta badien inguruak leheneratzea helburu zuten beste jardura garrantzitsuago batzuek eta industria-aurriak eraistearekin, enpresak lekualdatzearekin eta bizitegi- eta industria-erabilerak berriz antolatzearekin zerikusia duten beste jardura batzuek. Aurreratzeko ordena horixe ikus daiteke 2004-2008 aldirako Izartu programan; alabaina, emaitzak lortzeko erritmoari dagokionez, hiriko ingurumena hobetzeko jarduerak dira nabarmenenak, arlo horretakoak baitira egin diren jardura gehienak.

30. Grafikoa: Ingurumena. Aurrerapena jardueren tipologiaren arabera. 2001-2005.



Helburu honen baitako emaitza nagusien artean honakoak ditugu: 210.196 m²-ko espazio publikoa hobetu da (37.000 m² aurriak erautsita, 56.000 m² azalera urbanizatuz, 14.600 sarbideak eta espaloiak konponduz), hornidurako lur azpiko sareetako 43.098 m lineal eta 43.700 m² parke, berdegune eta aisiarako gune leheneratu eta/edo egokitu dira hirigunean. Bestalde, ingurumenean izandako eragina eta narriatutako inguruneak leheneratzea dira herritarrek gehien eta ondoen balioetsitakoak.

Hala, helburu honen barruan hainbat udalerri erabaki dute jarduerak egitea ibai-ibilguak eta badiak birgaitzeko eta hobetzeko, ingurunea lehengoratu dituzten kanalizazioak eta jarduerak eginez, hartara, esku hartutako arloetan ingurumen-kalitatea hobetze aldera.

- *Valle de Trápaga-Trapagaranen, Granada ibaiak udalerria zeharkatzen duen ibilbidea bideratzeko obrak burutu dira, gari batean izandako industria-jardueren ondorioz narriatuta zegoen gunea bat lehengoratu da, bilerak eta aisialdiko jarduerak egiteko moduko toki bat sortu da udalerriko hirigune finkatuaren ondoan eta ingurumen-aldeetik duen egoera hobetu da.*
- *Lezo-Oiartzunen, Otsamantegiko hondakindegia birmoldatzeko lanekin jarraitu da, eta aurrera egin da Pasaia badiaren birgaitzeko kanak perimetralak egiteko obrekin. Gaur egun ibai-arroko 2.355 m birgaitu dira, eta Arditurri eta Otsamantegi ibaietan arrainak atzeman dira.*

Horrez gain, udalerri batzuek saneamenduko eta hornidurako azpiegiturak hobetu edo garatu dituzte, hartara, ibaietara hondakinik zuzenean isur ez dadin. Bestetik, hainbat udalerriko landa-eremuetako auzoetan zerbitzuko sareak jarri edo hobetu dira.

- *Mungian, 110 argi jarri dira udalerriko 10 landa-gunetan.*
- *Karrantzan, ur-hornidurako eta saneamenduko sareko 12 km berritu edo sartu dira, eta, horrenbestez, ingurunea hobetu da eta udalerriko biztanleen bizitzakalitatea ere bai.*

Hiri-guneei dagokienez, hobekuntza nabarmenak egin dira, eta horiek oso eragin ona izan dute biztanleengan, narriatutako zeuden hiri-guneak birgaitu baitira, espazio libre berriak sortu baitira eta, era berean, udalerriko merkataritza- eta zerbitzu-jarduerak bultzatu baita.

- *Eibarren, Matsaria izeneko alderdia urbanizatzeko eta konpontzeko jardueraren barruan, eraikinak eraitsi dira 2000 m²-ko azalera batean, eta, horrez gain, etxebizitzak bota dira 678 m²-ko beste azalera batean. Gaur egun, alderdia urbanizatzeko lanak egiten ari dira, hain zuzen, aurrez ikusita zeuden jardueren %75 betearazi da.*
- *Elgoibarren, Aita Agirre eta Leku-Eder plazak ingurumen-aldeetik hobetu dira, espazio publikoko 5.400 m² hobetu dira eta hiri-altzari berriak sartu dira bi arlo horietan, hiriaren irudia hobetze aldera.*
- *Donostia-Altzan, Harri Berri auzoa eraberritzeko jarduerak integratu egin da, eta, hala, 19.444 m²-ko azalera berritu da, hiriaren irudia hobetzeko eta*

oinezkoentzako edo koexistentziako guneak sortzeko. Era berean, ur-hornidurako eta saneamenduko sareak berritu dira.

- **Ondarroan**, espazio libre gehiago utzi da udalerrrian hiru helburu hauek lortze aldera: Kamiñalde hirigunera eta hirigune historikora iristeko sarbidea erraztea, hirian dagoen bereizketa gainditzea Kamiñazpi gainerako hiriguneei lotuz, eta lurzoru libre uztea 90 gizarte-etxebizitza eraikitzeko.
- **Pasaian**, pabiloiak eraitsi dira 10.000 m²-ko azalera batean, bai eta 7 etxebizitza eta negozioko lokalak zituen 5.000 m² ere, hiri-ingurunea hobetzeko eta lurzoru hori berreskuratu eta olgeta-gune gisa prestatzeko eta enpresa-ekimenak bertan jartzeko.
- **Barakaldo Lutzanan** 16.750 m²-ko azalera urbanizatu berri da, eta auzoko oinarritzko azpiegiturak hobetu dira, esate baterako, saneamendua, argiteria, eta hiri-hondakin solidoen bilketa. Era berean, urbanizatutako alderdia era nabarmen hobetu da estetika aldetik (kalitatea, materialak, lorategiak, hiri-altzariak, etab.), eta, horrenbestez, auzokoen bizitza-kalitateak hobera egin du.
- **Leioan** udal-eskubideei uko egin ahal izan zaie (aprobetxamenduaren lagapenaren %10, hainbat milioitan balioetsita zegoena) Lamiako-Txopoeta aldean 439 etxebizitza berri eraikitzeko (babes ofizialeko 169 etxebizitza eta 270 etxebizitza libre). Eskubide horiei uko eginez, etxebizitzaren gabeziarekin amaitu nahi da, egoiliar berriak erakarri nahi dira horra, eta, azken batean, alderdi horretako biztanleen bizitza-kalitatea hobetu nahi da, udalerriko gainerako lekuetan dauden bizitza-kalitateko estandarrei egokituta.

Era berean, ekipamenduak hornitzeko eta ingurumen-aldeko kontzientziazioa bultzatzeko egin diren jarduerak nabarmendu behar ditugu; hala, udalerrri batzuetan, hainbat jarduera adostu da interpretazio-zentroak eta prestakuntza-zentroak sortzeko, era horretan, biztanleak sentibilizatzeko ohiturak aldatu beharra dagoela ingurumena babestuko badugu, eta, horrez gain, aditzera emateko zein garrantzitsua den ingurunea gure bizitzan.

- **Errenterian**, eraikin bat egin da natura interpretatzeko zentroa jartzeko, eta era horretan espazio publikoko 120.659 m² hobetu dira.
- **Zegaman**, zura interpretatzeko zentro bat zabaltu da (Andutza Interpretazio Zentroa); zentro hori lehen mailako erakarpen turistiko bilakatu da, eta gero eta bisitari gehiago ditu egunetik egunera.

- *Gernika-Lumon, lanean jarraitu da Ingurumenaren Interpretazio Zentroa eraikitzeke dauden oztopoak gainditze aldera.*

Izarturen bigarren deialdiaren baitan diruz lagundutako programei dagokienez, hauxe dugu pisu handiena duen helburua, helburu honen baitako proiekturen bat aurkeztu duten udalerrien kopuruari begira nahiz diruz lagundutako jardueren kopuruari edo horien inbertsioari begira. Ildo horretan, 280.645 m² inguruko azalera landu eta birgaitu. Azalera horren ia erdia (130.000 m²) libratutako eta berriz egokitutako espazio publikoa da, natur ingurunekoa nahiz hiri-ingurunekoa (oinezkoentzako azalera, plazak, lorategiak, parkeak...). Horrez gain, 68 sare eta zerbitzu hobetu dira.

Helburu honetan multzokatutako jarduerak askotarikoak diren arren, iraunkortasunaren alde egitea eta ingurunea zaintzea helburu duten proiektuak izatea dute ezaugarri. Hori dela eta, ingurunea zaintzea eta herritarrak ingurumenaren inguruan kontzientziazatzea dute helburu herrietan kaleak, auzoak, espazio irekiak eta azpiegitura anitzak berriz urbanizatzen eta birgaitzen eta ingurumenaren ikuspegitik narriatutako inguruneak eta eremuak leheneratzen bideratutako ekintzek, hiriaren irudia hobetzeaz gain.

- *Hala, **Antzuolan** hirigune zaharra urbanizatzeko lanei ekin zaie; hor, zerbitzu publikoak hobetu zaizkie Buztinzuri kaleko biztanleei, hornidura- eta saneamendu-sare guztiak berriro baitira, argiteria-, energia- eta telefonia-sareak lurperatu baitira, eta telekomunikazioko zerbitzu berriak sartu baitira. **Lekeition** hirigune historikoa eraberritzeko esku-hartze integralari ekin zaio.*
- *Era berean, 2005eko ekitaldian hainbat jardura egin da kaleak eta auzoak berriz urbanizatzeko **Astigarragan** (Mundarro aldea), **Arrasaten** (Makatzena eta Sta. Teresa auzoak) **Ataunen** (San Gregorio plaza), **Durangon** (San Fausto auzoa), **Errenterian** (Olibet/Etxe berriak), **Eskoriatzan** (Santa Marinako birpartzelazioa), **Ibarran** (San Inazio auzoa eta Emeterio Arrese parkea), **Hernanin** (Elizatxo eta La Cumbre auzoak) **Legazpin** (Arantzazu, San Inazio, Laubide), **Mallabian** (Mikel Zarate kalea), **Markina-Xemeinen** (Osteko eta Arretxinaga kaleak), **Orion** (Iturbide, Pelotari, Abeslari eta Balea kaleak), **Portugaleten** (Alonso Allende), **Sopuertan** (Carral-go herriko plaza, Mercadilloko plaza eta Jasokunde Ama Birjinaren elizaren ingurua), **Soraluze-Placencia de las Armasen** (Arraikua), **Trucios-Turtziozen** (Muñonesko gizarte-arloa) eta **Zeanurin** (San Isidro kalea). Jardura horien barnean, oinarritzko azpiegiturak berriro dira (edateko ura, saneamendua, telefonia, hornidura*

elektrikoa, etab.), arloak berriz urbanizatu dira (35.700 m²) eta espazio publikoak, plazak, lorategiak, espaloiak eta horrelakoak prestatu dira (15.000 m²), hiri-altzari berriak jarri dira (argiteria publikoa, aparkalekuak, haur-jolasak...), eta irisgarritasuna hobetzeaz gain oztopo arkitektonikoak kendu dira.

Ildo berean, beste udalerri batzuek intenbide zehatzagoak aurkitu dituzte iraunkortasuna bermatzeko: udal-zerbitzuak eta -azpiegiturak berritzea (saneamendua, ur-hornidura, argiteria), irizpide ekologikoei jarraiki.

- **Artzentalesen**, udalerraren zati bati zerbitzu egiten dion saneamendu-sarea eraberritzeko lanak amaitu dira; hain zuzen, Santa Cruz auzunean eta inguruan. Jarduera horren bidez, hainbat hondakin ez dira gehiago ibaira isuriko eta biztanleek kalitatezko edateko ura edukiko dute eskura.
- **Bilbo Zaharrean**, edateko uraren hodiak ordeztu eta hobetu dira, eta estolderiakoak ere bai; horrez gain, espaloiak zabaldu dira eta zoladura berria jarri da San Frantzisko, Bailen, Maiatzaren Bia, Castillo Generala, Hernani eta Lamana kaleetan; guztira, hornidurako hoditeriako 11.649 metro eta saneamenduko hoditeriako 1.127 metro jarri dira.
- **Otxandion**, gasifikazio- eta urbanizazio-lanak bukatu dira Elizabarri aldean, urbanizazio berriko 3000 m² lortuz; hala alderdi hori gas-hornidura, saneamenduak eta zerbitzuak ditu, ibilgailuetarako sarbideak hobetu dira eta oztopo arkitektonikoak ezabatu dira.

Amaitzeko, hainbat jarduera egin da garapen iraunkorra bultzatzeko, pasealekuak, parkeak, bideak eta ingurune naturalaz gozatzeko ekipamenduak sortuz, eta, era berean, natur inguruneak eta parajeak leheneratuz eta hobetuz.

- Hala, **Hernanin**, bidegorrien bi tarte berri egin dira, 1.863 m linealeko luzerakoak. **Azpeitian**, mugigarritasun iraunkorrerako plana amaitu da eta buru eman zaio Urolako bide ziklistaren ibilbideari; horrela, bidegorri bat eta oinezkoentzako pasabide bat egingo dira hirigunean.
- **Lasarte-Orian**, arrainen behatoki naturala sortu da, eta ingurune natural bat egokitu da hirigune erdian, 750 m²-ko azalerakoa. Brunet parkeko ingurumen-arloko zuzkidurak eta berdeguneak ugaltu dira, naturaz gozatzeko, eta sarbideak konpondu dira, alderdi horretan ongi pasatu ahal izateko. Era berean, **Sestaon**, Sol eta Vicente Díaz parkeak eta Los Baños kalea berriz urbanizatu


*dira, eta 130 m²-ko azalera duen espazio publikoa birgaitu da; guztira, parkeko 221 m² prestatu dira eta sarbideetako 121 m² hobetu dira. Horrez gain, saneamendu- eta argiteria-sareak eraberritu dira, eta eraikuntza-oztopoak kendu dira. **Iurretan**, 750 m²-ko azalera eta 10 m²-ko berdeguneak prestatu dira aisialdirako; guztira 850 m² oinezkoentzako gunek bilakatu dira, aurriak kentzeko, parkeak sortzeko eta irisgarritasuna hobetzeko jarduerak eginez.*

- ***Vitoria-Gasteizen**, Zadorra ibaiaren ingurunea ekologia- eta- paisaia-aldeetik egokitzeko eta erabilera publikorako prestatzeko jarduera bat egin da; horren bidez, Atxa-Landaberde izeneko parke berria sortu nahi da lehen laborantzako finkak, kontrolatu gabeko isurketak eta legez kanpoko baratzeak zeuden alderdi batean. 173.000 m²-ko azalera egokitu da ingurune naturalean, eta hala, urbanizatzear gain, bideak, sareak, hornidurak eta hainbat landare-mota jarri dira.*
- ***Amorebieta-Etxanon** ingurumen-arloko azpiegitura era nabarmenean hobetu da; izan ere, Tantorta erreka bideratu da, eta hala ibilgu horretan izaten diren uholdeak saihestu ahal izango dira, horren eraginpean dagoen eremuaren bizigarritasuna hobetu da, eta bertan dauden enpresen produktibitatea ere bai.*
- ***Ibarran** ibiltoki bat egin da ibaiaren aldamenean; eta horixe bera egin da **Balmasedan**: Martin Mendia ibiltokiko Hiri Ordenazioko jardueraren bitartez bizitza-kalitatea eta hiriko ingurumena asko hobetu da (7.334 m²-ko azalera birgaitu da eta 1.515 m²-ko azalera berria prestatu da, eta, horrez gain, sareak eta hornidurak berritu dira).*

5.2.4. Enpresaburuak, ETEak, turismoa eta udal-ondarea babestea:

2001-2005 aldirako Izartu programan, helburu honen baitako jarduerak guztiak asko aurreratu dituzte lehen Izartu programaren onuradun izan zirenek, lortu nahi ziren emaitza eta eraginei begira. Gehiago aurreratu direla eta, bereziki azpimarragarriak dira turismoa sustatzearekin zerikusia duten jarduerak, baita merkataritza-sektorea babestera eta ekonomia-jarduerarako azalera egokitzea bideratutakoak ere. 2004-2008 aldirako Izartu programei dagokienez, berriz, helburu hori atzeratuago geratu da; ikusten diren aurrerapen bakanak merkataritzako jarduerari laguntzeko jardueretan eta, neurri txikiagoan, jarduerak garatzeko azpiegiturei lotutako jardueretan daude.

31. Grafikoa: Ekonomia-jarduerak. Aurrerapena jardueren tipologiaren arabera. 2001-2005.



Azpimarratzeko modukoak izan dira Izartu I programan lorturako emaitzak: 40.000 m²-ko azalera gaitu da produkzio-jarduerak garatzeko, 35 ekipamendu, eta 46 pabilioi eta lokal eraiki eta/edo berregokitu dira, 73 enpresa-ekimenei eman zaie laguntza, 133 modulu, ikastaro edo lantegi antolatu dira, eta 4.000 lagunek hartu dute parte prestakuntza-ikastaroetan (3.818 lagunek jaso dute prestakuntza) eta aholku-jardueretan zein enplegu-programetan (300 lagunek), 1.110 lanpostu berri sortu dira,

...

Ildo horretan, 2005. urtean egin diren hainbat jardueraren bidez, euskal udalerrietan enpresa berriak sustatu dira eta enplegua sortu nahi izan da, eta, hala, xede horretarako behar den prestakuntza eta bitartekoak eskaini dira.

- **Mutrikun**, enpresa berriak sortzeko edo kontratuak hobetzeko emandako laguntzen bidez, kontserben sektorea (horixe baita Mutrikuko jarduera ekonomiko nagusia), enplegu prekarioko sektorea izan arren, langile guztiek bitarteko lan-kontratuekin aritzen baitziren, orain kontuak nabarmen aldatu dira eta langile gehienek kontratu finkoekin jarduten dute.
- **Amurrion**, 2005eko ekitaldian hainbat ikastaro izan dira ekintzaile eta profesional berrientzat, eta horrek enpresa berriak eratzeko eta lanpostuak sortzeko aukera eman du.
- **Santurtzin**, 2005eko ekitaldian hirigintza biziberritzeko enplegu-tailer bat (lorenzaintzakoa) antolatu da, eta, horri esker, hainbat pertsona lan-munduan txertatu da.

Era berean, udalerri batzuetan interes turistikoko eraikinak eta guneak eraberritu dira, hartara, turismo-arloko eskaintza izateko eta, era berean, sektore horri bultzada emateko. Bestalde, lehenetasuneko zenbait gune egokitu dira turismo berdea sustatzeko, eta, hala sarbide eta ibilbide zaharrak birgaitu dira, hala nola mendi ibilietarako bidezidorrak.

- **Urduña-Orduñan**, Aduanaren eraikin historiko eraberritu dute, eta hotel-balneario gisa egokitu dute; hala, udalerriko erakarpen turistikorik handiena bilakatu da.
- **Alonsotegin**, baso-etxe zaharra eraberritu da eta gazteentzako aterpetxe gisa egokitu da. Bestetik, udalerrian zeuden basoko bide zaharrak birgaitu dira, mendi-ibiliak egiteko bidezidor gisa paratze aldera. Gainera, olgeta-gune bat prestatu da Zamundi aldean.
- **Zegaman**, Arakama Azpikoa errota zaharberritu da, eta, horrenbestez, udalerriak ere ondare historikoaren osagai garrantzitsu bat berreskuratu du. Era berean, Herriko Ostatua eraberritu da. Azpiegitura berri batzuk prestatu dira, hala nola, ostatua, errota eta interpretazio-zentroa, eta, horrenbestez, udalerria erakarpen turistikoa da natura eta ingurune horrek dituen aukeraz gozatu nahi duten pertsonentzat.

Azkenik, nabarmendu behar dira ekonomia garatzeko eta, azken batean, udalerrian enplegua sortzeko azpiegiturak sortu dituzten jarduerak.

- **Karrantzan**, enpresen mintegi bat egin da, enpresa berriak sustatuz (guztira, 4) jarduera ekonomikoa indartze aldera; hala, lehen ez zegoen industria-azpiegiturarik udalerrian, baina orain industrialde berriak daude, herriko 100 langile inguru dituzte, eta, beraz, okupazio-tasaren ehunekoak gora egin du, hala gizonena nola emakumeena.
- **Basaurin**, Enpleguko Ekimenen Zentroak eta Enpresen Mintegiak zerbitzu osoa eskaintzen die enpresa-arloko ekimen berriak dituzten pertsonei, eta, horretarako, informazioa, prestakuntza, banakako aholkularitza, informazio-iturrietara iristeko sarbidea, enpresen mintegira iristeko sarbidea, eta jarraipena eta aholkularitza eskaintzen dizkie, eratu berriak diren enpresak finkatzen laguntzeko.
- **Zegaman**, bi pabiloi berri eraiki dira industria-jarduera garatze aldera (11.441 m²).
- **Zaldibian**, sarbide bat egiten ari da, ibilgailu astunek industrialdera iristeko modu egokiagoa izan dezaten.
- **Bilbo Zaharrean**, **Basaurin**, **Muskizen** eta **Balmasedan**, aurreko urteetan, hainbat jarduera hasi ziren merkataritza biziberritzeko, eta, ildo horretan, merkataritzako lokalak birgaitzeko, saltokiei laguntzak emateko, eta merkataritzako gunek eta kaleak oinezkoentzako gune bilakatzeko laguntza-programak antolatu ziren.

Lehen esan bezala, Izartu-ren bigarren deialdiko programei dagokienez, helburu hori zertxobait atzeratuta dago, gainerako helburuek duten aurrerapen-erritmoarekin parekatuta. Bost jardueretan baizik ez dira aurrerapenik izan, eta horietako lauk merkataritzako jarduerari laguntzeko jarduerak dira.


- **Ugao-Miraballesen**, aurrerapen handiak egin dira Usila industrialderako izango den aparkalekua eraikitzeko lanetan eta, horrez gain, parking-alderdiko obrak burutu dira (de 350 m²); hori lagungarria izango da industrialde horretara iritsi ahal izateko eta hirigunetik igarotzen diren ibilgailuen zirkulazio handia arinduko du.
- **Zallan**, udalerriko gune garrantzitsuenetako bat urbanizatu da. Hortaz, hiriaren irudia hobetzeaz gain, era nabarmenean birgaitu da udalerriko biztanle askok gizarte- edo merkataritza-kontuetarako egunero baliatzen duten gune bat.

- **Mutrikun**, aurrerapenik handiena hiria edertzeko gauzatu den proiektua izan da. Jarduera horrek eragin handia izan du herritarrengan, eta aukera handiak sortu ditu merkataritza garatzeko; izan ere, jarduera txiki ugari egin dira, esate baterako, hirigune historikoko hiri-altzari gehienak ordezkatu dira, lurperatutako edukiontziak jarri dira, fatxadak zaharberritzeko laguntzak eman dira, ...
- **Mungian**, Butroi kalea oinezkoentzako gune bilakatu da; jarduera honek hasieran kezka ugari sortu zituen alderdi horretako merkatariegan, baina, azkenean, oso harrera ona egin diote merkatariek eta, bereziki, oinezkoek, aisiarako gune bat berreskuratu dutelako. Kalearen irudia %100 hobetu da. Horixe bera gertatu da **Iurretan**, Amilburu plaza zabaltzeko lanen bidez..

5.2.5. Hiriaren irudia eta egoera hobetzea:

2001-2005 aldirako Izartu programari dagokionez, hauxe da jarduera-kopuru eta inbertsiorik handiena beretu duen helburua. Helburu honetan barne hartutako jarduerak askotarikoak dira: berriz urbanizatzeko eta hiri-azpiegiturez hornitzeko ekintzak (auzoak eta kaleak berriz urbanizatzeko lanak eta zerbitzu- eta hornidura-sareak berritzea); hiriaren irudia hobetzeko proiektuak (eraikin bereziak, herrigune historikoak, etxebizitzak eta fatxadak) birgaitzea eta espazio eta ekipamendu publikoak hobetzera eta horiek gehiago erabiltzera bideratutako hainbat jardura (kaleak oinezkoentzat bihurtzea, hurbilerraztasunaren inguruko programak eta abar). Aurreko urtean bezalaxe, hiriaren irudia hobetzeko jarduerak garatu dira gehien. Horien ondotik ditugu berriz urbanizatzeko eta hiri-azpiegiturak berritzeko jarduerak. Aitzitik, Izartu II programan, helburu horretan aurreratu den jarduerak berriz urbanizatzeko eta hiri-azpiegiturak berritzeko jarduerak dira.

32. Grafikoa: Hiri-kalitatea eta -ingurunea. Aurrerapena jardueren tipologiaren arabera. 2001-2005.



2001-2005 aldiko Izartu programetan, 324 eraberritze-lan egin dira (etxebizitzetan eta eraikinetan), gutxi gorabehera 60.000 m²-ko azalera urbanizatu da berriz, zerbitzuko sareen 22.000 m lineal baino gehiago berritu dira, 8.000 m lineal oinezkoentzako gune bilakatu dira, hirigintzako oztopoak kendu dira eta zenbait ekipamendutara heltzeko irisgarritasun-baldintzak hobetu dira 12 udalerritan.

Ildo horretan, herri eta hiri askoren irudia goitik behera aldatu da onerako, kultura- eta ekonomia-aldeko erakarpenean lortu da, eta bertan bizi direnen ongizatean eta bizitza-kalitatean eragina duten hirigintza-baldintzak hobetu dira. Hiriguneetako birgaitze-lana (galtzadak, oztopoak kentzea eta irisgarritasuna hobetzea, zerbitzuko sare berriak,...) behar bezala gauzatu da udalerrri onuradunen auzo eta erdiko gune askotan (narriatutako hiriguneak, hirigune historikoak,...), eta horrek eragin ugari du jarduera ekonomikoan, hautematen den aurrerapenak areago pizten baitu.

- **Elgoibarren** jarri den Birgaitze Zerbitzuak informazio eta aholku tekniko eta ekonomikoa ematen die alderdi zaharrenean etxebizitza duten eta birgaitzeko obrak egin nahi dituzten jabeek, eta, horrez gain, laguntzen izapideak ere egiten dizkie.. Programa horren bidez, 2005eko ekitaldian 63 espediente izapidetu dira fatxadak, teilatuak eta etxebizitzak birgaitzeko.
- **Donostia-Altzan** 2005ean 16 fatxada, 7 teilatu, patio 1, oztopo arkitektonikoak zituzten atarietara heltzeko 6 sarbide eta 27 etxebizitza eraberritu dira; **Donostia-Loiolan**, berriz, teilatu 1, 4 fatxada, patio 1, 2oztopo arkitektonikoak zituzten atarietara iristeko 2 sarbide eta 12 etxebizitza birgaitu dira.
- **Arrigorriagan** Ollargan auzoa birgaitzeko obrak burutu dira, eta horren gaineko balorazioa oso ona izan da; izan ere, hiriaren irudia hobetzeaz gain, gizarte-arloko hainbat azpiegitura ezarri dira auzoan. Guztira, 8325 m²-ko azalera urbanizatu da, eta, aldi berean, 5000 m²-ko gunean espazio libreak utzi dira.
- **Bermeoko** alde zaharrenean ikastetxe zaharra bota da, eta gizarte eta kulturarako eraikin berri bat egin da; horrenbestez, narriatuta zegoen ingurune hori birgaitu da, kokapena dela-eta (alde zaharra) bananduta geratzeko arriskua baitzegoen. Proiektuan alderdia oinezkoentzako gune bilakatzeko aukera aztertuta da, eta lagungarria izango da kirol-portu berriak izango dituen beharrak betetzeko azpiegiturei begira.

Hiriaren irudia edertu da, etxebizitza eta eraikin bereziak birgaitzeko hasi diren lanen bidez eta jarri diren hiri-ekipamendu berrien bitartez (ibiltokiak, plazak, lorategiak), eta, horrez gain, hobekuntzak egin dira hiriko azpiegiturretan; hala, oparotasun-zentzazioa piztu da, eta, izan ere, horixe da zutabe edo eragile nagusia gune horiek gizarte- ekonomia- eta hiri-aldetik biziberritzeko.

- **Irunen** Behobiako ibaiertza lehengoratzeko lanak hasi dira, Aduana zaharraren eraikinaren inguruan; hala, hiritarren eta Behobiako gunekoen erabilera publikorako prestatu nahi da.. Obra burutu gabe dago oraindik, baina 10.500 m²-ko espazio librea prestatu da.
- **Ordizian** hainbat jarduera egin dira ingurunea eta hiriko gunek hobetzeko, eta honako hauek bukatu dira: Santa Maria kalearen eta Nikolas Lekuona plazaren urbanizazioa, Kale Nagusiaren urbanizazioa, Plaza Nagusiaren urbanizazioa, hiriguneko "almendra" delakoaren urbanizazioa eta Santa M^a Etxezarretako pasabidearen urbanizazioa.
- **Urretxun** egin diren jarduera gehienak hiriaren irudia eta kalitatea hobetzeko izan dira. Hala, gehienak bukatu dira, eta emaitza onak izan ditu: udalerrian espazio publikoak, lorategiak, oinezkoentzako gunek, bide berriak jarri dira... (1.530 m²-ko espazio publikoa berreskuratu da, sare eta zerbitzuetako 1000 m lineal berritu dira, galtzaden 860 m² eta espaloien 390 m² eraberritu dira,..).
- **Balmasedan**, Izartu I programa amaitu da, eta emaitza onak izan ditu: San Lorenzo auzoa, Martin Mendia kalea eta bi kantoï, Hedegile kalea eta bi kantoï, Pio Bermejillo eta Aldapa kalea zolatu dira (9.194 m²-ko espazio publiko libre utzi dira, 1.512 m linealeko bideak eta espaloiak, 7 eraikin berri egin edo eraberritu dira, 41 etxebizitza eraiki edo zaharberritu dira).
- **Erandion**, Altagako hiriguneko merkataritzako kale nagusi batzuk oinezkoentzako gune bilakatu dira (Obieta-Jado-Ibarra kaleak). Hala, 22.344 m² urbanizatu dira guztira, 5.845 m² birgaitutako galtzadan eta espaloietan, 510 m lineal oinezkoentzako kaleetan eta 1.227 m lineal bideetan.

Ondoko udalerrietan nabaria izan da hiri-zerbitzuak eta azpiegiturak (hornidura-sareak eta zerbitzuak) berritu eta berriz urbanizatu direla:

- **Güeñesen**, Elubarri auzoa urbanizatzeko lanak amaitu dira.. Hala honakoak gaitu dira: ibilgailuen bideetako 2.352 m², oinezkoen bideetako 1.451 eta zerbitzu- eta hornidura-sareetako 3.950 m lineal.
- **Galdakaon**, aurrera egin da Usansolo hirigunea birgaitzeko lanekin; izan ere, aurten burutu dira urbanizatzeko lanak eta zabaldu da Ander Deuna, Ibaiondo eta Pertzin kaleen arteko lotura: espaloien 9.641 m², bide berrien 265 m lineal eta sareen 3.972 m lineal birgaitu dira.

- ***Tolosa**, hiriaren eta, bereziki, alderdi zaharraren irudia hobetzeko lanen artean, honako hauek nabarmendu behar dira, horietan izan baitira emaitzarik bikainenak: bi kale eta bi plaza eraberritu dira alderdi historikoan daudela aintzat hartuta, eta hiriaren irudia era nabarian hobetu da.*

2004-2008 aldiko Izartu programen deialdiari begira, **20.000 m²-ko azalera berriz urbanizatu da auzoetan eta erdiko alderdietan, eta bide, zerbitzu eta horniduretako 6.500 m lineal berritu dira.**

- ***Zegaman** hiriaren irudia hobetzeko lana oso nabaria da, elizan, Kulturetxean eta udaletxean kanpoko argiteria berriztatu baita, ondarea nolabait nabarmentze aldera. Udaletxeko plazan, asfaltoa jartzeko, urbanizatzeko, oinezkoentzako gune bilakatzeko, eta sareak eta hiri-altzariak berritzeko lanak egin dira, eta, horrenbestez, hirigunea era ikusgarrian birgaitzen eta nabarmentzen ari da, berriz urbanizatutako 700 m²-ko azalera hobetu baita.*
- ***Zierbenan** ere ahalegin handia egiten ari dira hiriaren irudia hobetze aldera. Hala, pasabide berria egin da hondartzara iristeko, eta aurrera egin da zuhaitzen hesi bat jartzeko, hartara, portuko jardueraren inpaktua nolabait arindu ahal izateko.*
- ***Bergaran**, Harruriaga eta Artekale kaleak birgaitu direnez, udalerriaren irisgarritasuna eta hiri-kalitatea hobetu da (urbanizatutako azalera: 1.075 m²; berritutako sareen luzera: 1.720 m lineal).*
- ***Derion** ere barruko eta kanpoko irudia hobetzeko lan handia egin da, eta hiri-ordenazio koherenteagoa prestatu da, iraunkortasuna aintzat hartuta; hartara, Gernikako Arbola birgaitu da (2.370 m²-ko azalera leheneratu da ibiltokiak, lorategiak, aparkalekuak, espaloiak eta horrelakoak jarrita.)*
- ***Karrantzan** argiteria publikoaren instalazioak hobetu dira, eta obra hori oso onuragarria izan da biztanle guztientzat, energia-aldeko eraginkortasun gehiago lortu baita eta, gainera, Tokiko 21 Agendan jasotako ingurumeneko adierazleak bete baitira (instalazioen 1/3 berritu da, energiaren %20 aurrezten da).*
- ***Elgoibarren** ere aurrerapenak izan dira hiriaren irudia edertzeko, eta, hala, haurrentzako parkeak, lorategiak... jarri dira; horrez gain, Altzola dorretxearen ingurunea eta merkatuko oinezkoentzako pasabidea hirigintza-aldetik birgaitu dira.*


Zerbitzuko eta azpiegiturako sareak berritzeari dagokionez, aurrerapen handiak izan dira zenbait udalerritan; hona hemen zein diren:

- **Abanto-Zierbenan** udalaren hornidura-sarea hobetu da, sareak urik gal ez dezan eta matxurarik egon ez dadin, eta uraren kalitatea bikaina izan dadin; horrek eragin handia izan du biztanleen osasungarritasun-baldintzetan eta ingurumenean.
- Era berean, **Areatzan** Sakramentinoentzako hornidura- eta saneamendu-obrak gauzatu dira, eta obra zibil horren bitartez telefonia- eta argiteria-sare osagarriak jarri ahal izan dira. Horixe bera egin da beste hainbat tokitan: **Arrigorriagan**, Atxukarron, saneamenduko eta hornidurako udal-sareak hobetu eta eraberritu dira; **Artzentalesen**, Santa Cruz-ko auzoan, saneamendu-sarea berritu da; **Igorren**, Elexalde kaleko ur-hornidurako obrak egin dira; eta **Zierbenan** hornidura berriko 2.000 m lineal jarri dira eta horrek biztanleen %50engan eragina izateaz gainera asko murriztu du kontrolik gabeko isurketek sortzen zuten kutsadura.
- **Eskoriatzan** lurpeko edukiontziak jarri dira eta, orain, biztanleen %20k zerbitzu hori balia dezake; gainera irudia nabarmen hobetu da poltsak biltzeko guneak desagertu baitira.

5.2.6. Gizarte, kultura eta laguntzaren esparruko zerbitzuak eta ekipamenduak:

Amaitzeko, 2005ean, helburu honetan barne hartutako jardueren tipologiari jarraiki (ekipamenduak birgaitzea eta/edo eraikitzea eta horiek egokitzea eta gizartearen, kulturaren eta abarren inguruko tokiko zerbitzuak eskaintzea), ekipamendu horiek eraikitzeko lanen ingurukoak dira Izartu I programak izandako aurrerapenik handienak. Izartu II programaren onuradunekin ere halaxe gertatu da, aurrerapen nabarmena egon da-eta.

33. Grafikoa: Ekipamenduak eta zerbitzuak. Aurrerapena jardueren tipologiaren arabera. 2001-2005.



Hala, Izartu I programarekin alderatuta, gizarte- eta kultura-erabilerako 29 ekipamendu eta azpiegitura berri sortu dira, horiek 31.000 erabiltzaile baino gehiago dituzte, 119 lanpostu berri sortu dira jarri diren zuzkidura eta zerbitzu berriei loturik; 16.000 m² eraiki dira eta ingurunean lehengoratu den azalera askoz zabalagoa da.

Giza eta gizarte-garapenerako aukera-berdintasuna areagotzea (batez ere kaltetuen diren taldeen artean), herritar guztiak komunitatean garatzeko aukerak hobetzea eta hirugarren sektoreko jarduera garatzea dira helburu honen baitan antzematen ari garen eragin nagusietako batzuk. Dena dela, eragin horiek kualitatiboak dira, kuantitatiboak baino gehiago, eta epe luzeagoan ikusi ahal izango dira.

Bestalde, dagoeneko ekipamendu berriak erabilgarri dituzten kasuetan, arrakasta xede dituzten erabiltzaileen parte-hartzearen, erabileraren eta asetahun-mailaren arabera

da: adineko, emakumezko, immigrante eta gizartean baztertuta dauden edo baztertuta egoteko arriskua duten pertsonen laguntzeko ekipamendu eta zerbitzuak, gazteentzako, kultur taldeetarako eta oro har herritar guztientzako kultura- eta jolas-hornidurak, hirialdeak biziberritzeko jardueren eragina izango dutenei nahiz laguntza eta programen onuradunei informazioa emateko udal-zerbitzuak, eta abar.

- **Mendaron**, Agustindarren komentuko obrak bukatu dira, eta, hala, udalerrian dagoen kulturako espazioen urritasuna nolabait arinduko da. Era berean, auzoak egoiliarrek erakartzeko osagai bat du orain, eta, horrela, udalerriko beste alderdi batzuetatik bananduta geratzeko dagoen prozesua nolabait motelduko da.
- **Mutrikun**, Izartu programaren bidez, goitik behera aldatu da udalerrria, lehen kultura-arloko ekipamendurik ez baitzegoen, eta orain, berriz, Luardo etxea egokitu da kultura-etxe gisa, musika-eskola bat sortu da eta, gainera, hiltegi zaharrean Gazte Lekua jarri da.
- **Berrizen**, udalaren kultura-etxe berria bukatu da, eta, hala, 1.017,43 m² inguruko azalera prestatu da hainbat kultura-jarduera egiteko (liburutegia,...).
- **Gordexolan**, Santa Isabel komentua birgaitzeko lanak bukatu dira; hala, hainbat ekipamenduz hornitu nahi da, erabilera askotako eraikin gisa baliatzeko, hala nola, gizarte- eta kultura-arloko eta jarduera ekonomikoa sustatzeko jarduerak bertan egiteko. Obraren tamaina dela-eta ezin izan da eraikina ekipatu Izarturen inbertsioaren bidez; alabaina, aurki finantziarioa lortuko dela uste da, eta, beraz, abian jarri ahal izango da. Bestetik, patioan estalkia jarri denez, ekitaldiak antolatu ahal izango dira barruan.
- **Muskizen**, erabilera askotarako eraikina egiteko obrak bukatu dira; eraikin horretan kultura-, ekonomia-, aisia-arloko jarduerak egingo dira; espazioa 3.571 m²-koa da. Gaur egun, aurreikusita zeuden ekipamenduak abian daude, eta 21 lanpostu sortu dira; dena dela, jarduera ekonomikoak egiteko lokalen eskaera handi samarra denez, kopuru hori bikoiztu egingo dela uste da.
- **Loiun**, erabilera askotarako olgeta-, festa- eta kultura-arloko arlo bat urbanizatu eta eraiki da erabilera publikorako. Era horretan kirol-eraikin/hirugarren sektoreko eraikin estalien 1.300 m²-ko azalera prestatu da, eta kultura-arloko azpiegiturako 1.184 m²-ko azalera ere bai. Horrez gain, eraikitako arloaren ingurunea urbanizatu da (espaloia 239 m² eta bideen 956 metro).

- ***Zegaman**, Olanan balio anitzeko zentroa egiteko obrak bukatu dira, eta hor hirugarren adinekoei laguntza emateko zerbitzuak lanean hasi dira, bai eta erretiratuen etxea, Eguneko Zentroa eta babespeko bi pisuak ere.*
- ***Azkenik, Bermeon**, Josefinatarren ikastetxe zaharra bota da eta eraikin berezi bat egin da gizarte- eta kultura-arloko ekipamendu gisa; horrek alderdi zaharra biziberritu du, gizarte- eta kultura-arloko jarduera ugari biltzen baititu udalerriko biztanle guztientzat, eta horrek, gainera, eragin onuragarria izango baitu horko saltokietan, ostalaritzan... Bestalde, aurki, 15 lanpostu inguru sortuko dira kultura-etxearen inguruan (6 kulturako jardueretan eta 9 turismoa sustatzeko eta indartzeko jardueretan).*

Amaitzeko, **2004-2008** aldirako **Izartu** programen onuradun diren udalerriei **dagokienez**, ondorengo jarduerak hartu dira barne helburu honetan: jarduera-eremuak gizarte eta laguntzaren esparruko ekipamenduz hornitzea, hainbat eraikin eta lokal ekipamendu horietarako eraikitzearen, zabaltzearen edo leheneratzearen bidez. **Ekitaldi honetan eta aurrekoan nabarmendu behar dugu 3 ekipamendu berri burutu direla, kultura- eta gizarte-erabilerarako azalera guztira 5.128 m²-koa dela, eta ekipamendu berri horiek 13.000 erabiltzaile baino gehiago izango dituztela aurreikuspenen arabera.**

- ***Derion** Larrabarri baserria birgaitu da eta erabilera anitzeko gune gisa paratu da; hori gertaera garrantzitsua izan da udal-azpiegiturak gaurkotzeko prozesuan. Instalazio berriei esker, herritarrek gizarte-, kultura- eta aisia-arloko era askotako zerbitzuak izango dituzte eskura. Hala, Larrabarri baserriak honako hauek ditu: haurtzaindegia, irakurketa-gelak, bilera- eta hitzaldi-aretoak... dena eraikin berean eta aparkatzeko gune berezi batekin.*
- ***Bergaran** Arostegi etxea egokitu da erakusketa-areto gisa, 382 m² prestatu dira ekipamendu horretarako eta, gainera, arte-, kultura- eta monumentu-aldetik interesgarritzat jo den eraikin bat eraberritu da.*
- ***Igorren** kultura-etxe berria eraiki da; 3.566 m² ditu hiru solairutan banaturik. Eraikinak ekitaldi-areto handia du antzezlanak eskaini ahal izateko, eta 174 m²-ko agertokia eta 132 m²-ko erakusketa-gela ere baditu. Bestalde, 8 jardueramota desberdin egin nahi dira bertan, eta aurreikuspenen arabera 11 lanpostu berri sortuko dira.*



- *Azkenik, **Elorrión**, liburutegia eta kultura-etxea egiteko lanak hasi dira obraren proiektua buruturik, eta proiektua gauzatzeko lanak prestatzen ari baitira; hori lagungarria izango da herritarrei eskaintzen zaizkien gizarte- eta kultura-arloko zerbitzuak areago garatzeko.*



1. ERANSKINA
IZARTU programaren
finantza-koadroak

2001-2005 aldiko Izartu programak		GUZTIZKO INBERTSIOA	% DIRU-LAG.	DIRU-LAGUNTZA	BIZTANLE ONURADUNAK	INBERTSIOA BIZTANLEEN ARABERA	GASTUAREN PLANGINTZA ETA BETEARAZPENA																						
							2001. URTEA			2002. URTEA			2003. URTEA			2004. URTEA			2005. URTEA			METATUTAKO GASTUAREN % GUZTIZKO INBERTSIOAREN ARABERA	2006. URTEA	2007. URTEA					
							BETEARAZPENA			BETEARAZPENA			BETEARAZPENA			BETEARAZPENA			BETEARAZPENA										
							PLANGINTZA	GUZTIZKOA	% 2001EKO PLANGINTZARI DAGOKIONEZ	PLANGINTZA	GUZTIZKOA	% 2002KO PLANGINTZARI DAGOKIONEZ	PLANGINTZA	GUZTIZKOA	% 2003KO PLANGINTZARI DAGOKIONEZ	PLANGINTZA	GUZTIZKOA	% 2004KO PLANGINTZARI DAGOKIONEZ	PLANGINTZA	GUZTIZKOA	% 2005EKO PLANGINTZARI DAGOKIONEZ								
GUZTIZKOA							218.322.884 €	%66	148.645.827 €	341.836	549 €	32.820.125 €	14.059.337 €	%43	78.489.083 €	34.506.892 €	%44	65.611.992 €	46.280.193 €	%71	47.527.316 €	32.547.185 €	%68	43.226.331 €	42.515.904 €	%98	%78	32.092.591 €	7.971.968 €
ARABA	9.327.739 €	%75	6.995.805 €	29.447	317 €	1.189.996 €	64.848 €	%5	3.202.026 €	789.117 €	%25	2.806.298 €	1.586.829 €	%57	2.837.116 €	1.341.425 €	%47	2.932.922 €	2.618.442 €	%89	%69	- €	- €						
Kantauri Arabarra	9.327.739 €	%75	6.995.805 €	29.447	317 €	1.189.996 €	64.848 €	%5	3.202.026 €	789.117 €	%25	2.806.298 €	1.586.829 €	%57	2.837.116 €	1.341.425 €	%47	2.932.922 €	2.618.442 €	%89	%69								
AMURRIO	4.663.869 €	%75	3.497.903 €	9.753	478 €	208.084 €	64.848 €	%31	1.046.507 €	352.771 €	%34	1.287.159 €	996.220 €	%77	1.804.126 €	1.111.479 €	%62	1.777.922 €	1.630.790 €	%92	%89	360.630 €							
LAUDIO	4.663.869 €	%75	3.497.902 €	19.694	237 €	981.912 €	- €	-	2.155.519 €	436.346 €	%20	1.519.139 €	590.609 €	%39	1.032.990 €	229.946 €	%22	1.155.000 €	987.652 €	%86	%48	1.029.690 €	1.222.279 €						
GIPUZKOA	67.095.780 €	%58	42.213.190 €	102.639	654 €	8.713.853 €	5.760.085 €	%66	23.301.491 €	12.731.817 €	%55	21.628.541 €	15.059.184 €	%70	10.026.875 €	7.449.988 €	%74	13.706.476 €	15.671.824 €	%114	%84	11.334.428 €	1.130.207 €						
Bidasoa Behea	6.053.627 €	%50	3.026.814 €	4.257	1.422 €	1.178.809 €	667.451 €	%57	4.484.520 €	2.379.040 €	%53	517.260 €	1.901.541 €	%368	- €	19.263 €		629.912 €	510.301 €	%81	%90	475.683 €	- €						
IRUN	6.053.627 €	%50	3.026.814 €	4.257	1.422 €	1.178.809 €	667.451 €	%57	4.484.520 €	2.379.040 €	%53	517.260 €	1.901.541 €	%368	- €	19.263 €		629.912 €	510.301 €	%81	%90	475.683 €							
Debabarrena	21.210.263 €	%75	15.907.697 €	29.413	721 €	2.872.952 €	2.262.289 €	%79	5.979.763 €	4.154.187 €	%69	6.130.121 €	3.903.341 €	%64	3.537.415 €	2.880.793 €	%81	4.824.274 €	4.477.482 €	%93	%83	2.794.539 €	329.962 €						
DEBA	2.421.263 €	%75	1.815.947 €	5.127	472 €	159.268 €	158.620 €	%100	96.810 €	129.053 €	%133	646.088 €	1.373.140 €	%213	986.955 €	273.242 €	%28	- €	- €		%80	204.200 €	283.008 €						
EIBAR	3.496.962 €	%75	2.622.721 €	4.274	818 €	138.855 €	49.764 €	%36	367.241 €	43.093 €	%12	801.349 €	22.379 €	%3	16.784 €		%100	1.517.987 €	1.121.673 €	%74	%36	1.800.000 €	46.954 €						
ELGOIBAR	3.411.395 €	%75	2.558.546 €	10.732	318 €	- €	- €	-	1.202.024 €	1.004.572 €	%84	1.041.754 €	42.254 €	%4	376.069 €	333.195 €	%89	1.370.925 €	1.124.922 €	%82	%73	660.449 €							
MENDARO	2.688.307 €	%75	2.016.230 €	225	11.948 €	780.207 €	323.291 €	%41	1.098.796 €	343.263 €	%31	914.247 €	966.744 €	%106	397.111 €	430.794 €	%108	627.523 €	860.457 €	%137	%109								
MUTRIKU	3.587.230 €	%75	2.690.423 €	4.774	751 €	877.478 €	813.469 €	%93	939.345 €	939.345 €	%100	1.278.208 €	584.092 €	%46	435.113 €	833.367 €	%192	413.958 €	475.612 €	%115	%102								
SORALUZE-PLACENCIA DE LAS ARMAS	5.605.106 €	%75	4.203.830 €	4.281	1.309 €	917.144 €	917.144 €	%100	2.275.547 €	1.694.861 €	%74	1.448.475 €	914.732 €	%63	1.325.382 €	993.447 €	%75	893.881 €	894.818 €	%100	%97	129.890 €							
Ekialdeko ingurabidea	13.450.938 €	%75	10.088.204 €	28.617	470 €	945.993 €	227.695 €		3.941.710 €	1.929.947 €	%49	3.148.890 €	2.336.813 €	%74	3.495.830 €	1.219.611 €	%35	2.398.872 €	3.680.748 €	%153	%70	4.731.463 €	606.535 €						
ERREENTERIA	4.483.333 €	%75	3.362.499 €	20.194	222 €	318.536 €	227.695 €	%71	1.147.004 €	1.241.405 €	%108	1.065.363 €	1.322.773 €	%124	733.777 €	429.384,85 €	%59	377.419 €	883.781 €	%234	%92	550.425 €	334.231 €						
LEZO OIARTZUN	4.035.752 €	%75	3.026.814 €	5.753	702 €	195.930 €	- €	-	938.781 €	276.230 €	%29	881.502 €	1.397.535 €	%102	1.397.535 €	519.859 €	%37	465.211 €	1.263.175 €	%272	%73	1.720.364 €	154.946 €						
PASAIÁ	4.931.854 €	%75	3.698.890 €	2.670	1.847 €	431.527 €	- €	-	1.855.925 €	412.313 €	%22	1.202.024 €	114.899 €	%10	1.364.517 €	270.367 €	%20	1.556.242 €	1.533.792 €	%99	%47	2.460.675 €	117.358 €						
Donostia-San Sebastián	10.070.573 €	%50	5.035.287 €	17.476	576 €	805.646 €	26.035 €	%3	3.691.225 €	10.117 €	%6	6.097.268 €	2.253.524 €	%37	587.791 €	682.597 €	%116	4.585.491 €	5.284.305 €	%115	%82	2.534.049 €	- €						
DONOSTIA ALTZA	4.689.728 €	%50	2.344.864 €	10.999	426 €	375.178 €	20.725 €	%6	1.477.599 €	10.117 €	%1	2.990.035 €	2.200.602 €	%74	552.530 €	573.479 €	%104	1.858.513 €	1.924.936 €	%104	%101	47.241 €							
DONOSTIA LOIOLA	5.380.845 €	%50	2.690.423 €	6.477	831 €	430.468 €	5.310 €	%1	2.213.627 €	- €	%6	3.107.233 €	52.922 €	%2	35.261 €	109.118 €	%309	2.726.978 €	3.359.369 €	%123	%66	2.486.808 €							
Goierrri	12.409.090 €	%50	6.204.545 €	20.217	579 €	2.598.350 €	2.110.147 €	%81	3.902.626 €	3.159.103 €	%81	4.578.012 €	3.602.446 €	%79	1.807.547 €	1.670.500 €	%92	916.273 €	845.316 €	%92	%92	798.693 €	193.710 €						
LEGAZPI	4.035.281 €	%50	2.017.641 €	9.278	435 €	322.823 €	361.998 €	%112	877.972 €	1.026.911 €	%117	1.382.635 €	1.492.093 €	%108	733.235 €	358.783 €	%49	509.660 €	521.079 €	%102	%93	285.837 €							
ORDIZIA	3.348.395 €	%50	1.674.198 €	9.222	363 €	580.980 €	583.952 €	%101	989.155 €	689.165 €	%17	1.366.535 €	1.003.941 €	%73	409.799 €	348.001 €	%85	266.406 €	226.870 €	%85	%85	305.000 €	193.710 €						
URRETXU	2.018.346 €	%50	1.009.173 €	417	4.840 €	550.278 €	196.191 €	%36	917.393 €	665.807 €	%73	866.810 €	144.380 €	%17	549.582 €	756.332 €	%138	47.780 €	- €	%6	%87	207.855 €							
ZEGAMA	3.007.067 €	%50	1.503.534 €	1.300	2.313 €	1.144.269 €	968.005 €	%85	1.118.105 €	777.220 €	%70	962.031 €	962.032 €	%100	114.932 €	207.384 €	%180	92.427 €	97.367 €	%105	%100								
Tolosa	3.901.289 €	%50	1.950.645 €	2.659	1.467 €	312.103 €	466.468 €	%149	1.301.647 €	1.099.424 €	%84	1.156.990 €	1.061.519 €	%92	598.292 €	977.225 €	%163	351.653 €	873.673 €	%248	%115	- €	- €						
TOLOSA	3.901.289 €	%50	1.950.645 €	2.659	1.467 €	312.103 €	466.468 €	%149	1.301.647 €	1.099.424 €	%84	1.156.990 €	1.061.519 €	%92	598.292 €	977.225 €	%163	351.653 €	873.673 €	%248	%115								
BIZKAIA	141.899.365 €	%64	99.436.831 €	209.750	677 €	22.916.277 €	8.234.405 €	%36	51.985.566 €	20.985.959 €	%40	41.177.154 €	29.634.180 €	%72	34.663.325 €	23.755.771 €	%69	26.586.934 €	24.225.639 €	%91	%75	20.758.163 €	6.841.761 €						
Nerbioi Garaia	23.009.996 €	%75	17.257.498 €	25.738	894 €	5.671.810 €	1.036.419 €	%18	11.059.737 €	4.093.784 €	%37	5.945.684 €	7.149.684 €	%120	3.799.098 €	2.460.098 €	%65	3.739.334 €	1.516.405 €	%41	%71	4.002.535 €	414.011 €						

2004-2008 ALDIRAKO IZARTU PROGRAMA	GUZTIZKO INBERTSIOA	% DIRU-LAG.	DIRU-LAGUNTZA	BIZTANLE ONURADUNAK	INBERTSIOA BIZTANLEAN ARABERA	GASTUAREN PLANGINTZA ETA BETEARAZPENA									
						2004. URTEA			2005. URTEA			GASTUAREN % GUZTIZKO INBERTSIOAREN ARABERA	2006. URTEA	2007. URTEA	2008. URTEA
						PLANGINTZA	GUZTIZKOA	PLANGINTZARI DAGOKIONEZ	PLANGINTZA	GUZTIZKOA	PLANGINTZARI DAGOKIONEZ				
GUZTIZKOA	172.933.904 €	%62	109.000.000 €	439.471	578 €	1.333.335 €	8.069.433 €	%605	28.145.648 €	39.326.679 €	%140	%27	57.645.957 €	57.243.883 €	28.442.411 €
ARABA	5.438.098 €	%50	2.719.050 €	5.751	946 €	33.260 €	46.713 €	%140	866.182 €	1.252.062 €	%145	%24	1.747.590 €	1.824.882 €	966.184 €
Arabako lautada	5.438.098 €	%50	2.719.050 €	5.751	946 €	33.260 €	46.713 €	%140	866.182 €	1.252.062 €	%145	%24	1.747.590 €	1.824.882 €	966.184 €
SALVATIERRA/AGURAIN	2.697.133 €	%50	1.348.567 €	4.006	673 €	16.496 €	46.713 €	%283	429.405 €	872.732 €	%203	%34	866.556 €	905.202 €	479.474 €
VITORIA-GASTEIZ	2.740.965 €	%50	1.370.483 €	1.745	1.571	16.764 €	- €	-	436.777 €	379.330 €	%87	%14	881.034 €	919.680 €	486.710 €
GIPUZKOA	79.566.533 €	%63	45.910.511 €	178.969	445 €	561.598 €	2.870.360 €	%511	13.282.914 €	14.984.451 €	%113	%22	27.521.246 €	25.803.685 €	12.363.892 €
Debagoiena	16.064.253 €	%35	5.432.614 €	21.465	748 €	66.454 €	536.612 €	%807	2.843.369 €	2.784.745 €	%98	%21	5.415.264 €	5.582.731 €	2.156.434 €
ANTZUOLA	3.899.956 €	%30	1.169.987 €	1.899	2.054 €	14.312 €	28.285 €	%198	880.173 €	330.268 €	%38	%9	1.502.737 €	1.502.733 €	- €
ARRASATE/MONDRAGON	3.066.685 €	%50	1.533.343 €	2.800	1.095 €	18.756 €	68.406 €	%365	491.563 €	149.094 €	%30	%7	988.610 €	1.027.258 €	540.498 €
BERGARA	4.852.280 €	%30	1.455.684 €	14.965	324 €	17.807 €	388.777 €	%2183	787.603 €	1.737.654 €	%221	%44	1.562.187 €	1.626.600 €	858.083 €
ESKORIATZA	4.245.332 €	%30	1.273.600 €	1.801	2.357 €	15.579 €	51.144 €	%328	684.030 €	567.729 €	%83	%15	1.361.730 €	1.426.140 €	757.853 €
Bidasoa Behea	4.560.420 €	%75	3.420.315 €	35.322	129 €	41.839 €	16.468 €	%39	1.181.580 €	564.103 €	%48	%13	1.934.677 €	922.940 €	479.384 €
HONDARRIBIA	1.795.041 €	%75	1.346.281 €	1.301	1.380 €	16.468 €	16.468 €	%100	741.072 €	538.111 €	%73	%31	1.037.501 €	- €	- €
IRUN	2.765.379 €	%75	2.074.034 €	4.206	657 €	25.371 €	- €	%0	440.508 €	25.992 €	%6	%1	897.176 €	922.940 €	479.384 €
Debabarrena	9.362.146 €	%58	5.304.113 €	19.375	483 €	64.881 €	101.843 €	%157	1.502.412 €	980.231 €	%65	%12	3.015.447 €	3.106.995 €	1.636.904 €
ELGOIBAR	3.637.165 €	%50	1.818.583 €	10.440	348 €	22.245 €	44.395 €	%200	587.516 €	365.471 €	%62	%11	1.177.026 €	1.215.672 €	634.706 €
MUTRIKU	3.232.822 €	%50	1.616.411 €	4.775	677 €	19.772 €	55.280 €	%280	519.506 €	485.074 €	%93	%17	1.031.482 €	1.058.620 €	567.934 €
SORALUZE-PLACENCIA DE LAS ARMAS	2.492.159 €	%75	1.869.119 €	4.160	599 €	22.864 €	2.168 €	%9	395.390 €	129.686 €	%33	%5	806.939 €	832.703 €	434.264 €
Donostialdea / Donostia San Sebastian	2.473.773 €	%75	1.855.330 €	2.115	1.170 €	22.695 €	- €	%0	392.353 €	334.960 €	%85	%14	800.867 €	826.631 €	431.228 €
DONOSTIA-SAN SEBASTIAN	2.473.773 €	%75	1.855.330 €	2.115	1.170 €	22.695 €	- €	%0	392.353 €	334.960 €	%85	%14	800.867 €	826.631 €	431.228 €
Mendebaldeko ingurabidea	10.307.646 €	%63	6.224.845 €	52.390	197 €	76.146 €	1.076.510 €	%1414	1.639.801 €	5.316.293 €	%324	%62	3.323.562 €	3.452.382 €	1.815.756 €
ANDOAIN	2.156.467 €	%75	1.617.350 €	13.814	156 €	19.784 €	310.890 €	%1571	339.954 €	2.063.195 €	%607	%110	696.068 €	721.832 €	378.829 €
ASTIGARRAGA	2.862.964 €	%50	1.431.482 €	2.634	1.087 €	17.511 €	39.000 €	%223	457.300 €	1.665.559 €	%364	%60	921.326 €	959.972 €	506.856 €
HERNANI	3.160.597 €	%50	1.580.299 €	18.747	169 €	19.331 €	726.620 €	%3759	507.359 €	1.297.678 €	%256	%64	1.019.628 €	1.058.274 €	556.006 €
LASARTE-ORIA	2.127.618 €	%75	1.595.714 €	17.195	124 €	19.520 €	- €	%0	335.188 €	289.862 €	%86	%14	686.540 €	712.304 €	374.065 €
Ekialdeko ingurabidea	8.061.855 €	%67	5.120.911 €	14.672	549 €	62.641 €	3.248 €	%5	729.636 €	224.771 €	%31	%3	3.184.701 €	2.696.247 €	1.410.819 €
ERREENTERIA	2.545.015 €	%75	1.908.761 €	11.455	222 €	23.349 €	3.248 €	%14	404.117 €	26.263 €	%6	%1	824.396 €	850.160 €	442.992 €
LEZO	1.814.917 €	%75	1.361.188 €	1.935	938 €	16.651 €	- €	%0	283.551 €	127.759 €	%45	%7	583.263 €	609.027 €	322.427 €
OIARTZUN	3.701.923 €	%50	1.850.962 €	1.282	2.888 €	22.641 €	- €	%0	41.968 €	70.750 €	%169	%2	1.777.042 €	1.237.060 €	645.400 €
Goierri	11.832.398 €	%65	7.467.665 €	10.370	1.141 €	91.348 €	151.110 €	%165	2.295.896 €	1.608.910 €	%70	%15	4.376.866 €	3.305.897 €	1.742.513 €
ATAUN	1.917.684 €	%75	1.438.263 €	1.514	1.267 €	17.593 €	9.198 €	%52	300.521 €	427.462 €	%142	%23	617.204 €	642.968 €	339.397 €
LEGAZPI	2.949.969 €	%50	1.474.984 €	4.820	612 €	18.043 €	52.283 €	%290	471.934 €	515.521 €	%109	%19	950.062 €	988.708 €	521.222 €
SEGURA	2.319.911 €	%75	1.739.934 €	1.225	1.894 €	21.284 €	44.802 €	%210	366.944 €	73.986 €	%20	%5	750.049 €	775.813 €	405.820 €
ZALDIBIA	2.676.563 €	%50	1.338.281 €	1.517	1.764 €	16.371 €	- €	%0	425.948 €	105.899 €	%25	%4	859.762 €	898.408 €	476.074 €
ZEGAMA	1.968.271 €	%75	1.476.203 €	1.294	1.521 €	18.057 €	44.827 €	%248	730.549 €	486.042 €	%67	%27	1.199.789 €	- €	- €
Tolosaldea / Tolosa	8.653.296 €	%75	6.489.971 €	12.918	670 €	79.387 €	336.219 €	%424	1.380.504 €	1.370.049 €	%99	%20	2.809.489 €	3.146.434 €	1.237.479 €
IBARRA	2.223.511 €	%75	1.667.633 €	4.208	528 €	20.399 €	324.199 €	%1589	351.025 €	972.311 €	%277	%58	718.211 €	743.975 €	389.901 €
LEGORRETA	1.572.341 €	%75	1.179.256 €	1.351	1.164 €	14.425 €	12.020 €	%83	259.653 €	73.722 €	%28	%5	519.305 €	778.957 €	- €
TOLOSA	2.327.869 €	%75	1.745.901 €	4.083	570 €	21.356 €	- €	%0	368.258 €	47.578 €	%13	%2	752.677 €	778.441 €	407.135 €
VILLABONA	2.529.575 €	%75	1.897.181 €	3.27.											